

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-06-20
ASTELEHENA
326. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Labayen eta
Zuazubizkar
garaile
binakako
txapelketan



Bikote irabazlea saioan. | J.A

FAMILIA HANDITUZ DOA

Beste lau erraldoi konpartsan | 13



Bigarren eskuko autoen
azoka, herritarren bilgune | 4



Urteurrena ospatzeko jaia ospatu
zuen Leizarra Musika Eskolak | 29



Burrumbak piztu du txinparta

Danbor hotsek hartu zituzten zapatuan Arrasateko kaleak. 240 ume danbaka... Badator sua... Badatoz San Juanak. | 12

Ume taldea, makilak gogoz astintzen.

JOSETXO ARANTZABAL

Oskar Askasibar elgetarra 24. sailkatu da Quebrantahuesos lasterketan

Bailarako 157 txirrindularik hasi zuten Pirineotako proba entzuetetsua, eta horietatik 136k bukatu. 205 kilometroko proban, hainbat mendateri aurre egin behar izan zieten parte hartzaileek; tartean Somport, Marie Blanque eta Portalet. | 22-23

Euskal karabana solidarioa, Saharako kanpamenduetara

Elikagaiez eta higiene produktuez betetako kamioak egubakoitzean hartu zuen Algeriako Tindouf herriko errefuxiatu sahararren kanpamenduetarako bidea | 5

AHTren desjabetzeetan izandako "iruzurrak" mintzatu da Guirao, gurean | 5

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ZURE LAGUN ONENARENTZAKO !



Txartela, beti aldean

► Zoaz 32 orrialdera

Ikasgela edo mendian, euskara hobetu daiteke udan

- ▶ Udal euskaltegietan eta Erdu-AEKn izena eman daiteke ikastaro trinkoak egiteko
- ▶ AEK-k 11. oinezko barnetegi ibiltaria eta 2. bizikletazko barnetegi ibiltaria antolatu ditu

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Euskara ikasteko eta hobetzeko gogoak ez du oporrik hartzen; eta horretarako nahi beste aukera daude, Debagoienean eta kanpoan.

Debagoieneko euskaltegietako ateez zabalik jarraituko dute udan, abuztuan bakarrik atseden hartuta. Bailaran bost euskaltegi dauzkagu -Arrasate, Leintz, Bergara eta Oñatiko udal euskaltegiak eta Erdu-AEK, Arrasaten- eta horietan izena emateko aukera zabalik dago.

Batik bat, EGAREN azterketarako eskolak jaso nahian jotzen du jendeak uztailean euskaltegi-tara. Euskaltegi gehienek jendeak eskatzen duenaren araberrako eskolak ematen dituzte; horrenbestez, oraingoz EGA eskolak dauzkate antolatuta.

EGA azterketa prestatzera

Bi zatitan egingo dute ikastaroa: zati bat uztailean eta bestea irailan. EGAKo atari-proba irailaren 17an izango da. Horregatik, ikastaro trinkoak egingo dituzte euskaltegi guztietan. Arrasateko Udal Euskaltegiko Izaskun Unda idazkariaren esanetan, "batik bat, gaztetxoak" joango dira ikastera, baina baita langile batzuk ere. "Uztailean lau ordu emango ditugu, eta irailan, bi. Azterketarako prestatzera etortzen dira, eta oso motibatuta egoten dira", gaineratzen du. Udal Euskaltegian, datorren astelehenean hasiko dira eskolak. Han dagoeneko itxi dute matrikulazio epea.

Bergarako Udal Euskaltegian, oraindik aste osoan, egubakoitzera arte, egin daiteke udako matrikula, eta han ere, uztailean lau ordu eta irailan bi emango dituzte egunero; denetara, 100 ordu

inguru. Uztailean, bost langile ibiliko dira euskaltegian.

Leintz Udal Euskaltegian, Aretxabaletan, esan dute oraindik jendea izena ematen dabilela, eta gehienek EGA eskolak eskatu dituztela. Udan, "gaztetxoak, Batxilergoa bukatu dutenek edo 20 urte ingurukoak" dira ikasle gehienak, euskaltegiko arduradunek dioskutenez. Han, uztailean hiru ordu emango dituzte egunero, goizez, eta irailan, bi, arratsaldez.

Euskaltegietan normalean egiten duten moduan, jendeak izena ematen badu eta eskaera jakin baterako gutxieneko taldea sortzen bada, eskolak antolatuko dituzte Leintz Udal Euskaltegian. Orokorrean, zortzi lagun behar izaten dira taldea osatzeko.

Dena dela, matrikula epeak berez zehaztuta egon arren, edo-

zein unetan jo dezakete euskaltegira interesatuek.

Oñatin, taldea osatu guran

Oñatiko Udal Euskaltegian oraindik ez dute EGA taldea osatzetik lortu, eta azterketa prestatu gura dutenei dei egiten diete animatu daitezen. Ekainaren 27tik uztailearen 15era eta irailaren 1etik 7ra emango dituzte klaseak, 09:00-13:30 ordutegian. 80 ordu izango dira, eta matrikularen prezioa, 108,5 euro. Talde ofiziala izateko zortzi lagun behar dituzte.

Osatuta dagoen taldea da Udalak bideratutako gazte etorkinena: 14 bat lagun, 14 eta 16 urte artekoak eta Oñatin eskolarizatuta, baina euskara errefortzua behar dutenak; herrian euskaraz autonomia txikiena dutenak, alegia.

Oinez edo bizikletaz

AEK euskaltegiek bi motatako eskaintza dute udan: batetik, euskaltegietan eskolak. Arrasateko Erdu-AEK euskaltegian EGA eskolak emango dituzte, uztailearen 4tik 21era eta irailaren 5etik 15era, eta bi aukera daude: asteleheneetik egunera 09:30etik 11:30era, edo asteleheneetik egunera 19:00etatik 21:00etara. Matrikulazio epea etzi, eguaztena, bukatuko da, eta matrikula 65 euro da.

Oso bestelakoa da udako beste eskaintza: barnetegi ibiltaria bizikletaz (11. urtez antolatzen da) edo oinez (2. urtez). AEK-k antolatu arren, denondako zabalik dago. Baldintza bakarrarekin: "16 egunean euskaraz bizi nahi izatea", AEK-ko informazio arduradun Asier Arroitzaren esanetan.

Izema emateko, oinezkoan behintzat, lehenbailehen ibili behar da, epea egunean, hilak 23, bukatzen da-eta. Bizikletako



EGA prestatzeko ikastaroaz gain, beste edozein euskara premia asetzen saiatuko dira eus-

barnetegian parte hartu gura dutenek, berriz, uztailearen 23ra arte dute aukera. Horretarako, 630 03 05 68 telefono zenbakira deitu edo ibiltaria@aek.org helbidera mezua bidali behar da.

Bizikletazko barnetegi Urduñatik abiatuko da eta Zarau-

tzen bukatuko da, Gorbeia aldea, Arabako lautada, Urbasa, Handia, Ultzamako herriak, Erronkari harana, Otsagi, Irati eta Aralar bezalako paraje ederretatik pasatu ondoren. Oinezko uztailearen 2an Urduña ingurutik abiatuko da eta, Gorbeia, Anboto, Aizkorri,



lazko oinezko barnetegi ibiltarian parte hartu zuen taldea. | AEK-ASIER ARROITZA

DATUAK
5 EUSKALTEGI
Arrasate, Bergara, Leintz eta Oñatiko udal euskaltegiak eta Erdu-AEK zabalik daude uztailean.
1.000 KILOMETRO
Bizikletazko barnetegian, 1.000 kilometro egingo dituzte Urduñan hasi eta Zarautzen bukatuta; egunero 60 inguru.



Ikasleak udan. Argazkian, Leintz Udako Euskaltegiko ikasle batzuk. | LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA



Bizikletazko barnetegi ibiltariak bigarren urtea du aurten. | AEK-ASIER ARROITA



Barnetegi ibiltarrietan, euskara, udako aisialdia eta mendia... eta ondo pasatzea, denak bateratzen dira. | AEK-ASIER ARROITA

Aralar eta bestelako mendigune ederretatik pasatu ondoren, uztailaren 17an Nafarroako Hiru Erregeen Mahaiko tontorrera ailegatu dira.

Hortaz, euskara, mendia, uda eta kirola bateratzen dira. Horregatik, antolatzaileek "gomendatu"

egiten dute bizikletaz edo oinez ibili izana, nahiz eta, Asier Arroitararen hitzetan, "martxa oso lasaia" izango den batean zein bestean.

Prezioaren barruan sartzen dira laguntza-furgoneta (trasteak eramateko eta zati batzuk egiteko), lo egiteko lekuak, jatorduak eta

ibilbideari buruzko informazio guztia. "Norberak ohiko gauza batzuk besterik ez ditu eraman behar: lo-zakua, arropa batzuk, zeria (esterilla)...".

Hasiberriak zein peto-petoak

Deialdia irekia denez, euskaraz bizi nahi duten guztiok dute lekua barnetegi horietan: "Gurekin etorzen dira erdaldunak, ikasle hasiberriak, euskalduntze-prozesuan euskaldun zaharrak direnak baina sakondu nahi dutenak, edo beste barik udan mendia eta euskara uztartu nahi dituztenak", esaten du AEK-ko informazio sistemen arduradunak.

Euskaraz batzuk hobeto eta beste batzuk ez hain ondo moldatzeak ere ez du arazorik sortzen, Arroita azaltzen duen moduan: "Elkarri laguntzen diote; gainera, furgoneta-gidaria irakaslea izaten da, eta egunean zehar beste bi irakasle doaz ikasleekin, zalantzak argitzeko. Beste euskaltegi batzuetako irakasleak ere etorri izan dira. Euskararen mesedetarako baldin bada, hor ibiliko gara guztiok".

Euskal Herriko txoko ederretariko batzuk ezagutzeaz gain, bertako euskal hiztunak eta euren berba ezagutzeko parada izango dute barnetegikoek: "Bizikletazko

barnetegan zazpi herrialdeetatik ibiliko gara, eta oinezkokoan, hiritik; hortaz, hainbat euskalki ezagutzeko aukera izango da", esaten du AEK-ko ordezkariak. Ikasteko nahikoa aukera ez dute izango, baina gutxienez lehenengo harreman bat egin ahal izango dute.

Azkenik, kultura ekintza batzuk ere antolatu dituzte: "Normalean, arratsaldeko seiak edo zazpiak aldera dutzatuta eta atsedean hartzeko moduan izango gara, eta zenbait ekintza egin ahal izango ditugu: adibidez, Enkarterrietako Jokin Castañós bertsolariarekin bertso-afaria egingo dugu. Bestalde, ikasleek eurek antolatu dituzte zenbait ekintza: batek askotariko txorien izenak eta kantua ezagutzeko ikastaro teoriko-praktikoa emango digu; beste batek, belarrak eta zuhaitzak ezagutzeko; berbalagun batzuek laztanen ikastaro bat proposatu dute...", esaten du Asier Arroita.

Barnetegi Arantzazun

Horrez gain, Habek antolatutako barnetegietan hainbat lagun izango dira aurten ere; bitxikeria gisa, barnetegietako bat Arantzazun izango da, eta bost txanda izango dira.

Bestetik, 30 bat lagunek euren euskara hobetuko dute Egonaldiak familia euskaldunetan delako programarekin. Euskal Herri osoko ikasleek eta familiak parte hartzen dute; aurten, 15 familiak. Programa horretan, inoiz izan dira Debagoieneko familiak.

ESANAK

"Baldintza bakarra da 16 egunean euskaraz bizi nahi izatea"

"Oinez zein bizikletan, martxa lasaia egingo dugu; ez gara kirolari profesionalak"

ASIER ARROITA | AEK-KO ORDEZKARIA





Estilo, tamaina eta prezio guztietako autoak ikusi ahal izan ziren bigarren eskuko autoen azokan. | JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren eskuko autoek hartu zuten Bergarako Seminarioa

1000 Aukera taldea, emaitzarekin pozik, hurrengo azokarako ideiak lantzen ari da dagoeneko

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Durangon ez zuten eguraldiarekin zorterik izan, baina Bergaran bai. 1000 Aukera taldekoak pozik daude bigarren eskuko autoen azokak emandakoarekin. Durangokoaren ostean, Bergarako izan da bigarrena eta dagoeneko hirugarrenean pentsatzen hasita daude: "Oso ondo joan da dena eta auto kontzesionarioak eta jabe

partikularrak oso pozik joan dira. Beti dago zer hobetu, eta hurrengo azokarako ideiak partekatu ditugu beraiekin", kontatu zigun amaieran 1000 Aukera taldeko Ander Iturriagagoitiak.

Eguerdi partean jende gehien

Zapatuan 10:00etan ireki zituen ateak azokak eta lehenengo orduak lasai xamarrak izan ziren arren,

eguerdi partean jende dezente hurbildu zen Seminarioa.

Denetarikoa jendea ibili zen; batzuk bigarren eskuko autoa erosi nahi zutelako joan ziren, baina beste asko, autozaleak izanda, besterik gabe autoak ikusi nahi zituztelako gerturatu ziren. "Autoak gustatzen zaizkit eta autoekin zerikusitu duen edozer gustatzen zait", zioen mutil batek auto baten ezaugarriak eta prezioa irakurtzen zituen bitartean.

Autoak ere estilo, tamaina eta prezio guztietakoak zeuden: 4x4 ibilgailuak, familiarrak, furgonetak, auto klasikoak...

Bere aukera topatu ez duenak, hirugarren azokara itxaron behar du; egongo da-eta.



JOSE ANTONIO AGIRRE HERRITARRA

"Egunkarian izan nuen azokaren berri eta begiradaxo bat botatzera etorri naiz. Oso ondo dago, baina motor gehiago egotea espero nuen. Autoa erosteko asmoa dutenendako oso ondo dago horrelako azoka bat".



IDOIA ARISTI HERRITARRA

"Zaldibiatik etorri gara. Internet bidez izan dugu azokaren berri. Bigarren eskuko auto bat erostea nahi dugu, baina oraindik ez daukagu erabakita nolako nahi dugun. Internet bidez baino hobeto horrelako azoka batean".



JOXE ANGEL SASIETA SALTZAILEA

"Azpeititik etorri naiz eta nire autoa eta lehengusuaren motorra ekarri ditut. Ideia oso ona iruditzen zait, orain ikusi egin behar ondo funtzionatzen duen eta autoa saltzen dudana. Jende asko-asko ez, baina egia esan badabil jendea galdezka".



PABLO IRIZAR SALTZAILEA

"Arrasateko Renault Autoberri kontzesionarioko komertziala naiz. Ikasleei laguntzeko proiektu bat da, baina guri ere oso ondo etortzen zaiguna. Goiza lasai xamar ibili da, baina eguerdi partean jende gehiago ibili da. Kontaktu batzuk egin ditut".

Urretxu eta Antzuola lotuko dituen tramuaren lehenengo harria ipini zuten egubakoitzean

Deskargako mendatea sahiesteko 680 metroko tunela eraikiko dute

A.B. | ANTZUOLA

Beasain-Bergara ardatza osatzeko falta den azken tramuko lanak hasiko ditu aurki Bidegik: Urretxu eta Antzuola lotuko dituen Bidegiren bitartez eraikiko den erre-pide zati hori 2,7 kilometro luze izango da eta 50 milioi euroko inbertsioa eskatuko du. 680 metro-tako tunela eraikiko da, Deskargako mendatea sahiesteko; Diputazioaren esanetan hori da Gipuzkoako bide sarean dagoen puntu zailenatariko bat.

Azken urratsa

Gipuzkoako Bide Azpiegitura diputatu Eneko Goiak azaldu zuen egubakoitzeko egun garrantzitsua zela, ekitaldi hark erakusten zuelako Gipuzkoa aurrera doala. Gipuzkoako gerrikoa amaitzeko falta den tramu bakarra dela azaldu zuen: "Honek Bergarara gerturatzeko gaitu. Obra honi esker gainera, hainbeste eragozpen sortzen dituen Deskargako mendatea eragozteko lortuko dugu".

Diputatu nagusi Markel Olanok, berriz, bi kontzepturekin lotu zuen eraikiko den zatia: Lehiakortasuna eta lurralde oreka. "Gipuzkoako arima ekonomikoa diren bi bailara, Deba-



Markel Olano eta Eneko Goia egubakoitzeko ekitaldian. | A.B.

goiena eta Goierri, lotuko ditu azpiegitura honek eta hori oso garrantzitsua da gure lehiakortasun ekonomikoa bermatzeko", azaldu zuen Olanok.

Bidesaria Urretxun

Kazetariak galdetu arte argitu ez zuten arren, Urretxu-Antzuola zatiak bidesaria izango du auto guztiedako Urretxu pasa eta berehala. Goiaren esanetan bestela ezinezkoa litzateke tramua- ren exekutazioa: "Tramu hau ez

da Diputazioaren aurrekontuarekin egingo, Bidegiren bitartez baizik. Erabiltzaileek bi aukera izango dituzte; Deskargako mendatea erabiltzea, doan, edo erre-pide berria ordainduta".

Bi urte eta erdiko lanak

Diputazioaren esanetan bi urte eta erdian bukatuta egongo da Urretxu-Antzuola zatia, eta beraz, baita Beasain-Bergara ardatza ere; N1-a, Bergaran, AP-1 errepidearekin lotuko duena.

Jose Ignazio Imaz | Txantxiku ikastolako irakaslea

"Azterketa oso 'perroa' izan da eta psikologikoki jota daude ikasleak"

JULEN IRIONDO | OÑATI

Selektibitateko kimikako azterketarekin gertatutakoarekin oso kritiko azaldu dira hainbat irakasle, tartean Txantxiku ikastolako Jose Ignazio Imaz. Galdera baten itzulpenarekin sortutako arazoaz gain, beste hainbat akats zeudela dio, eta intentzio txarra ikusten du gertatutakoaren gainean.

Nola ikusten duzu gertatutakoa?

Ikasleek erabiltzen duten hitza erabiliko dut. Azterketa oso 'perroa' zen eta ikasleak psikologikoki jota daude. Galdera batzuk programaziotik kanpo zeuden eta testuak ez ziren ondo ulertzen... Datuak falta ziren batzutan eta ariketa batean itzulpena kontrakoa zen. Donostiako Kimika fakultateak ere gertatutakoa salatu du.

Berandu erreakzionatu izana ere salatu duzue...

Azterketa egunean izan zen eta astelehenera arte ardura-dunak ez ziren batu. Unibertsitateko sARBIDE zuzendaria, Julio Agirre, adituen komisio deiturikoarekin batu zen. Esango nuke hori dela Caudillo-a bere jeneralekin batzea bezala; guztiak bando berekoak. Zer esan zuten? Ba, azterketa ondo zego-



Jose Ignazio Imaz. | J.I.

la. Noski, itzulpenarena onartu egin behar izan zuten. Arrazoia zutela erakusteko emaitzak puztu egin dituzte aurreko urteetakoan antzekoak izan daitezke.

Eta hemendik aurrera, zer?

Ez dakit. Amorrua ematen duena da badirudiela ez dela ezer gertatu. Datorren urtean ere koordinatzaileak eta zuzendaria berdinak izango dira. Badirudi hauek kargua hartu eta *para-plejiatu* egiten direla aukian.

Intentzio txarra ikusten duzu?

Ez dakit. Selektibitateko koordinatzaile Angel Valea oso berezia da, arraroa. Bere ikasleek ere diote burua joanda duela.

Fernando Guirao: "AHTren desjabetzeetan %30 gehiago kobratzeko eskubidea dute kaltetuek"

- ▶ Sustapen Ministerioak "lege-iruzurra" egin duela dio
- ▶ Cleocir enpresako ingeniaria hitzaldiak ematen ari da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Abiadura Handiko Trenak zeharkatuko dituen herrietan hitzaldiak egiten dabil Cleocir izeneko aholkularitza enpresako Fernando Guirao ingeniaria. Egunotan Aramaion, Arrasaten, Eskoriatzan eta Bergaran egon da, lurjabeen informazioa ematen. Ordu bete pasatxoko hitzaldietan, kaltetuei azaldu die Espainiako Sustapen Ministerioak "lege-iruzurra" egin zuela lurrak desjabetzerakoan, eta horregatik, egindakoa ez dela desjabetzea izan, baizik eta "legez kanpoko okupazioa, botere-abusuarekin", bere hitzetan.

Guiraoren esanetan, Espainian eta Hego Euskal Herrian 1954an

egindako Indarrezko Desjabetzearen Legeak behartzen dituen zenbait izapide ez zituen egin Sustapenak. Horren ondorioz, azken baten, lurjabeek lortutako edo lortzeko diren balio justua (justiprezioa edo Sustapen Ministerioak lurrengatik ordaindutakoa) behar baino txikiagoa izan dela jakinarazi du Cleocir enpresako ordezkariak, eta baita %30 gehiago kobratu dezaketela ere.

Auzitegi Gorenaren epaiak

Fernando Guirao honako hau ere esan du: "Auzitegi Gorenak aldeko sententziak eman ditu beste desjabetze kasu batzuetan,

eta sententzia horiek hemen aplikatzeko eskatuko dugu; hau da, ez dira prozedura gehiago ireki behar".

Horretarako, Cleocirrek proposatzen die lurjabeen eurekin kontratu bat sinatzeko, eta hiru urteren buruan %30 hori lortuko dutela agintzen diete. Enpresak zati bat kobratuko luke, eta lurjabeen lortutakoaren %61 gertuko litzaioke.

100 eskatzaile

Guirao esan du dagoeneko AHTk zeharkatzen dituen herri askotan egon dela, Gasteiztik hasita, eta jende askok sinatu duela kontratua. Horren harira, honakoa



Fernando Guirao eguaztenean, Bergaran. | LEIRE KORTABARRIA

aipatu digu: "Dagoeneko 100 eskatzaile dauzkagu, eta uste dugu 500era ailegatu gaitzkeela. Taldeko demanda bat izango da eta horrek indar handiagoa eman-gio dio".

Guirao herriz herriko datu batzuk eman zituen, bakoitzean zenbat lurjabe sinatu duten eurekin kontratua: Eskoriatzan, %75ek; Aramaion, %60ek; Arrasaten, %44ek; eta Gatzagan, erdiek.



Kamioia kargatzen ibili ziren egubakoitz arratsaldean, Arrasateko Markuletako biltegian. | JOSETXO ARANTZABAL

Euskal Karabana Solidarioa Sahararantz abiatu da 5.000 elikagai kilorekin

Egubakoitzean bailaran jasotako elikagai eta higiegi produktuak kargatu zituzten kamioi batean

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Euskal Karabana Solidarioa egin dute osteran ere Arrasateko Nubi, Aretxabaletako Iesbaa eta Bergarako Bubisher elkarteek. Aurten bildutako elikagaiak arroza, pasta, kontserbak oliotan, lekaleak, olio eta azukrea izan dira; eta higiegi produktuei dagokionez, helduendako ipurzapiak eta konpresak.

Lehenengo bi elkarteen artean, besteak beste, 493 kilo arroz, 431 azukre, 579 lekale, 464 pasta eta 363 kontserbak oliotan batu dituzte; hain justu, 2.411 kilo. Bubisherrek Bergaran, Angiozarren, Elgetan eta Antzuolan egindako bilketan 2.500 kilo jaso ditu.

Azken bi hilabeteotan egin dute Debagoiengan herri saha-

rarraren aldeko elikagai eta higiegi produktu bilketa, eta egubakoitz arratsaldean, Arrasateko Udalak utzitako biltegian bildutako guztia kamioi batean kargatu zuten, eta Tolosara bidali zuten. Zapatuan Alacanterantz abiatu zen handik Euskal Karabana; Oranera pasa eta bertatik Algeriako Tindouf herrian dauden errefuxiatu sahararren kanpamenduetaraino joatekoa da.

Eskerrak

Sahara herriaren alde lan egiten duten elkarteek eskerrak eman nahi izan dizkiete herritarrei, ikastetxeei, boluntarioei, kanpainen modu batean edo bestean parte hartu duten udalei eta bereziki udal horietako brigadako langileei.

Osakidetzak bularreko-minbizia detektatzeko programa zabaldu du

M.B | ARRASATE

Bularreko-minbizia garaz detektatzeko programa zabaltea erabaki du Osakidetzak, eta hori dela-eta, aurrerantzean, familiar aurrekariak dituzten 40 eta 49 urte bitarteko emakumei ere egingo dizkiete mamografiak; hain justu ere, amak, ahizpak edo alabak bularreko minbizia izan duen kasuetan egingo dituzte.

Orain arte, 50 urtetik gorako emakumei bakarrik egin dizkiete proba horiek Euskal Autonomi Erkidegoan.

Joan den maiatzean, arrisku talde horretako Arabako 200 emakumeri bidali zien gutuna Osakidetzak, eta orain, gauza

bera egingo du Bizkaiko eta Gipuzkoako emakumeekin; horren harira, Gipuzkoan, 235 gutun bidaliko ditu hilabete honetan.

Udazkenean zabaldu

Osakidetzak esku artean dituen aurreikuspenak betetzen badira, osasun arduradunek uztailerako izango dituzte proba pilotu honen emaitzak; horren harira, jakinarazi dute uda partean horiek aztertuko asmoa dutela. Esperientzia pilotu horretan beharrezkotzat ikusten diren egokitzapenak egingo dituzte jarraian, irailean edo urrian programa zabalte aldera.

UNED-Bergarak hitzaldia eskainiko du etzi, 2011-12 ikasturteko eskaintza akademikoa aurkezteko

UNED-Bergarako arduradunek eta irakasleek hitzaldi informatiboa eskainiko dute eguaztenean, hilak 22, Donostiako Koldo Mitxelena, 19:00etan. 2011-2012 ikasturteko eskaintza aurkeztuko dute; Europako Goi Mailako Hezkuntza Ezpaziora %100ean egokitua dagoena. Ekitaldi horretan, ikasketa metodologiarekin lotuta dauden hainbat gai aztertuko dira eta arduradunak zantzak argitzen saiatuko dira. Debaldekoa den publiko guztiari irekitako hitzaldi hori amaitzean, informazio zabaltean interesatua dagoen guztiak ikasketa sail desberdinetako buruekin biltzeko aukera izango du.



Enpresa eta eraikuntzako ordezkariak, Ekitermik-eko adituen azalpenak entzuten. | JULEN IRIONDO

Energiaren gainerako kontzientzia pizten

Eraginkorrako izateko gomendioak eman zieten enpresei jardunaldi baten

JULEN IRIONDO / LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ikusmin handia piztu zuen joan den egunean, Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, Ekitermik energia eraginkortasun arloko enpresak egin zuen jardunaldia: *Aurrezte eta eraginkortasun energetikoa industria sektorean*. Debagoieneko hainbat enpresatoko eta eraikuntza arloko arduradunak izan ziren Ekitermik-eko adituen argibideak entzuten. Besteak beste, energia aurreztu ahal izateko auditoria energetikoen metodologia azaldu zieten.

Eraikinek, potentzial handia

Energia eraginkortasuna gero eta gehiago entzungo dugun kontzeptua izango da. Hona hemen Ekitermik-eko kide Jagoba Bergarak Goierna telebistari esandakoak: "Orain arte, energia oso merke eta eskura izan dugu; erregai fosilak asko erabili izan ditugu. Baina orain, bukatzen dabilta; petrolioaren kanpaia delakoaren gorenera ailegatu gara, eta aurrerantzean energia gero eta garestiagoa izango da. Horrek bultzatuko gaitu alor horretan inbertsioak egitera".

Bergararen iritziz, eraginkortasun energetikoa ez da enpresendako edo eraikuntzarako bakarrik; denondako balio duen kontzeptu bat da: "Norbanakoekin ere lan egiten dugu; izan ere, arlo guztietan aurreztu daiteke energia". Mankomunitateak antolatutako jardunaldian batik bat ekonomia eragileak izan baziren ere, Jagoba Bergarak dio "eraikuntzetan aurrezteko potentzial handia" dagoela. "Metodologia desberdina da eraikuntzetan eta industria enpresetan, baina guz-

tietan dago aurrezteko aukera", azaldu zuen.

Auditoria, komenigarria

Jagoba Bergarak gomendatzen du, lehenik eta behin, auditoria energetikoa egiteko. Ekitermik-ek azaltzen duenez, "behin eraikuntza baten fluxu energetikoaren analisia egin ondoren, kontsumo puntu nagusienak identifikatu eta aurrezpen energetikoa lortzeko neurriak planteatzen dira".

Ezer egin aurretik, argi izan behar da non kontsumitzen den energia gehiena. Izan daiteke argiteria, berogailu sistema, prozesu industrialak... Eta, gero, ekiteko modu asko daude.

Metodologia egokiena erabiltuta, bi helburu nagusi daude: "Batetik, aurrezpen ekonomikoa lortzen da; eta, bestetik, honen guztiaren atzean dagoen ideia nagusia gutxiago kontsumitu

beharrarena da". Izan ere, aditu horrek gaineratzen duenez, "energiari kasu handirik ez" diogu egin, baina aurrerantzean, hala-beharrez, kontzienteago izan beharko dugu.

Eraginkortasuna, bi hitzetan

ESANAHIA Energia gutxiago kontsumituta, energia-zerbitzu bereberei eta norbere bizitzakalitateari eustea da energia eraginkortasuna. Ingurumena babestea ere lehentasuna da.

ITURRIAK Energia mota guztietan izan gaitzeko eraginkorrak: elektrizitatea, gasa, lurruna... Eta berdin izan daitezke industria enpresak zein partikularrak.

NEURTU Gomendagarria da energia-auditoria bat egitea, enpresa espezializatu baten eskutik. Energia-fluxua analizatzen dute, gehien zertan kontsumitzen den ikusi, eta aurrezteko neurriak planteatzen dira.

ZER EGIN Hainbat neurri har daitezke eraginkorrak izateko: energia-iturriak aldatu, teknologia hobetu (argiak, motorrak...), prozesu industrialak eta automatizazioa hobetu...

ESANAK

"Energiari ez diogu kasurik egin, eta horrek gastu handia ekarri digu"

"Aurrerantzean, energia gero eta garestiagoa izango da"

JAGOBA BERGARA | ENERGIA ERAGINKORTASUNEAN ADITUA

Zergatan 1,7 milioi batu ditu Ogasunak, uste baino gutxiago

Maiatz bukaerarako iaz baino %7 gehiago batzea espero zuen, eta %3 gehiago batu du

L.K. | ARRASATE

Maiatz bukaera arteko zerga-bilketaren datua "positiboa" da, Gipuzkoako Ogasunaren esanetan, baina aurrekontuan ipinitako hazkundetik (%7) oraindik "urruti" dagoela onartu du Ogasunak: %3 handitu da iazkoaren aldean, maiatza bukatuta.

Aurreko urtean izandako hobekuntzaren aldean "arinduta" geratu da aurtengo hazkundera (%3,0 hazi da) iaz izan ziren ezohiko sarrerengatik (97,8 milioi Gipuzkoan, Rover enpresarekin lotuak).

Ezohiko sarrerak kenduta, zerga-bilketaren bariazioa, modu homogeneoan, %10 ingurukoa da, Ogasunaren arabera.

"Hobera egingo du"

Aurrekontuan ezarri zenaren arabera, zergatan gehiago batzea espero zuen Ogasunak, eta ezarritako helburutik 4 puntu atzean dago bildutakoa. Hala

ere, "pixkanaka hobera" joango dela esan du Ogasunak.

Orain arte, 1.773.773 euro batu ditu foru erakundeak; 571.418 itzuli ondoren, 1.202.355 euro garbi geratzen zaizkio.

PFEZn, 443 milioi

PFEZ kanpaina bukatu berri den honetan, maiatzaren 31ra arte 443.679.437 euro garbi zeuzkan batuta Ogasunak, 2010ean baino %12,1 gehiago. Aldiz, iaz baino %4,2 gutxiago zeukan itzulita (247.479.425 euro aurtan).

DATUA

%12

GEHIAGO

PFEZn, maiatz bukaerarako iaz baino %12,1 gehiago batu du.

Bi urtean, %58,7 onuradun gehiago izan dituzte enplegu-politikak sustatzeko diru-laguntzek

Joan den urtean, enpresa berriak sortzeko orientazioko, prestakuntzako eta laguntzako ekintzen bitartez enplegu-politikak sustatzeko Europar Batasunak Euskadira bideratu zituen laguntzek 123.801 onuradun izan zituzten guztira Euskadin, 2009an baino %58,7 gehiago. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak jakinarazi ditu datu horiek.

Datorren urtean, gutxieneko soldata KPIaren azpitik handituko da: gehienez ere, %2,5

Espainiako Lan ministroak, Valeriano Gomezek, martitzenean aurreratu zuen Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata %1,5 eta %2,5 artean handituko dela 2012an, KPIa (%3,5 maiatzean) baino gutxiago, hortaz. Gobernuak hitzartuta zuenarekin bat dator hori: 2011rako %1 eta %2 artean handituko zela onartu zen, eta 2012an, %1,5 eta %2,5 artean. 641,40 eurokoa da soldata hori.

Energia aldetik eraginkorrakoak diren pneumatikoengatik 80 euroko laguntza lor daiteke

Ekainaren 10az geroztik, ibilgailuaren pneumatiko bakoitza energia aldetik eraginkorrak den batengatik aldatzearen 20 euroko laguntza lor daiteke. IDAE erakundearen pneumatikoendako renove planarekin bat egin dute Debagoieneko zenbait tailerrek, eta horietan lor daitezke deskontuak. Renove planak abenduaren 15era arte iraungo du, edo aurrekontua (4,8 milioi) bukatu arte.

Bategite-kontratua ekaina bukatu baino lehen sinatuko dute Kutxak, BBK-k eta Vitalek

Hila bukatu baino lehen onartuko dute Kutxak, BBK-k eta Vitalek bategite-kontratua; horrekin, bategitea egia izateko irailean kutxa bakoitzaren batzarrak bategitearen alde bozkatzeko bakarrik faltako da. Banketxe berria sortuko da, eta hiru kutxek hari emango diote bere finantza-negozio osoa eta parte-hartze-zorroa; kutxa bakoitzak bakarrik gizartegintzari eutsiko dio.

Miguel Angel Elkoroberezibar | Euskal Filologoa

"Irala ez dago Bergarako hamazortzi pertsonaia ospetsuen artean sartuta"

- ▶ "Guarania hamarretik bederatzik berba egitea Iralari zor zaio"
- ▶ Iralaren jaiotza-data oraindik orain zehazteke dagoela dio idazleak

ASIER ALKORTA | BERGARA

Urteetan Domingo de Iralari buruz informazioa biltzen ibili eta gero, *Domingo de Irala y su entorno en Bergara* liburua berrargitaratu zuen Miguel Angel Elkoroberezibarrek (Bergara, 1966). Liburua aurkeztu eta bertan jasotakoa aurrez aurre kontatzeko, Argentina eta Paraguain egon berria da, euskal etxe batek gonbidatuta. Hangoei hemengoa kontatzen ibili da. Han bizitako esperientzia kontatzeko eta beste-lako kontuei erreposoa emateko gertu agertu da bergararra.

Zure lana aurkezten ibili zara Argentinan eta Paraguain. Zer moduzko harrera egin dizuete, zuri eta lanari?

Oso ondo hartu naute eta liburua lau haizetara zabaldu dute. Harrigarria da Domingo de Iralak paraje haietan sortzen duen interresa.

Duela urte batzuk ere egin zenuen beste bidaia bat. Oraingoarekin alderatuz, zein ezberdintasun topatu duzu bidaia batean eta bestean?

Paraguaiko Historia Akademiak eskatuta abiatu nintzen orain dela lau urte eta Asunciongo euskal etxearen eskutik joan naiz oraingoan. Historia Akademiak argitaratutako lanaren berrargitalpen gaurkotua da orain Asunciongo I. Euskal Astean aurkeztu dudana, Paraguairen independentziaren bigarren mendeurreneko ospakizunen barnean.

Labur esanda, nola deskribatuko zenuke Domingo de Irala?

Ehunka emazte eta seme-alaba izan zituela entzun izan dugu beti, hortik dator *txingadore* goitizena. Zazpi emazte izan zituela aitortu zuen hark testamentuan; beraz, badago zer edo zer egia dena, baina Rio de la Platako lehenengo gobernadorea eta Paraguairen fundatzailea izan zena hori baino gehiago izan zen. Mestizaiaren aita bezala ezagutzen dute Ameriketara. Zaldiak lehen aldiz Ameriketara eramane zituelako ere bada ezaguna, baina bereziki hiri asko sortu zituelako, lantegiak eraiki, guztiz militarra ez zen gizarte sistema berria eratu, lehenengo hauteskundeak bultzatu, indioen aldeko ordenantzak ezarri, gaur egun guarania hamarretik bederatzik berba egitea ere berari zor zaio hein handi batean... ez zen ohiko konkistatzailea izan.

Iralari buruz abestiak idatzi dituen poeta ere ezagutu duzu bidaia honetan, ezta? Zein da eta zer dela eta ditu abesti horiek?



Miguel Angel Elkoroberezibar, liburua eskuetan duela. | MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

"Paraguain eta Argentinan Iralak interesa sortzen du, harrigarria da"

"Bidaian pertsonaia ezagunak topatu ditut, Salas oñatiarra tartean"

"E.S. Dodgson euskaltzalearen biografiari heldu nahi diot orain"

Eduardo Mileo ezagutu dut, Buenos Airesko poeta ezaguna. Haren anaia Raul musikariarekin batera, *Irala, sueño de amor y de conquista* poema liburua eta CDa ekainean zehar kaleratzeko asmoa du. Amodioaren konkista eta boterearen konkista irudikatzen duen Irala pertsonaia egokia zela iruditzen zitzaien eta historia eta fikzioa nahastuz burutu dute lan hau.

Bidaian pertsonaia ezagun asko ezagutu dituzu. Baina norbaitek bereziki harritu zaitu?

Bizpahiru aipatzearen, Ray Armele idazle, kazetari eta zinema zuzendaria aipatuko dut, Paraguaiko gizartearen benetan gertatzen dena adierazten maisua delako (Iralari buruz film bat ere egin nahi du); David Galeano Guaraniar Hizkuntzaren Ateneoko zuzendaria, guaraniarraren normalizazioaren alde egindako lanagatik; Roberto Quevedo eta Roberto Elissalde historialari ospetsuak... Eta ezin ahaztu 50 urte baino gehiago Paraguain daramatzen frantziskotar oñatiarra, Jose Luis Salas.

Iralari buruz oraindik gauza gehiago kontatzeko daude? Zer edo zer ez duzu kontatu?

Nekien guztia kontatu dut, baina oraindik ibilbide luzea geratzen zaigu Iralaren ikerketan. Jaiotza-data, adibidez, oraindik orain zehaztu gabe dago.

Bergarrek Iralaren nondik norakoak ezagutzen dituzte ala ez dute hain ondo ezagutzen?

Ez da beste bergararrik egongo munduko enziklopedia guztietan agertzen dena hura beste. Milaka sarrera ditu Interneten. Eta Ameriketara herriak, mendiak, etorbideak, eskolak... daude haren izenarekin. Paraguain, esaterako, haurrek Iralaren nondik norakoak eskolan ikasten dituzte. Bestetik, hainbat nobela, poema eta kantutako protagonista ere bihurtu da Irala. Baina Bergaran, eta oro har Euskal Herrian, ez dugu apenas ezagutzen. Eta norbaitek haren irudia Bergarako udal-etxe osoko bilkuren aretoko bergarar ospetsuen erretratuen artean topatu nahi badu, jai dauka; ez dago hamazortzi ospetsu horien artean.

Ingeles eskolak ematen dituzu institutu baten. Nondik datorkizu historialari sena?

Ikertzaile sena daukadala esango nuke. Normalean, bigarren planoan egon diren pertsonaiek erakarri naute, nahiko ezezagunak zirenak. Eta zer esanik ez, bereziki bergarar jatorria dutenak.

Egin dituzun lanetan informazio bilketa lana handia izan da. Neketsua izan da? Ala informazioa erraz lortzen joan zara?

Gustuko lanetan aldaparik ez! Artxiboz artxibo aritu beharra dago XVI. mendeko agiriak arakatzeko. Kolaboratzaile asko izan ditut ozeanoaren bi aldeetan eta horrek erraztu egin du lana.

Zein da buruan duzun eta egin nahi duzun hurrengo lana?

Alde batetik, aspaldi hasitako E.S. Dodgson euskaltzale ingelesaren biografiari heldu nahiko nioke berriro; eta bestetik, Bergarako erreileno eta tostoen historia landu nahiko nuke.

ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ
'http://goiena.net/iritzia/'



Aldaketa soziologikoa dator

Ematen zuen azken hamabost urteotan euskal gazteria loak hartuta zegoela eta ez zitzaizkiola interesatzen politika eta gizartearen garapenak. Baina azken hauteskundeetan bai espabilatu direla.

Eta gazteriak oraingotan abertzale eta ezkerre botatu du. Abertzaletasuna gorantz joan da botoen %70era heldu arte. Badakigu konstituzionalista batzuk etxean gelditu direla hauteskunde orokorretara arte, baina ez dira horrenbeste.

Independentzia haizeak gehitu dira Europako herrialde askotan azken urteotan eta Catalunya begiratu besterik ez dago.

Catalunyan independentistak asko gehitu dira, batez ere ikusi dutenean Autonomia Estatutua gutxitu eta mugatu egin nahi dutela Madriletik. Katalanek ikusi dute galdu egiten dutela Espainiaren barruan egonda: merkatu espainola txikia da eta, gainera, sarritan boikota egiten diotela, ez diotela uzten Madriletik enpresa espainolik erosten, ez dutela aireportu internazionalik, tren azkarrez ezin dutela hurbildu Europa, zerbitzu publikoek ez dutela funtzionatzen eta zergen diru gehiena ez dela itzultzen Catalunya. Gaur egun txanpona ez da espainola, Espainiako merkatuak ez digu balio gure produktuak saltzeko eta Europa osora eta mundura banatu behar ditugu. Zertarako, bada, Espainiaren dependenzian jarraitu, onurarik ez baldin badugu lortzen?

Gure gazteak ere honetaz guztiaz konturatu egin dira eta aldaketa soziala nahi dute, eta bere bozka eman dute. Eta nik uste dut aldaketa sozial hau gelditzera datorrela eta ez dela egun gutxiko olatua. Baina erronka handi baten aurrean aurkitzen gara gazteen eskaera berriei bidea eman behar diegulako. Ez da bakarrik langabezia konpondu, aldaketa kulturei erantzuna eman, gizarte hobea garatu. Parte hartzeko bide berriak zabaltu eta bermatu behar ditugu eta gazteei aukera eman behar diegu beraian bide propioa egiten.

"Katalanek ikusi dute galdu egiten dutela Espainiaren barruan egonda"

USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | 'iarantzabal@goiena.com'

Lanerako ordua

Arriaga plazan jarrita izan nintzen entzule Bilbon. Merituri kendu barik (mugitzea beti da on...), interesgarriago deritzot politikaren harantz-honantzari.

Gustatzen zaizkit hiriburuan motorrean mugitzen den alkateak eman dituen elkarrizketak. Usain ona du. Hori bai, hiztegitik kenaraziko nieke kolore guztietako politikariei "parte-hartze", "demokrazia"... hitz potolo eta gastatuak eta benetan aplikarazi. Interesez jarraitzen ditut EAJko maisuak ere (maistra gutxi). Politika egiten badakite. Orain, hala ere, hitzetatik jardunera pasatzeko ordua da, lan sasoi handi zein txikiendako. Eta ez dakit ez ote dauden hurrengo hauteskudeei begira...

KALE INKESTA

Arrasate erabiltzeko dio Euskaltzaindiak. Zer deritzozu?



JOSE MARIA
ALTZELAI
ARRASATE

"Niri ez dit arazorik sortuko Euskaltzaindiaren erabakiak. Beti erabili dut Arrasate, eta aurrerantzean ere Arrasate erabiliko dut".



AMANDA GONZALEZ
DE SOUZA
ARRASATE

"Egia esan ez dit gehiegi inporta; ez zait garrantziko kontua iruditzen. Beti erabili izan du Mondragon eta horrela jarraituko dut".



JUAN
ERRASTI
ARETXABALETA

"Lehen Mondragon esaten nuen, orain berriz, Arrasate. Onartzen dut Euskaltzaindiaren erabakia, baina kontu honek ez nau kezkatzen".



MARIA ANGELES
DUQUE
ARRASATE

"Bi modutara erabiltzen dut. Hemengoak direnekin Arrasate erabiltzen dut, eta kanpotarrekin Mondragon".

HANDIK ETA HEMENDIK

Ekonomiaren kalantzeak

Mikel Garcia
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Merkatu librean oinarritutako ekonomia ez da aurrera atera demokrazia eta askatasun giroan, herritarrek hala eskatu eta bultzatuta, baizik shock, krisi, larrialdi, hondamendi, gerra... garaiak aprobetxatuz eta, hainbatetan, inposatuta. Aski da etsai bat asmatzea, mamua, edo jendearen noraeza baliatzea, *zas!* eredu ekonomiko liberal bortitza ezartzeko. Hori da gure zinemetara iritsi berri den *The Shock Doctrine* dokumentalaren ardatza, Naomi Klein ekonomialariaren liburuan oinarritua.

Abiapuntua 1976ko Ekonomia Nobela jaso zuen Milton Friedman estatubatuarren talka ekonomikoaren terapia da, merkatuaren erabateko askatasunean errota.

Eredu ekonomiko hori Pinochet Txilen, diktadura garaiko Argentinan, Malvinetako gerraren osteko Ingalaterran... nola ezarri zen aztertzen du filmak,

beldurrean oinarritutako ekonomiara iritsi arte, irailaren 11z gerotik.

Irak izan da inoizko gerrarik pribatizatuena, mundu osoan gertatzen ari denaren adierazle: dena da pribatizagarri, eta ondorioak latzak direla erakutsi du historiak: langabezia, pobrezia, oinarrituko zerbitzuen gainbehera...

Simplifikatzea egotzi ahal zaio liburu-dokumentalari, historiako erabaki eta urratsen atzean faktore ugari eragiten dutelako, baina dokumentu interesgarria da azken 30 urteotan nagusitu den kapitalismo basatiaren ibilbidea, lardakeria eta azpikeria politikoa berresteko.

Gainera, eskertzekoa da Michael Winterbottom zuzendari britainiar handiaren ukitu serio eta zuhurra, Michael Moore-n moduko estilo teatraletik urrun.

Pelikula amaieran, esperantzarako eta kalera irteteko deia: shockarekiko ikaragaitz bihurtzen ari omen gara.

Izango al da azken krisi hau, eskarga berri baterako baino, eredu honetatik ateratzeko bidea?

Txanpona

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Céline idazlearen nazismoak eztabaidan jarri gintuen. Bazen estetika eta etika txanpona bakar baten bi aldeak direla esaten zuenik, bazen biak autonomoak direla defendatzen zuenik ere, baina jarrera nagusia zen etika guztiz arbuatzen duen estetika batek ere beti jariatzen duela izaera etikoren bat. Hartan, lagunetako batek, *Nulla estetica sine etica* latinkada bota zuen (estetikarik ez dago etikarik gabe). Segidan, frankismo garaiko gertakari bat ekarri zigun gogora: 1965ean Erregimenak Tierno Galván, López Aranguren eta García Calvo irakasleak bota zituen Madrileko unibertsitatetik. José María Valverde etikako irakaslea zen Bartzelonakoan, eta elkartasunezko telegrama bat bidali zien zigortuei: *Nulla estetica sine etica, ergo apaga y vámonos!* (estetikarik ez dago etikarik gabe, ergo, aio eta goazen hemendik!).

Dimititu eta Ameriketara joan zen Valverde, etikaren eta etikaren txanpona patrikan hartuta...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Miren Arregi
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Badakizulako plater bakoitzaren osagarririk onena dela. Pazientzia zure bizitzaren filosofia bihurtzen ikasi duzulako, Kibucen aurkituko dituzu zure estiloari modurik egokienean egokitzen zaizkion proposamenak, presarik gabe goza ditzazun zureekin. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU zara pazientezia



KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta
eraberritze
integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Martin Arriolabengoa | Hirigintza, Euskara eta Hezkuntza zinegotzia (2007-2011)

- ▶ Lau agintalditan egon da; hirutan ordezeko moduan
- ▶ Azken agintaldia "lanerako gogorrena" izan da
- ▶ Udalaren antolamendua asko hobetu da, haren ustez

"Agintaldi guztietan egoera politikoak baldintzatu du jarduna, baina gure arteko harremana ona izan da"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udaletxean hartu gaitu Martin Arriolabengoa (Aramaio, 1954), baina harendako amaitu dira zinegotzi lanak. Udalbatza berriari lekukoa pasatzeko lanetan dabilela aitortu digu. Azkenaz eta udaletxean izan zen aurreko hiru agintaldiez -1983-1987, 1987-1991 eta 1995-1999- egin dugu berba Arriolabengoarekin.

Azken agintaldian, Hirigintza, Euskara eta Hezkuntza arloetako arduradun politikoak izan zara, baina aurrez beste hirutan egondakoa zara. Askok aldatu dira gauzak?

Egoera politikoak baldintzatu izan du agintaldia, bizi zen egoeraren arabera agintaldiak oso ezberdinak izan dira. Udalaren antolamendua ere asko aldatu da. Udal langile gehiago daude orain; lehen, idazkaria, administrari bat... askoz gehiago ez.

Orain, berriz, arlo bakoitzeko teknikaria edo dinamizatzailea dugu, esaterako. Hau da, udaletxean jende gehiago dago lanean, eta asko igartzen da. Noski, horretarako diru gehiago behar da eta lehen ez zegoen horrenbeste diru. Laguntza gehiago jasotzen dugu eta aurrekontua handiagoa da.

Horrek lehen asetzen ez ziren hainbat behar asetzea ekarri du. Prozesu hori apurka-apurka gertatu da eta nabarmen hobetu da.

Bestalde, agintaldi guztietan egoera politikoak asko baldintzatu izan du jarduna, baina zinegotzien arteko harremana ona izan da.

Zeintzuk izan dira bizi izan dituzun egoera gogorrenak?

Gogoan dut, esaterako, su-etenen amaierak egoera zailak eragin izan dituztela. Tentsio politikoak ari naiz. Izan ere, zinegotzien arteko harremanak onak izan dira, oro har.

Nola deskribatuko zenuke azken agintaldia?

Lanerako urte gogorrenak izan dira. Gai asko izan ditugu mahai gainean. Hirigintza arloan, esaterako, Plan Orokorrak lan handia ekarri digu. Aurreko Udal Gobernuaren zirriborroa ez genuen

onartu nahi, irizpideak ez zetozen gure pentsaerarekin bat. Zirriborro hura berregin eta batez ere jendearen parte-hartzea bultzatzeko programa aurrera eramatea lan handia izan zen: auzoz auzo ibili ginen iritzi ezberdinak jasotzen. Herritarren ekimenez, Aholku Batzordea sortu zen; ondo egin ziren gauzak. Parte-hartzea sustatzea gure zutabeetako bat izan da. Kostatu zaigu, baina lortu egin dugula esango nuke; Plan Orokorra, adibidez, badoa aurrera.

Zer esan diezagukezu iraganeko lorpenez?

Ardura politikoa izan nuen lehen arloa Euskara eta Hezkuntza izan zen. Akordatzan naiz lorpen batzuk egin zirela; bertso eskolaren sorre-



Martin Arriolabengoa, biribilgunean, eguen arratsaldean. | JOKIN BEREZIARTUA

ra, esaterako. Oker ez banago, 1998an sortu zen. Txirritola euskara elkarte ere lehentxeago sortu zen.

Udalbatza berriari zein aholku emanago zenioke?

Etorriko diren arazoak lasai har ditzala. Eta, batez ere, jendearekin kontu dezala. Edozein gauza egi-

teko herritarren iritzia kontuan hartzea garrantzitsua da, gerora lanak errazten ditu. Epe motzera lana eskatzen du, baina epe luze-ara merezi du. Egin beharreko lana da.

Udaletxean egindako urte guztien ostean zein lorpen nabarmenduko zenituzke?

Harro nago, adibidez, Sastiñari eman diogun bultzadaz. Kultura erreferente da eta bide horretan jarraitu behar du.

Horrez gain, beste bi proiektu ere ezin dira aipatu gabe utzi: Aramaio Baserri Barri eta Biomasaaren proiektua. Aramaio lehen sektorea bultzatzeko ezinbesteko tresnak dira.

Bi proiektu horiei hasierako bultzada eman zaie, baina datozen urteetan jarraipena eman behar zaie. Badirudi, gainera, Udal Gobernu berriak jarraipena emateko asmoa duela.

"Parte-hartzea sustatu gura izan dugu; lortu dugula esango nuke"

"Gogoan dut su-etenen amaierak tentsio politikoak eragiten zutela"



Arriolabengoa, azken agintaldian ondoan izan duen udal taldearekin. | J.B.

GAURKOTASUNA

GOIENA TELEBISTA | TERTULIA | GAURKOTASUN KONTUAK HIZPIDE
EKAINAK 23, 20:45 | MONIKA BELASTEGIK AURKEZTUA

BABESLEA: LILURA EDERTZE INSTITUTUA



HERRIAK



Arrasaten aitzindari izan zen Zaldibarko jolasparkea. | IMANOL GALLEGO

ARRASATE

Adin tarte guztietara egokitutako jolasparkeak

Zaldibarkoa izan zen aitzindaria, eta ondoren, herriko jolasparke asko ildo beretik egokitu dituzte

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Zaldibarrek ekin zion jolasparkeen iraultzari. 1995ean hura izan zen Arrasateko lehen jolasparke modernoa. Lehenengoz, kautxuzko zoru baten gainean jolasten ikasi genuen arrasatearrok. Zaldibar egin arte, zoruak ez zuen garrantzi handirik, normalean asfalto gainean jolasten zen eta zenbait urratuz gain, ez zen ezer gertatzen.

Ordutik hona, zenbait jolasparke eraiki dituzte herrian, Zaldibarkoa eredutzat hartuta. Elena Letek, Udaleko Zerbitzu eta Man-

tentze arloko arduradunak, esan digunez, "horrelako instalazioak asko erabiltzen dira". Eta, egia esan, arratsaldero ikusten ditugu

haurrak kulunka eta txirristetan gora eta behera. Askotan gertatzen den moduan, zenbaitek, jolaserako baino gehiago, astoarena egi-

Erretiratuek ere parkeak dituzte

Horiek, baina, ez dira jolaserako; horietan, erretiratuek kirola egiteko aukera izaten dute. Oraingoz, Udalak pare bat eraiki dituen arren, erretiratuak ez dira askorik animatzen.


Lotsa eta ezjankintasuna dira erretiratuen parkeak horren hutsik egoteko arrazoi nagusiak. Askok ez dute ekimena ezagutzen eta ez dituzte erabiltzen.

teko ere erabiltzen dituzte eta Udalak berritze lan ugari egin behar izaten ditu; aurtten, Udalak 10.000 euroko partida erabiliko du horretarako. Hala eta guztiz ere, Arrasateko jolasparkeak oso egoera onean daude; Aurtten, gainera, herriak bi parke estreinatu ditu: Aprendices kalean jolas eremu handi bat egin dute eta Euskal Herria plazan, lehen aldiz, kautxua paretetan ere jarri diote jolasparke berriari.

Material berritzaileak

Segurtasuna bermatzeko eta ahalik eta mantentze-lan gutxien egiteko, jolasparkeetako materialak asko aldatu dira. Duela 20 urte, metala eta egurra ziren nagusi; gaur egun, berriz, plastikoa eta kautxua dira material erabiliak.

Material berriak, ordea, ez dira merkeak eta mota horretako parkeek gutxienez 30.000 euroko kostua izan ohi dute. Instalazio horiek duten kostua dela-eta, Arrasateko Udalak, oraingoz, ez du parke berririk eraikiko.



OLATZ LAZKANO

"Umeen aisialdirako primerako tokiak dira. Haurrek oso ongi pasatzen dute eta orokorrean oso toki seguruak dira. Dena den, Aprendices kaleko jolasparke berriari gerizpea falta zaiola uste dut; horregatik, gehienetan, Zaldibarrera etortzen gara".



ARITZ CORTES ETA MIKEL ETXEGIA

"Jolasparkeek ongi pasatzeko aukera asko ematen dizkigute. Guk saskibaloia gustuko dugu eta parke berri honek saskibaloian egiteko aukera ematen digu. Askotan, arratsalde osoa hemen ematen dugu".



EZEKIEL FERNANDEZ

"Oso ongi daude. Ni Aprendices kalean bizi naiz eta umek eskola bukatu bezain laster hona etortzen gara. Biek oso ondo pasatzen dute eta, gainera, eskola berekoak ez diren beste haur batzuekin erlazionatzen dira".



Aprendices kalean dagoen jolasparkea. | IMANOL GALLEGO



Euskal Herria plazan zabaldu berri duten jolasparkea. | IMANOL GALLEGO



Jenerala eta zaldi gaineko banderadunak. | I.G.



Sukaldaria oilasko eta guzti. | I.G.



San Juan abestiaren ostean, txapelak zerura. | JOSETXO ARANTZABAL



Zuzendaria bere danbor-joleei aginduak ematen. | I.G.



Arrasate Musikaleko saxofonistak. | J.A.

ARRASATE

Haurren danbor hotsek iratzarri dute dragoia eta piztu dute garra

San Juan jaien atarian, SUDCek antolatzen duen haurren danborrada egin zuten zapatuan eta 240 hurrek gogor astindu zituzten danborrak

IRAT GOITIA | ARRASATE

Nolatan ez da ba dragoia iratzarriko? 240 haur inguruk izugarritzko hotsa atera zuten zapatu arratsaldean, izan ere, haurren danborrada egin zuten. Umeez indartsu astindu zituzten makilak. Etxeko gaztetxoek Arrasate Musikaleko bandaren laguntza izan zuten.

Urteroko ibilbidea egin zuen haur danborradak: Nafarroako etorbideetik irten zen eta Garibai-

tik pasa ostean, Maala kaletik gora Herriko Plazan amaitu zen. Zaldi gainean zihoazen banderadunek irekitzen zuten bidea eta atzetik zihoazen danborra eta kupela jotzen zutenak, ipurdiak astinduz zihoazen kantinera, sukaldaria eta baita karroza ere. Haur guztiak pozik zebiltzan jantzi dotore-dotoreak soinean zituztela, nor bere jardunean.

Behin plazara iritsi zirenean zoramena. Debako martxarekin

jira eta bira ibili ziren eta San Juan abestia jotzean, ikurrina eta Arrasateko bandera hagan gora igo eta txapelak zerura.

Jende mordo

Guraso eta beste herritar mordo zegoen ibilbide osoan zehar danborrada noiz pasatuko zain. Argazki eta bideo kamera eskuan hartuta ikusi genituen asko, euren biloba, seme-alaba edo ezagunei argazkia ateratzeko prest.

LIA GARAI
ZALDI GAINEKO KANTINERA

"Ez diot zaldiari beldurrik, izan ere, egin ditugu bi paseotxo zaldi gainean aurretik entsegu bezala. Oraingoz behintzat oso gustura nago zaldi gainean eta pozik daramat ikurrina."

EIDER LA SANTA
DANBOR-JOLEA

"Gustura noa danborra jotzen. Ez da nire lehen urtea, dagoeneko hirugarrena dut. Aurretik barrila jotzen eta karrozan irtena naiz. Horregatik aurten errazago jotzen ditut abestiak, badakizkit-eta."

MANEX BAKERO
SUKALDARIA

"Hildako oilasko bat daramat koilara handi honetan. Gero nik neuk prestatu behar dut, dagoeneko jantzita dut traje zuria eta erreza ere badakit gutxi gorabehera."

UXUE EZPELETA
ZUZENDARIA

"Zuzendari lanetan gustura nabil. Danbor jotzaileak zintzoak dira eta ongi betetzen dituzte nire aginduak. Ez nago urduri, aurretik ere irten izan dut zuzendari bezala, eta, beraz, ikasita nator."



JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

11 urteko bizia ospatzeko: bazkari eta jai

Begarako gaztetxeak 11 urte betetzen dituela-eta, egitarau zabala prestatu dute eta zapatuan, adibidez, egun osoko programa izan zuten. Trikipoteoarekin ekin zioten egunari. Gaztetxetik irten eta herriko tabernatan zehar ibili ziren gazteak. Eneritz Zabaleta eta Unai Gaztelumendi bertsolarien konpainian egin zuten poteoa. Ondoren, bazkaria izan zuten gaztetxean, 70 lagun inguru elkartu ziren. Egunari amaiera emateko kontzertuak izan zituzten Fight to Life, AND eta Ziggy and Koustic taldeen eskutik. Jende ugari bildu zen emanaldietan.



ARRASATE

JOSETXO ARANTZABAL

400 haur izerditu arte dantzan

Haur dantzarien eguna ospatu zuten atzo Arrasaten eta 400 ume inguru ibili ziren dantzan egun guztian zehar txistu doinuei jarraiki. Goizean, herriko kaleetan barrera ibili ziren, toki guztiak alaituz. Arratsaldean, ostera, plazan egin zuten erakustaldia 10 talde ezberdinetatik etorritako dantzariak.

ELGETA

Herriko plazan gisatu usain ederra zegoen zapatu goizean

Lehiaketa, bazkaria eta dantzaldia Elgetako III. Koadrilen Eguna ospatzeko



Gisatu lehiaketako irabazleak: erretiratuen elkarteak. | JOSETXO ARANTZABAL



Partehartzaileek prestatutako gisatua dastatzen herri bazkarian. | J.A.



Arrabots taldearekin gustura dantzan. | IBAN ARANTZABAL

IRATI GOITIA | ELGETA

Elgetako plazara urreratu bezain pronto, gisatu usain ederra har zitekeen, zapatu goizean. Izan ere, Koadrila Egunaren baitan, II. gisatu lehiaketa egin zuten. Guztira zortzi taldek hartu zuten parte. Zita goizeko 10:30ean zen, orduan jarri zituzten sutan lapiko eta zartaginak koadrilek. Txapelketak ez zuen baldintzarik eta norberak eraman zituen osagaiak etxetik: okela, patatak, kipula...

Behin dena prest izandakoan, Patxi Basaurik, Xabat Leanizbarriak eta Manu Sarasuak osatutako epaimahaiak kazuela guztiak dastatu zituen eta gisatu goxoena erretiratuen elkarteok prestatu zutela erabaki zuen. Irabazleendako saria presio-eltzea eta 90 euro izan ziren. Bigarren postuarekin konformatu behar izan zen Ramon eta Iñigok osatutako taldea, eurendako saria 50 euro izan ziren. *Gu geu* taldeak, hirugarren sailkatuta, 25 euro jaso zituen. Azkenengo gelditu zen taldea *Olla express barik 2* izan zen eta eurendako ere izan zen saria: sukaldatzeko tresnak.

Sari-banaketa egin ostean, herriko plazan bertan, bazkaria egin zuten. 100 lagun inguru elkartu ziren partehartzaileek eginiko gisatuak jateko. Lapiko guztietako gisatuak dastatu zituzten, onak zeuden seinale.

Arrabotsekin dantzaldia

Behin tripa ondo beteta, gorputza mugitzeko aukera bikaina izan zen Arrabots taldearekin. Era guztietako doinu tradizionalak jo zituzten eta jendea gustura ibili zen bikoteka edo soltean dantzan.



Haurrak pozik Ferroia, Mari, Basajauna eta Lamina erraldoekin. | J. ARANTZABAL

ARRASATE

Harrera ona egin diete arrasatearrek Ferroia, Mari, Lamina eta Basajaunari

I.G. | ARRASATE

Jira eta bira ibili ziren zapatu goizean Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsako kideak. Izan ere, urtero legez, kaleko entsegua egin zuten, entrenamendu gisara.

Entseguak izan zuen, berezitasunik, erraldoi berriak aurkezteko aprobetxatu baitzuten: Ferroia, Mari, Basajauna eta Lamina. Herriarrek harrera ona egin zieten konpartsako kide berriei. Horrelaxe adierazi zigun Joxerra Perez taldekideak: "Umeez gustura hartu dituzte eta hori ez da txarra".

Egun osoko egitaraua

Erraldoi berrien aurkezpenaz gain, beste hainbat ekintza izan ziren. Egunari goizeko 11:00etan ekin zioten, Saiolango eraikinetik kalejiran irtenda Seber Altuberaino. Han txistorra, edaria eta konpartsako materiala saltzeko karpa jarri zuten. Erraldoien bi saio ere izan ziren: erraldoi txikiena eta erraldoi berriena. Ondoren, bazkaria eta arratsaldean saiheski pintxoak eta garagardoa jarri zuten salgai. Zapatuan Motorrak ondo berotuta, jira eta bira gehiago San Juanetan.

Koldo Eleizalde lehiaketako sarituak

Zapatuan banatu zituzten Koldo Eleizalde lehiaketetako sariak Bergarako Udal Pilotalekuan, eta harmailak guraso eta haurrez bete ziren sarituei merezitako txaloak eskaintzeko. Ia 500 lan aurkeztu dira aurtengoan, sei genero ezberdinetan. Sarietan bertan, izan zen aukera lan batzuk entzun eta ikusteko, adibidez: txisteak, bertsoak eta antzerkiak. Horietaz gain, ikastetxeek prestatutako zenbait emankizun ere izan ziren.





Arrasate pasealekuan egongo da egoitza berria: "Erdialdetik gertu dago, leku aproposean", dio Bengoak. | JOKIN BEREZIARTUA

HHIren egoitza berria, datorren urterako gertu

Zentro berriko lanei "azken ukituak" falta zaizkie; irailean martxan egongo da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentro berria –Arrasaten EPA moduan da ezagunagoa– gertu egongo da datorren ikasturtean. Miren Bengoa zuzendariak irailan martxan egotea espero du: "Egoitza berriaren obrak amaitzeaz daude, azken ukituak bakarrik falta zaizkie. Ekainaren 23an egoitza zaharretik ekipamendua eramaten hasiko gara, hau da, egun horretan hasiko gara lekualdaketarekin". Ekipamendu berria, noski, beharrezkoa izango da: "Eskaera eginda daukagu. Hezkuntza Sailetik hasi dira mahaiak eta bestelako materiala bidaltzen; aurrerago zerbait falta bada, erosi egin beharko dugu", azaldu du Bengoak. Eskola berria ondo antolatzea gura dute. Zentro berriaren egoteko aukera izan dute

eta gustura daude: "Aurrekoan ikustera joan ginen eta inpresio oso onarekin ateratu ginen. Kanpotik iluna izan behar dela dirudien arren, hormak beharrez kristala dago hainbat aldetan eta leku oso argitsua eta alai izan behar dela uste dugu".

Egoitza barruko antolamendua nolakoa izango den ere kontatu digu zuzendariak: "Zazpi ikasge-

la, informatika gela bat, oso polita izango den liburutegia, zuzendaritza gela bat, irakasle gela handia –orain arte sartu ezinik ibili gara eta– eta itxaron gela bat izango ditu, besteak beste". Arrasate pasealekuan dago: "Erdialdetik gertu dago, oso leku aproposean", uste du Bengoak.

400dik gora ikasle

Egun HHIk 400dik gora ikasle ditu eta Ferrerías kaleko egoitza txiki geratu zitzaizen aspaldi. Hala, zentro berriak euren beharrak asetuko dituztelakoan daude: "Oso pozik gaude Udaletik aukera hau eman digutelako eta espero dugu arrasatear guztiondako kultura eta formazio gune bat izatea". Azkenik, iraileko inaugurazio ekitaldira arrasatear oro gonbidatu gura izan du Bengoak.

ESANAK

"Inpresio oso onarekin ateratu ginen, leku alai eta argitsua da"

MIREN BENGOA | ZUZENDARIA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots bihar Monterronen (18:30)

J.B. | ARRASATE

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Ongi etorri, Pupu eta Lore* ikuskizuna aurkeztuko dute bihar Arrasaten, Monterron parkean. Arrakasta bermatuta duten pailazoen haur *tsunamia* eragingo dute, Pupu eta Lore seme-alabak eta irrien klubeko familia osoa aurkezteko.

Azken urteotan haurren egunean, hots, ekainaren 25ean, etorri izan dira Euskal Herriko pailazo ezagunenak gurera. Oraingoan, baina, Mertxe Rodríguez Marimototsek iragarri duenez, egun horretan ezin zuten Arrasatera etorri: "Taldean Tolosako eta Lasarteko jende asko dugu, eta, beraz, sanjuanetan eta sanpedrotan egun bat libratzea erabaki genuen. Ekainaren 25a, hain zuzen". Udaleko Kultura Sailak, ekainaren 25ean

egin ezin zenez, beste data bat aukeratu beharra ikusi zuen.

"Etxean sentitzen gara"

Rodríguezek, bestalde, Monterron parkea oso gustuko dutela dio: "Lekua oso ondo dago eta aurreko urteetan etxean moduan sentitu izan gara". Ikuskizunak ordu eta erdi irauten du, asko jota, baina beste horrenbeste egingo dute muxuak eta irriak banatzen. Aurten, gainera, irrien klubeko beste pertsonaiak ere aurkeztuko dituzte, lehenengoz, Arrasaten: Tiritatxo, Largabista, Marikalanbre eta Martinbertso.

Ikuskizun berria prestatzen dabiltzala jakinarazi digu Pirritx eta Porrotxen lagunak: "Gidoiarekin ari gara lanean, oraindik itxaron egin beharko dugu".



Argazkioinaxxxx. | ARGAZKILARIAXXX

TXALOAK ETA TXISTUAK

Aramaio ibaia bitsarekin, eta ez ei da lehen aldia

↓ Herritar batek jakinarazi zuenez, egun goizean Aramaio ibaia bitsez josita zetorren Munar auzoaren inguruan: "Ez da lehen aldia, hiru edo lau aldiz ikusi dut horrela jaisten", zioen herritarrak. Udaltzaingoak, berriz, ez du gertakariaren berri izan; ez, behintzat, zona horretan.



JOKIN BEREZIARTUA

Foru Aldundiak egoera txarrean zeuden bi umeren ardura hartu du

Osasun egoera txarrean zeuden errumaniar jatorriko bi umeren ardura hartu du Aldundiak

J.B. | ARRASATE

Egun gauean errumaniar jatorriko familia bateko hainbat kide Polmetasako pabiloian sartu ziren eta bertan zegoen beste familia batekin hasi ziren liskarretan. Udaltzaingoa eta Ertzaintza bertaratu ziren eta errumaniar jatorriko familia Nafarroa Etorbidetara aterpetxera eroan zuten.

Ohartu ziren, familia horretan bazirela 3 urteko eta urte eta erdiko bi neska mutiko egoera txarrean, bai elikadurari, garbitasunari eta osasunari dagokionez. Egubakoitzean etorri ziren Aldundikoak umeen bila fiskalaren agindu batekin eta Donostiara eroan zituzten. Liskarrak eta tentsio uneak bizi izan ziren.

AUKEA: "Aforoa da arazo nagusia bi igerilekuak aldi berean ez zabaltzeko"

Zapatua ezkerro zabalik daude kanpoko igerilekuak; uztaileko eskaintza zabala prestatu dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ofizialki bihar sartuko gara udan. Baina, urtero moduan, AUKEA egutegi ofizialari aurreratu zaio eta zapatua ezkerro zabalik daude kanpoko igerilekuak. Kanpokoak zabaltzeko barrukoak ixtea suposatzen du eta herritar askok galdetzen dute ea zergatik ezin diren biak aldi berean zabalik egon. Aurten, gainera, barruko igerilekuak obretan izan direnez, hainbat erabiltzaile haserre daude.

Eli Roncero udal teknikariak azaldu du biak aldi berean zabaltzeko lanean dabiltzala: "Gure nahia da biak aldi berean zabalik izatea, badakigu eskaerak daukela -eta banan-banan joan gara erantzuten- eta eguraldia ez dela beti ona. Tamalez, aforo arazoak

direla-eta saneamenduko baimena eskuratzetik izan ez dugulako, ezin dugu gure nahia bete. Arazo nagusia da, baina, leku eta aldagela nahikorik ez dugula horrenbeste erabiltzaile jasotzeko". Horretan lanean dihardutela azaldu du Roncero: "Aurten ezingo da izan, baina lanean gabiltza datorren urtean zabaldu ahal izateko".

Kioskoak arduradunik ez

Erabiltzaileek barruko igerilekuak irekitzeko gogoaz bazutela dio Roncero: "Uda garaian hasi ziren baina hainbat arrazoirengatik luzatu egin dira lanak. Horregatik jendeak gogotsu hartu du irekiera. Haurrekin egin diren ikastaroak, esaterako, oso ondo



Kanpoko igerilekuak zapatuan ireki ziren eta beraz, barrukoak itxita egongo dira irailera arte. | JOKIN BEREZIARTUA

joan dira". Arazoak arazo, udako kanpaina hasi da. Goizetan sorosle bat egongo da eta arratsaldetan, berriz, bi sorosle, eta baita DYAKo laguntzailea ere: "Sorosle izateaz gain, askotan zaintzaile lanak egin behar izaten dituzte, askori arauak errespetatzea kosta egiten zaie-eta", dio Roncero. Kioskoari dagokionez, ez dute aurkitu

oraindik kioskoa zabaltzeko prest egongo den inor. Ez dute baldintza handirik eskatzen: ekainetik irailera arte gutxi gorabehera egunero zabaltzea. AUKEAk deia luzatu die interesatuei.

Helduendako hainbat ikastaro

Baina udan dena ez da ura, eta uztaileko hainbat ikastaro anto-

latu dituzte helduendako uretatik kanpo. Roncero gimnasia abdominal hipopresiboa eta dantza afrikarrak nabarmendu ditu, berriak direlako. Bi ikastaro horiek hainbat onura dituzte, teknikariaren arabera. Ikastaroak San Juan jaian ostean hasiko dira eta argibide gehiagorako 943 77 16 77 telefonora deitu behar da.

Iñaki Telleria | Sanjuanetako txosna batzordeko kidea

"Azken urteotako etenaren ostean, txosnak indartzeko apustu berezia egin dugu"

Koadrilen bazkarirako txartel gehiago atera dituzte; Uarkapen da, baina 400 lagunendako lekua dago

J.B. | ARRASATE

Iñaki Telleriak (Arrasate, 1989) txosnagunerako gonbita egin die gazteei: "22.000 biztanleko herri baten ez da posible txosna bakarreko txosnagunea izatea", dio. Aurten bi jarriko dira eta modu berezian apainduko dute gunea.

Nobedadeak datoz. Herri bazkaritik bertatik hasita, ezta?

Iaz kexa asko egon ziren eta ez zitzaion arrazoirik falta. Herri bazkari bat Arrasaten ezin daiteke 150 lagunetara mugatu eta horregatik aurten, gaztetxean beharrez, Uarkapen egingo dugu. Hala, kopurua

hirukoiztu egin dugu. 200 atera genituen eta bi ordutan agortu ziren; gehienez 400 txartel aterako ditugu. Espero dugu kanpoan inor ez geratzea. Kamiseta jasotzera ekainaren 22an etorri behar da gaztetxera, 19:00etan.

Txosnagunea indartzeko apustua egin duzue. Zergatik?

Azken lau urteotan txosna bakarra egon da sanjuanetan eta lotsa ematen zuen 22.000 biztanleko herri baten txosna bakarreko txosnagunea egotea.

Aurten, lau urteko esperientziaren ostean, bi txosna jarriko ditugu eta modu berezian apainduko dugu: pankarta, bandera eta bestelakoak erabiliko ditugu. Iaz zelaia eta txosna bakarra zegoen eta jendeak trago bat hartu eta alde egiten zuen. Aurten helburua da jendea erakarri eta

denbora batez bertan egotera gonbidatzea. Planteamendua honakoa da: txosna bana alde bakoitzean eta erdian agertokia. Fisikoki ere aldatuko da eta gazteek igarriko dute. Identitatea eman nahi diogu guneari.

Herriak erantzutea espero dugu, jende gaztea implikatzea. Hala, bai barran txandak egitera eta baita ekintza ezberdinetan parte hartzera gonbidatzen ditugu gazteak. Aurten jendeak erantzun eta ondo irteten bada, hurrengo urtean are gehiago indartuko dugu, hazten joango da.

Bestalde, proba moduan ere planteatzen ditugu aurtengo jaiak. Belaunaldi berriak nola datozen neurtu gura dugu.

Eta egitarauari dagokionez, zer?

Ia egun guztiak datoz indartsu. Bezerak ez du pizgarririk behar,



Telleria aurtengo kartelarekin. | J.B.

eta gainerako egunak asteburua direnez, jende askotxo espero dugu. Nabarmentzeko: street boulder txapelketa eta zapatu gaueko kontzertuak.



JOKIN BEREZIARTUA

Bartzelonara joan aurretik, azken entsegua Aldai parkean

Goikobalu Gaztek Aldai parkea estreinatu zuen joan den eguaztenez; parkea iaz ireki bazen ere, orduan egin zen lehenengoz kultur ekintza bat. Saio bikaina eskaini zuten, denetariko kantuak interpretatuz eta ahots pribilegiatuak dituztela erakutsiz. Emanaldia azken entsegua izan zen Bartzelonako lau egunetako biraren aurretik. Gaur itzuliko dira.

Alkatetzak ez du parte hartuko Salbean, ezta hurrengo mezan ere

Arrasateko Alkatetzak, bere izaera laikoan bermatze aldera, San Juan bezperan ospatuko den Salbean eta San Juan eguneko meza nagusian ez duela parte hartuko erabaki du. Lehenengo urtea izango da aurtengoa alkateak ekitaldi horretan parte hartuko ez duena.

Hala ere, Salbean zein hurrengo eguneko meza nagusiaren ohiturekiko eta bertan parte hartzen duten zinegotzi eta herritarrenganako errespetu osoa adierazten du Inazio Azkarragaurizar alkateak. Bilduko Amaia Larrañagak (EA), esaterako, parte hartuko du ekitaldian.

Dragoi janerako txartelak asteburua ezkerro daude salgai

San Juan egunean, hilak 24, egingo den Dragoi janerako txartelak asteburuan jarri ditu salgai AEDk, ohiko saltokietan: Monte, Kajoi eta Irati tabernetan eta AEDren egoitzan. Prezioa iazko bera izango da: 15 euro AEDko bazkide ez direnendako eta 12 euro AEDko bazkideendako. 21:00etan hasiko dira afariak ematen. Girorik ez dela faltako jakinarazi du AEDk. Afalostean bertsoak, trikiti doinuek eta dantzek bat egingo dute Herriko plazan. Bestalde, txosna batzordeak ekitaldiarekin bat egingo du: 20:00etan "dragoitxoak" das-tatu ahalko dira txosnetan.

San Juan bezpera suaren bueltan dantzari ospatzeko dei egin dute

Herri Mugimendua antolatuta, 22:30ean piztuko dute sua plazan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ohiko bihurtu da San Juan bezperan sua egitea San Martin plazan, eta aurten ere piztuko dute. Herri Mugimendua arduratu da hura antolatzeaz eta herritarrei dei egiten diete pate har dezaten. 22:30ean piztuko dute. Horren aurretik, baina, triki-poteoa egingo dute, 19:30ean, gaztetxetik abiatuta.

San Martin plazan piztuko duten suari dagokionez, urteko gauza txarrak bertara bota eta erretzeko aukera egongo da, eta halaxe egingo dute Herri Mugimenduko kideek. Baina ekitaldia hori baino gehiago izango da: txalaparta eta adar soinuekin emango diote hasiera, ipuina kontatuko dute, 20 bat lagunek sorgin-dantza egingo dute, abestiak entzuteko aukera egongo da, eta baita trikitilariak ere.

San Juan auzoko jaiak

San Juan auzoan ere jaiak ospatuko dituzte egunotan. Eguenean, San Juan bezpera, poker txapelketa jokatu da, 20:00etan. Egubakoitzean, San Juan eguna,



Herritarrek San Juan suaren bueltan iaz San Martin plazan. | HILARIO AZKARGORTA

12:00etan meza egongo da auzoko ermitan eta gero luncha, elkarreko trikitilariak alaituta. 14:00etan, erretiratuek bazkaria egingo dute; 19:00etan, auzo-poteoa trikitilariekin; 21:00etan, herri afa-

ria -izen-ematea da auzoko elkarrean eta Tartufon-; eta 23:30ean, kontzertua egongo da Una Noche Sin Sabina taldearekin.

Zapatuan, hilak 25, 17:00etan, patin jolasak egongo dira eta

19:00etan, berriz, umeendako jolasak Jardunen eskutik. Hitzordu horietarako urbano zerbitzua ere jarri dute; 16:30ean abiatuko da azokako geltokitik. Jaiei amaiera emateko, 17:00etan, disko fes-

ta egongo da Tartufon. Hitzordu horretarako ere urbano zerbitzua abiatuko da, 16:30ean, azokako geltokitik.

Ortu lehiaketa lehenengoz

Auzokoen arteko ortu lehiaketa deitu dute aurten lehenengoz San Juanetan. Auzokideen artean, modu ahalik eta naturalenean landutako baratzerik onena saritzea da asmoa. Izan ere, antolatuzaileen helburua da auzoa kutsatu barik, ahalik eta barazki osasuntsuenak hartzea.

Horrekin guztiarekin, sarietan honako arloak baloratuko dituzte: ongarriketa -ongarri naturalak erabiltzea hobetsiko dute, simaur edo konposta ongarririkimikoen aurrean-; barazki barietatea -momentu horretan barazki mota desberdin eta ugari edukitzea baloratuko da, jasotzeko, zein erein edo landatutakoak izan-; belarren kontrola -baratzean irteten diren belarren kontrolerako herbiziden erabilera ekidin nahi da-; tratamenduak -izurrite edo gaixotasunendako intsektizida/fungizida ahalik eta gutxien eta naturalak erabiltzea baloratuko da-; eta itxura orokorra -baratzeak orokorrean zein itxura duen baloratuko da.

Ortu lehiaketaren irabazleak bizikleta-aitzurra delakoa jasoko du. Tresna bikaina da baratze lanak errazteko: belarren kontrolerako, lurra azalean lantzeko, lerroak betetzeko... Sari-ematea egubakoitzean egingo dute, 12:00etako mezaren ondoren.

San Martzial egunerako mahai eta aulkiak alokatzeko epea zabalik dago

Hilaren 23an itxiko dute epea; kultura etxean har daitezke, arratsaldez

M.B. | BERGARA

San Martzial egunerako mahaiak eta aulkiak alokatzeko epea zabalik dago hilaren 23ra arte, 18:00etatik 21:00etara, kultura etxean.

Mahai bakoitzaren alokairua 20 euro da eta bakoitzeko ezingo dira zortzi aulki baino gehiago eskatu. Era berean, eskatzaile bakoitzak ezingo ditu bost mahai baino gehiago hartu. Bestalde, eskatzaile bakoitzak 100 euroko fidantza jarri beharko du eta egindako eskariarekin batera agiria emango zaio. Agiri horretan alokatutako materiala zein den zehaztuko du.

San Martzialgo erromeria uztailearen 3an, domeka, izango da, eta aurreko egunean, uztailearen 2an, banatuko dituzte udal arduradunek mahai eta aulkiok, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialgo kantina ondoan.

Fidantza itzuliko dute

Uztailearen 3an, erromeriaren ondoren, mahai eta aulkiok entregatu egin beharko dira eta horretarako leku bat jarriko dute udal arduradunek. Hain justu, 19:00etatik 21:30era bitartean esandako leku horretara eroan beharko

dira. Entrega egiten duenari Udaleko zibilua jarriko diote eskaera orrian.

Materiala esandako leku eta orduan eta egoera onean entregatzen ez duenari, berriz, ez zaio Udaleko zibilurik jarriko, eta,

ondorioz, ez du fidantza jasotzeko aukerarik izango.

Fidantza jasotzeko, zigilatutako eskaera orria aurkeztu beharko da kultura etxean, uztailearen 6tik 13ra bitartean, biak barne, 17:00etatik 20:00etara.



Iazko San Martzial erromeria. | JOSETXO ARANTZABAL

Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosuan hilaren 25etik 27ra

M.B. | BERGARA

Elosuan Otaba jaiak ospatuko dituzte hil bukaeran. Ekainaren 25ean hasiko dira jaiak. Hain justu ere, 16:00etan jaurtiko dituzte etxafuegoak eta 16:30ean mus txapelketa egongo da.

Hilaren 26an, Otaba eguna, 11:00etan meza nagusia egongo da auzoko hildakoen alde; 12:00etan pilota partiduak egongo dira eta 17:30ean, berriz, herri kirolak. Hain justu ere, Goenatxo harriz-jasotzaileak eta Larretxea eta Olasagasti aizkolariek erakustaldia egingo dute. Erakustaldia bukatu eta gero, triki-poteoa egongo da Lutxurdio,

Aitziber eta Kantera trikitilariekin.

Otaba Txiki eguna

Eta hilaren 27an Otaba Txiki eguna ospatuko da. 13:00etan auzoko hildakoen aldeko meza egongo da eta 15:00etan, auzo bazkaria.

Arratsaldean jolasak egongo dira ume, gazte eta nagusiendako, 17:30ean. 19:00etan, triki poteoa egingo dute, eta, jaiei amaiera emateko, auzo afaria eta erromeria egongo dira, 21:00etan. Bestalde, egun osoan Laja eta Lutxurdio trikitilariak ibiliko dira auzoan alaitzen.

OHARRAK

ZAHARTZAROA BERBAGAI SAN JOXEPEN

El envejecimiento y recursos personales delako hitzaldia egingo du Beatriz Peredak gaur, astelehena. 17:30ean izango da, elkartearen egoitzan.

BERGARA KIROL ELKARTEAREN BATZARRA

Urteko batzarra egingo dute hilaren 28an, 19:00etan, Miguel Altuna institutuan. Aurten

hauteskundeak egingo dituzte eta hautagaitzak aurkezteko epea irekita dago.

AQUAPARK-ERA IRTEERA GAZTETXOENDAKO

Udalak antolatu du 2000. urte-tik aurrera jaiotakoendako. Uztailearen 6an izango da -06:00etan abiatu eta 22:00etan bueltatu- eta prezioa 18 euro da. Izenematea da ekainaren 20tik 29ra, kultura etxean.

Bainu denboraldia heldu da

- ▶ Bergarako kanpoko igerikekuak eguaztenean zabaldu zituen ateak
- ▶ Debagoieneko bainu denboraldiari eman dio hasiera Bergarako igerilekuak

JAIONE CARPINTERO | BERGARA

Uda garaia heldu dela gogorarazi nahi izan digute Bergarako igerilekuek. Eguaztenean zabaldu zituzten kanpoko igerilekuak eta berdegunea; bada, uda denboraldia hasi da!

Hasiera borobila izan dutela adierazi digute bertako sorosle eta arduradunek. Eguneko lehen orduetan uste ez bazen ere, eguraldiak hobera egin zuen eta horrek mesede handia egin zion aurten go uda denboraldiaren hasierari. Gainera, San Martin eskolako gaztetxoak bertan izan ziren arratsaldeko lehen orduetik. Baina ez ziren bakarrak izan. Jende asko zegoen, igeri egiten edota eguzkia hartzen. Agerian utzi zuten bergararrak irrikan zeudela bainujantzia jantzi eta uretara salto egiteko.

Urtero bezala, aurten ere lehenengo egunetik txirrista handiak erakarri ditu gaztetxo gehienak.



Gaztetxoak, txirrista handitik jaisteko ilara egiten. | MONIKA BELASTEGI

Aldaketak egon dira

Iaztik hona aldaketa batzuk egin dituzte kanpoaldean. Berdegunean zeuden putzu arazoak konpondu egin dituzte; horretarako, ureztargailuak aldatu behar izan dituzte eta belarra berriz erein dute.

Tabernan ere aldaketak egin dira; hala, tabernako bezero direnei bakarrik galarazten diete. Hauda, igerilekura doazenak tabernara sartu ahal izango dira, baina ez alderantziz.

Bestetik, txikienen igerilekuan zegoen elefante itxurako txirrista kendu egin dute, umeentzako arriskutsua baitzen. Izan ere, joan den urteko udako denboraldian umetxo asko irristatu eta jausi ziren.

Azkenik, aurten sarrera berdin ordainduko dute Bergaran errolatuek eta gainerako guztiak: 3 eta 17 urte artekoek 3 euro eta 6 euro adinekoek, egun osoko sarrera.



IRATI ETA LEIRE
9 URTE

"Eskolatik etorri gara eta oso ondo ari gara pasatzen; gainera, eskolan baino askoz hobeto pasatzen ari gara hemen. Txirrista handia da gehien gustatzen zaiguna eta bertatik bota gara hona heldu bezain pronto".



ZIORTZA ETA EIDER
8-9 URTE

"Arratsalde osoa daramagu jolasean eta oso ondo gabiltza pasatzen. Gogo handia genuen kanpoko igerilekura etortzeko. Oporretan askotan etorriko gara igerilekura bertan lagunekin jolastera".



BEÑAT
13 URTE

"Irrikan nengoen lehenengo bainua hartzeko, ia ez naiz uretatik irten arratsalde osoan. Hemendik aurrera lagunekin egunero etorriko naizela uste dut, ahal denean eta eguraldi ona egiten duenean, behintzat, hemen izango gara".



MIRIAN ETA MIREN
8-9 URTE

"Guri gehien gustatzen zaiguna txirrista handia eta txanpinoia da. Gogo handia genuen egun hau heltzeko eta igerilekura etorri ahal izateko. Eguraldi ona egiten du, gainera, eta eskolatik etorri gara; beraz, oso gustura gaude".



NERITZEL ALBISUA
SOROSLEA

"Lehenengo eguna izateko jende ugari etorri da, eta aurten, urtero bezala, jende asko etorriko dela uste dut. Lan handia izango dut, umeek uste baino lan handiagoa ematen baitute, eta arreta osoa eskaini behar zaie".

Diploma banaketa Musika Eskolan eguaztenean

J. C | BERGARA

Aurtengo ikasturteari amaiera ona emateko asmoz, diplomak banatuko dizkie Bergarako Musika Eskolan ikasleei datorren eguaztenean, hilaren 22an, arratsaldeko zazpitan.

Urtero ikasturte amaieran egiten den ekitaldia da hori, eta dagoe-neko ohitura bilakatu da Bergarako Musika Eskolan ikasten duten gaztetxoentzat. Hain zuzen, bi diploma mota banatzen dira ekitaldi horretan: bigarren mailako diplomak, batetik, eta hirugarren mailako diplomak, bestetik.

Aurten egingo den ikasturte amaierako kontzertu horretan,

26 ikasle izango dira bigarren mailako diploma horiek jasoko dituztenak eta hirugarren mailako diplomak, berriz, hiru ikasle bakarrik eskuratuko dituzte.

Kontzertua Zabalotegi aretoan

Eta irakasle eta ikasleen arteko zerbait izan ez dadin, kontzertu bat antolatu dute Bergarako Zabalotegi aretoan, edonork ikusi ahal izango duena. Hala ere, gurasoei dago zuzenduta batez ere, euren seme-alabek ikasturtearen zehar ikasi dutena ikusteko aukera izan dezaten.

Hainbat musikaririk hartuko dute parte, eta akordeoia, oboea, biolina, pianoa, flauta, saxofoia, gitarra, klarineta, tuba eta fagota izango dira ekitaldi horretan entzun ahal izango diren musika instrumentu nagusiak.

Datorren eguaztenean, hilaren 22an, arratsaldeko zazpitan izango du ekitaldi horrek hitzordua, Zabalotegi aretoan.

Kontzertu horretan, ikasleek, diploma hartu ahala, ikasturtean zehar landutako obraren bat joko dute, batzuen kasuan bakarka, beste batzuetan bikoteka. Taldeka joko duen nor edo nor ere izango da.

Kontzertua amaitzerakoan, Bergarako Musika Eskolan lancha eskainiko die diplomak jaso dituzten ikasleei eta haien senitartekoei, Bergarako Musika Eskolako egoitzan.

Gaztetxeko urteurreneko ospakizunak bukatzeaz daude

J. C | BERGARA

Bergarako kartzela zaharrak gaztetxe izateko ateak zabaldu zituenetik, jada hamaika urte bete dira azken egun hauetan. Hori dela eta, ospakizunetaz beterik egon da gaztetxea, baina urteurreneko ospakizunak bukatzeaz daude; izan ere, bihar, martitzena, azken ekitaldiak izango dira.

Urtemugako azken ekitaldiak datozen bi egunotan

Gaur arratsaldean, Angiolillo liburutegiak antolatutako hitzaldia egongo da, *La tertulia de los pueblos* izenekoa,

Jesus Valenciaga hizlariaren eskutik. Arratsaldeko sei eta erdietan hasiko da hitzaldia.

Biharko, hilak 21, bestetik, *Musika zuzenean* webgunearen aurkezpen tertulia antolatu du gaztetxeak; 18:30ean izango da. Tertulia horretan, herriko musikariek hartuko dute parte.

Eta ospakizun guztiak amaitzeko, bihar, iluntzeko bederatzietan, Txapa Irratiak *Sasi guztien azpitik* irratsaioan gaztetxeari buruzko saio berezia eskainiko du. Bertan, gaztetxearen historia, gaur egun bizi duen egoera eta gaztetxe horrek duen etorkizuna aztertuko dituzte.

Hiru urteren ondoren, San Juan sua egingo dute eguenean, Oñatz taldearen ekimenez

Herriko ikastetxeetako gurasoen kontseiluek parte-hartze zuzena izango dute antolakuntzan

MIREIA BIKUNA | OÑATI

San Juan egunaren bezpera indar-berrituta dator. Hiru urteko etenaren ondoren, San Juan sua egingo dute eguenean, hilaren 23an, 22:30ean, Olaiturrin.

Musika eta dantzak izango dira protagonista su-garren inguruan: dantza taldekoek San Juan dantza, desafioa, fandangoa, arin-arina eta aureskua dantzatu dituzte.

Arratsaldean, baina, beste hainbat ekitaldi egongo dira. 19:00etan txorimaloek kalejira egingo dute herriko neska-mutikoen eta txistularien laguntzarekin. 20:00etan musika eskolakoek

eta trikitxarangkak herria girotuko dute. Kalerik kale ibiliko dira euren musikarekin. 22:00etan, Kale Zaharrako plazatxoan, Ona tabernaren parean, erromeria egingo dute.

Ikastetxe bakoitzetik sei kide

Oñatz dantza taldekoen ekimenak herriko ikastetxeen erantzuna jaso du. Hala, eurak izango dira San Juan sua eta haren inguruko ospakizunak antolatzeaz arduratuko direnak. "Ikastetxeetako gurasoekin bildu ginen, eta aspaldiko ohitura berreskuratzeko aukera planteatu genien. Euren erantzuna oso ona izan zen. Eskola bakoitzetik sei kide parte hartuko dute", esan digu Jesus Irizar *Txutxin*-ek.

Udalak jarriko du San Juan sua egiteko azpiegitura.

Jose Antonio Azpiazuren 'Gaixotasun beltz hori' eguaztenean aurkeztuko dute

Kultura etxean egingo dute aurkezpen ekitaldia, 19:00etan


M.B. | OÑATI

Jose Antonio Azpiazuk *Gaixotasun beltz hori. Euskal Herria hondatu zuen izurritea (1597-1600)* delako liburua aurkeztuko du Oñatin, eguaztenean, hilaren 22an, 19:30ean. Kultura etxean egingo duten ekitaldian egilea bera, Gerardo Elortza eta udal ordezkariak egongo dira; besteak beste, Mikel Biain alkatea.

Liburuaren lehen aurkezpena Donostian egin zuten hilaren 8an.

Gaixotasun beltza

Azpiazuren azken liburuan, XVI. mendean Oñatik sufritu zuen izurritearen nondik norakoak kontatzen ditu. "1597ko udako beroekin sartu zen Oñatin izurritea. *Peste bubonica* deitzen zitzaion, baina herriak bere izen berezia jarri zion: *gaixotasun beltza*. Arkakusok ekarrita, lepoan, besapean eta izterondoan arrautza baten neurriko buboi mingarriak agertzen ziren. Sukar ikaragarriak eragiten zituen, eta gehienek ez zuten hirugarren egunetik aurrera egiten. Izurritea oso kutsakorra zen", kontatu digu Azpiazuk.



Jose Antonio Azpiazu, liburuarekin. | GOIENA

ESANAK

"Izurriteak 1.300dik gora herritar akabatu zituen, eta Oñatin 5.000 bizi ziren"

JOSE ANTONIO AZPIAZU | IDAZLEA

Haren eraginez oñatiar asko hil zen. Azpiazuk dituen datuen arabera, 1.300dik gora lagun bi urtean. "Kopurua izugarria da, kontuan hartuta orduan 5.000 bat lagun bizi zirela Oñatin. Datuak fidagarriak dira", esan digu. Izurriteaz gain, krisiak, armadak eta goseteak gogor astindu zuten XVI. mende bukaera Oñatin.

Azpiazuren liburua dagoeneko salgai dago herriko liburutegian.

Irati Abaunzek egin du eskola kiroleko logotipoa

M.B. | OÑATI

Eskola kiroleko logotipoa aukeratzeko lehiaketa deitu zuen Kirol batzordeak, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen artean. Edozein teknika erabiliz logotipo proposamenak egin behar zituzten. Guztira, 27 lan aurkeztu zituzten, eta Elkar Hezi ikastetxeko 3. mailako Irati Abaunzek egindako logotipoa aukeratu dute (beheko irudia).

Epaimahaiaren ustez, "irudi simplea da, koloretsua eta aurkeztutako guztien artean aproposena". Irailean hasiko den ikasturtean erabiliko dute logotipo berria eskola kiroleko jardueretan.



Logotipoa. | ZUBIKOA

OHARRAK

TORREAUZOKO KROSA

Antxintxiketako kirol elkarteak antolatuta uztailearen 3an egingo dute Torreauzoko krosa. Dagoeneko zabalik dute izen-emate epea: www.kirolprobak.com atarian hilaren 30era arte (zortzi euro), Mendizabal kirol-dendan uztailearen 2ra arte (zortzi euro) edo egunean bertan (12 euro). Parte-hartzaileek Torreauzo eta Olate artean 7,5 kilometro egingo dituzte.

BOLIGRAFOAK

Nikaraguako haurrei laguntzeko erabilitako boligrafoak batzen dihardu Ulma Fundazioak. Hilaren 24ra arte batuko dituzte Ulma Taldeko negozioetan eta herriko ikastetxeetan.

IKASTAROA

Langabeendako, merkatariendako eta enpresa txikiendako ikastaroetako izen-emate epea zabalik, 943 03 77 00 telefonon.

PLASTIKO BILKETA

Baserrietan sortutako plastikozko zuria eta beltza batuko dituzte uztailearen 26an. Oñatin lau puntu daude: Zañartun Zuazola inguruan, Murgian Aseztio ermitaren ondoan, ETEO atzealdean eta Olabarrietako autobus geltokia.

Eskola kirolean lortutako emaitzengatik sariak

Ikasturte bukaerako festa egin zuten egubakoitzean eskola kirolean jardun duten neska-mutikoen. Udaberri txapelketako talde onenek eta mendi irteerretako finalistek sariak jaso zituzten, eta eskola kirolean ibili diren neska-mutikoen opari bana.



MIREIA BIKUNA

EGA prestatzeko ikastaroa Udal Euskaltegian

Udal Euskaltegian EGAKo bigarren deialdia prestatzeko ikastaroa egingo dute hilaren 27tik uztailearen 15era arte eta irailaren 1etik 7ra. 80 orduko ikastaroa da -09:00etatik 13:30era- eta interesatuek hilaren 24a baino lehen eman behar dute izena 943 78 24 96 telefonon edo euskaltegia@oinati.net helbidean. Ikastaroan, atariko probak, berridazketa eta sinonimoak, idazmena, irakurmena eta mintzamena landuko dituzte.

Bestalde, bigarren deialdira aurkeztu gura dutenek uztailearen 4tik 15era egin beharko dute izen-ematea, euskaltegiko telefonon edo helbidean.

ARETXABALETA

'Plaza dantza', sua eta tantaia San Juan bezperan

Musika eskolako dantzariak suziriak eskuan dituztela joango dira Durana kaletik plazara, bertan isiotzeko

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

San Juan bezpera ospatuko dute aretxabaletarrek egunean, hilak 23. Arratsaldean hasiko dituzte jai giroko ekitaldiak (18:00), hain zuzen iaz abian jarritako *Plaza Dantza* ekimenarekin. Hala bada, Leizarra musika eskolako ikasleek dantzara gonbidatuko dituzte herritarrek, euri jarraitzeko eskatuta. Eta ondoren buruhandiak aterako dira ume eta gazte-txoek jolas egin dezaten.

Gauerd inguruan tantaia

Gau parteko ekitaldiak dantzaldiarekin hasiko dituzte (21:00): Imuntzo eta Beloki taldea izango da Herriko Plazan. 22:20 inguruan, txistulariak eta dantzariak suziriak eskuan hartuta joango dira Herriko Plazara Durana kaletik bueltan. San Juanetako zortzikoa egingo dute dantzan lehenengo, eta gero plazan gertatutako abar piloari sua emango diote. Bertara botako dute iaz egindako lore-sendorra ere, urte guztia gorde-ta izan ondoren.



Dantzaria San Juan sua isiotzen Herriko Plazan, iaz. | M.A.

Behin sua isiotuta San Juan kantua abestuko dute Aretxabaleta Abesbatzako kideek eta herritarrek, txistu doinuek lagunduta. Eta itzalitakoan dantzaldiarekin jarraituko dute plazan elkartutakoek.

Gauerdia bueltan, ostera, tantaia jasoko dute 1993an jaiotako neska-mutilek. Goizean joango dira haren bila, eta ondo bidean

eguerdi ingururako ekarriko dute, gero prestatze lanak egin eta gauerako gertu izateko.

Hurrengo egunean, San Juan, herriko atarte guztiak iraz beteta agertu izan dira azken urteotan, sasoi bateko ohiturari jarraituz. Herritar batzuen ekimena da, izugarrizko lana eskatzen duena, hortaz, ikusi egin behar aurten egingo duten.

Eguenean da elkarte arteko II. olinpiaden azken proba

Loramendi Elkartek antolatutako Gastronomi Elkarte Arteko II. Olinpiadei bukaera emango diete egunean, hilak 23, eta sariak banatuko dituzte. Azken proba izango da patata tortilla txapelketa.

Pagaldaixena taberna izandako lokalean elkartu (18:45) eta aurretik egindako tortillak utziko dituzte. Epaimahaiko kideek tortillak probatu bitartean txikiteoa egingo dute trikitilariak lagun; eta gero bertara joango dira afaltzera. Txapelketei sariak banatutakoan (22:00) plazara joango dira guztiak, San Juan suaren inguruan abestera.

Musika tailerreko ikasleek antzezlan eskainiko dute bihar

Leizarra musika eskolako 6 eta 7 urteko ikasleek –musika tailerrean dabilzanak– *Pentagrama Enea* antzezlan eskainiko dute bihar, martitzena, Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan (18:00). Martitzen Urkia irakaslearekin egin dute lan, eta senide eta lagunen aurrean erakustaldia egingo gogoz daude.

ESKORIATZA

Eingeikek koadrilen arteko jokoak eta 'playback' txapelketa antolatu ditu San Pedroetarako

Hainbat proba egingo dituzte koadrilek eta azkena Deba ibaiaren jaitsiera izango da

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Lehenengoz antolatu ditu Eingeikek koadrilen arteko jokoak, baina azken urteotan horren gogoz zeudela jakinarazi dute. Hala, orain urte asko ospatzen zen koadrilen eguneko giroa berreskuratzen hasiko dira.

Parrilla jana txosnetan

Ekainaren 30ean, eguna, egingo dituzte jokoak. 16 urte beteta dituztenek har dezakete parte, eta gutxienez 5 lagunek osatutako koadrila behar da. Txosna gunean hasi eta hainbat proba egingo dituzte plaza inguruan gertatutako ibilbide barruan. Eta bukaera Deba ibaian izango du txapelketa: "Materiala emango diegu eta eurek moldatu beharko dute zerbait ibaian behera joateko", dio Joseba Gabi-londo antolatzaileak.

Eta jokoak bukatutakoan afaria egingo dute guztiek txosna gunean. Parrilla jarriko dute bertan norberak eroandakoa gertatzeko.

Hori guztia antolatzeko batzarrak egingo dute domekan, hilak 26, Aldatz tabernan (18:00).

Eta ekainaren 30ean *playback* txapelketa ere egingo dute txosna gunean (01:00). Txapelketa bateko zein besteko irabazleek saria jasoko dute; eta jokoetakoek, gainera, Eskoriatzako I. bandera eskuratuko dute.

Jaien hasiera girotzeko deia

Danborradako presoek eta gazteen batailoiek jaien hasiera girotzera joateko deia egin gura diete herritarrei. Jaiak hasi direla iragartzen duen etxafuegoa botatzen den garaian ez dela izaten "aparteko girorik" uste dute, eta herria jaietan dagoela igarri dadin plazara joateko deia egin diete ume, gazte eta gainerako herritarrei. Guztien artean sortutako giroari esker Sanpedroak indartsu hasiate da asmoa.

San Juan bezperako sua 1994an jaiotakoek isiotuko dute egunean

M.A. | ESKORIATZA

Euskal Herriko herri gehienetan legez Eskoriatzan ere egingo diote ongietorria udako solstizioari eta Kultura Sailak egitarau txukuna gertatu du San Juan bezpera ospatzeko egunean.

Ekitaldiak arratsaldean hasiko dituzte txorimaloaren bila joanda (18:00). Herriko plazan elkartuko dira txorimalo horren bila joateko eta datorren urtera arte gordeko duten lore-sendorra gertatuko dute. Ondoren, buruhandiek irtengo dute (19:00) ume eta gaztetxoek jolasgarri.

Tantaia eta sua

Afalostean San Juan bezperako sua izango da protagonista. Aurretik, baina, tantaia jasoko dute plaza erdian 1994an jaiotako neska-mutilek (22:00). Eguenean zehar joango dira zuhaitz egokiaren bila eta arratsalderako ekarriko dute plaza ingurura.

Behin tantaia jasota suaren txanda izango da (22:30). Neska-mutil horiek, 1994an jaiotakoek, isiotuko dute, gainera. Eta gero, txistu doinuek laguntzarekin erromeria giroa izango da suaren gainetik salto egin eta dantzan jarduteko.



KURTZEBARRI ESKOLA

Lekeitio aldera arraunean egitera

Kurtzebarri eskolako guraso elkarte hainbat kide, umeak eta gurasoak, Lekeitio aldean izan dira. Isuntza arraun taldekoekin batera portu inguruan eta errekan ibilbidetxo bat egin zuten txalupan arraunean; baita ederto pasatu ere. Udazken aldera beste irteera bat antolatzeko asmoa dute: "Ea orduan gehiago animatzen diren".

Hiru egunean 112 lagunek eman dute odola, eta horietatik lauk lehenengoz

M.A. | ARETXABALETA

Udaberriko odol ateratzeak egin dituzte Arabako odol bankuko ordezkariak azken hiru asteotan, eta guztira 112 aretxabaletarrek eman dute odola. Eman nahian joandako lagunak, gainera, 20 gehiago izan dira.

Hona egun bakoitzeko datuak: maiatzaren 30ean, 38 lagunek eman zuten, batek lehenengoz

–46 joan ziren eman nahian–; ekainaren 6an, 41 lagunek, batek lehenengoz –joandakoak 53–; eta ekainaren 13an, 33 lagunek, bik lehenengoz –joandakoak 35.

Aretxabaleto odol emaleen arduradunek osasun etxera hurre-ratutako guztiak eskertu gura dituzte. Hurrengo odol ateratzeak udazkenean egingo dituzte, urri inguruan.

ESKORIATZA

Plastikozko tapoiak jasotzen dabilza Aratzi laguntzeko

Aratz izeneko mutiko eskoriatzarrak dituen beharrei aurre egiteko tapoi bilketa egiten hasi dira –beste herri batzuetan ere egiten dituzte halako ekimenak–. Udaletxean eta Manuel Muñoz kiroldegian jarri dituzte plastikozko tapoiak jasotzeko kaxak eta herritarrei dei egin diete animada daitezela parte hartzera.

Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Joan den egunean ireki zuten erakusketa Sastiñan; hilaren 26ra arte egongo da zabalik. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

"Umore grafikoa egiten duten emakume gutxi daude eta oso ezezagunak dira"

Erakusketa ireki du Les-Vitoria-Gaysteiz taldeak Sastiñan hilaren 26ra arte: 'Komiki emakumeak' da, eta 12 emakumeren obra grafikoa erakusten du

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Aramaioko Udalaren eta Gas-teizko Les-Vitoria-Gaysteiz taldearen eskutik, *Komiki emakumeak* erakusketa ikusgai dago Sastiñan joan den eguna ezker. Erakusketaren irekiera egunean ipuin kontalaria ekarri zuten liburutegira. Begoña Perez askatasun sexualaren aldeko taldeko kideak jakinarazi duenez, asistentzia ona izan zuen ipuin kontalariak: "Haurrak dagoeneko klasera goizez bakarrik doazela jakinda haur eta guraso asko hurbildu ziren, saio bakoitzean 25 bat lagun elkartu ziren".

12 egile, hilaren 26ra arte
Erakusketa interesgarria da. 12 emakumeren obra grafikoa jasotzen du, nor baino nor ezberdina dena: teknikak ezberdinak dira, jatorri ezberdineko komiki

-egileak gehienak, eta batzuek irudia asko zaintzen duten bitartean, besteek mezuari ematen diote garrantzia. Hau da, marrazkiaren kalitatea bigarren plano baten uzten dute, testua lehensiz. Erakusketaren helburua da

ESANAK
"la egunkari guztiek tarte bat dute umore grafikorako. Egileen artean, emakumerik ez"

BEGOÑA PEREZ | LES-VITORIA-GAYSTEIZ TALDEKO KIDEA

emakumeen artean horren arrotza den eremua ezagutzera ematea. Honela dio Perezek: "Umore grafikoa lantzen duten emakume gutxi daude eta oso ezezagunak dira. Adibide bat: ia egunkari guztiek tarte bat uzten diote umore grafikoa. Bada, egileen artean ez dago emakumerik, edo izugarri zaila da bat aurkitzea".

Obra guztiek umorea dute komunean. Kritika tonu ironikoan egiten dute, egile bakoitzak bere erara. Izan ere, Perezek uste duenez, umore grafikorekin mezua helaraztea askoz errazagoa da. Gainera, bisitariak 12 egile horietako baten obra ikusten jarraitu gura badu, Aramaioko liburutegian kontsultatu ahalko du.

Egile euskaldun bakarra dago: Irene Borda, Itxaro Borda idazlearen ahizpa. Gainerako komikiak espainieraz daude.

ELGETA

Ozkarbi elkarteko sukalde itxita egongo da ekainaren 30era arte

Sarrerako ateko sarraila aldatu egingo dute eta bazkideek giltza berria jaso beharko dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Iaz egindako irisgarritasun lanen ondoren, fatxada berri- tzeke lanak egin zituzten Ozkarbi elkarteko eraikinean. Wi-fi gunea librea ere bada, eta orain, ate berriko sarraila aldatzeko puntuan dira. Bazkideek lau egun dituzte giltza berria jasotzeko; ekainaren 21etik 24ra, hain zuzen ere, biak barne. Zuzendaritzako kideak elkartean izango dira giltza berriak banatzen 13:15etik 13:45era eta 16:00etatik 18:00etara.

Giltza horrek hainbat operazio egiteko balioko du. "Botoi itxurakoa da eta sarrerako atea zabaltzeko zein orain arte txartel bidez egiten ziren eragiketak hartutakoak apuntatu, mahaia

erreserbatu...- egiteko erabiliko dugu", eman dute aditzera zuzendaritzatik.

Sukaldea berritzeke lanak
Elkarteko sukaldea, berriz, itxita egongo da gaurtik, astelehena, ekainaren 30era arte. Suak, labeak eta kanpaia berrituko dituzte.

Aste honetan sukaldea bakarrik egongo da itxita, baina hurrengoan, hilaren 27tik 30era garbiketa sakona egingo dute eta elkarte osoa egongo da itxita. Gauzak ondo bidean, bazkideek Ferixa Nagusiko jaietan erabili ahalko dute sukalde berria. Zuzendaritzatik, sortutako eragozpenak barkatzeko eskatu dute.



Ozkarbi elkartea, fatxada berri ostean. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Jatekoa eta sua egunean udari ongietorria egiteko

Uztailaren 2an Dorleta Bibreixon jaialdia egingo dute, tartean Ain_1 eta Malatu taldeak direla

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Udako solstizioari ondo-errotia egingo diote Gatzagan ere egunean, hilak 23, jatekoa eskaini herritarrei eta sua isiotuta.

Arratsalde partean, Gurel guraso elkarteko kideak San Juan bezpera girotzen saiatuko dira: "Ilunkara horrek duen magia sentiarazi gura diegu umei", diote Gurelekoek. Gau parteko ekitaldiak Udalak antolatatu ditu, eta ohitura den legez jatekoa eskainiko dute San Migel plaza inguruan (21:00). Burruntzian erretako saiheksia eta sardinak probatzeko aukera izango da sua isiotu aurretik.

Eta gero San Juan suaren txanda izango da. Haren gainetik salto egin edo inguruan dantzan jardun ahal izango dute herritarrek. Baserri inguruetan ere isiotuko dituzte suak.

Bigarren Dorleta Bibreixon
Behin uda hasita jai giroa sortuko da herrian eta dagoeneko iragarri dituzte hitzordu bi: uztailaren 2an, Dorleta Bibreixon jaialdia eta uztailaren 3an, San Martin eguna.

Orain dela bi urte egin zuten lehenengoz Dorleta Bibreixon eta iaz egin ez arren, aurten berriro antolatzea erabaki dute. Dorleta santutegi inguruan ospatuko dute, eta Debagoieneko bi talderen kontzertuak izango dira: Ain_1 eta Malatu. Bertan afaltzeko asmoa dute, gainera, norberak eroanda eta jazz talde batek girotuko du tarte hori. Eta jaialdia ordu txikiak artean luzatuko da bi disko jartzailereri esker.

Hurrengo egunean, uztailak 3, Goierri auzoko San Martin ermitan izango da ospakizuna.

ANTZUOLA

San Juan bezperako ospakizuna egingo da plazan, su eta guzti

Eratu berria den udalbatzak jasoko du egunean plazan sanjuanetako makala

USOA AGIRRE | ANTZUOLA
Iritsi da udaberriari agur esan eta udari ongietorria egiteko garaia, eta, urteroko ohiturari jarraituz, San Juan bezperako ospakizuna egingo da egunean plazan. 19:30 aldera, txistulariekin batera kalejiran ekarriko dute makala plazara, udalbatza berriko kideek lagunduta. 20:00etan

jasoko dute makala eta dantzak egingo dituzte ondoren Oinarri- nekoek: San Juan zortzikoa egingo dute lehenengo eta soka-dantza ondoren.

Dantzen ostean sua egingo da plazan bertan. Aurreko urteetan moduan, Martin okindegiaren aurrean egingo da eta suaren gainetik salto egiteko aukera

izango dute bertaratzen diren herritar guztiek.

Musika eskolako kontzertua
Musika eskolako ikasleek kurto amaierako kontzertua egingo dute gaur, 18:00etan, Torresoroan. Urtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute herriko gaztetxoek.

Larrain-dantza entseguak
Antzuolako jaietako domeka iluntzean larrain-dantza egingo da plazan eta dantza hori ikasi edo entseatzeko saioak antolatu ditu Oinarriek. Bihar, martitzena, izango da bigarren entsegua, 20:15ean, eskola barruko patioan, terrazapean.

Carrefour

GORBEIA



Zorionak guztioi San Juan Jaietan

Jai hauetan ere, zure ondoan gaituzu.



Carrefour
GORBEIA



ETXABARRI-IBIÑA

ARRASATE

ARETXABALETA

EZKORIATZA

carrefour.es

*60€ baino gehiagoko erosketa eginda,
Carrefour Gorbeiarara etortzeko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.
-Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.
-Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.

2011. urtea amaitu arte baliagarria

QUEBRANTAHUESOS

136 debagoiendar Quebrantako helmugan, eta Oskar Askasibar azkarrena

- ▶ Elgetako ziklista 24. lekuan heldu zen
- ▶ Jose Belda valentziarrak irabazi zuen proba

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

7.259 zikloturistek hartu zuten irteera Sabiñanigon. Horietatik 157 debagoiendarrak. Helmugara 6.875 heldu ziren, eta gure bailaratik 136. Horien guztien artean azkarrena Jose Belda valentziarra izan zen (05.37.01), eta Debagoieneko ordezkarien artean Oskar Askasibar. Elgetarra 24. lekua heldu zen eta 05.48.39ko denbora egin zuen.

Hori da zapatuko Quebrantahuesos lasterketak datuetan eman zuena. Orain norberak egindako denbora aztertu eta aurreko parte-hartzeekin alderatzeko momentua dute txirrindulariek.

Aukerako eguraldia

Eguraldia lagunduta -iaz euria eta hotza egin zuen eta 75 debagoiendar bakarrik heldu ziren

helmugara- parte-hartzaile guztiek helburu bera zuten: lasterketarekin gozatu eta proba bukatzea. Aurretik 205 kilometro, eta gehienok telebista bidez ezagutzen ditugun mendateak igotzeko: Somport, Marie Blanque eta Portalet, besteak beste.

Batzuk erlojuaren kontrako borroka egin zuten, beste batzuk aurreko edizioetan egindako denbora hobetzearen kontrako borroka, eta beste askok arazo mekanikoen kontrako borroka. Hori egin behar izan zuten Lartaun Iturbe aretxabaletarrak eta harekin joan ziren hiru lagunak. "Orbeako mekanikoak ondo baino hobeto ezagutzen ditugu [barreak]. Arazo mekanikoak izan ditugu, eta horrek denbora asko galdu arazi digu", esan zigun telefonoz. Euren egoera ikusita

kronometroari begira baino paisaiari begira egin zituzten kilometro asko. "Beste filosofia batekin egin dugu proba. Hainbeste atsedenekin ez gara gehiegi nekatu", esan zigun. Iturberen ustez Marie Blanque mendateko azken igoera da ibilbideko gogorrena.

Emakume gutxi

Emakume gutxi parte hartu zuten zapatuko proban, eta debagoiendarrak bost izan ziren. "Gutxi gara bai, baina dortsalak zozketa bidez banatzen direnez, asko baldintzatzen du emakumeon parte-hartzea", esan zigun Agotz Iturbe oñatiarrak.

Gustura zegoen egindako lanarekin eta denborarekin, baina "badago zer hobetu. Denbora gutxiago eginez gero hobeto. Dena den, eguraldia aproposa egin du bizikletan ibiltzeko".



Bergarako txirrindulari bi zaleen animuak jasotzen. | GOIENA



Garikoitz Heriz arrasatearra. | GOIENA



Mikel Gomez aretxabaletarra. | GOIENA



Ion Sagasta arrasatearra. | GOIENA



Faka Faka koadrilako ziklista. | GOIENA



Aretxabaletako ziklistak, egubakoitzean, dortsalak hartu ondoren. | GOIENA

Debagoiendarrak Quebrantahuesos proban



ANTZUOLA	2.137 Argoitz Ugalde Ferrero 07:19:43	1.244 Ion Unamuno Lekuona 06:56:19	6.258 Juan Carlos Bastardo Alonso 09:41:48
92 Iker Chaparro Izagirre 06:14:10	2.253 Ion Dorronsoro Calleja 07:22:28	1.427 Mikel Amortza Aranguren 07:01:01	6.416 Javier Barbero Sanchez 09:55:29
ARAMAIO	2.419 Xabier Urtzelai Atxa 07:26:30	1.665 Iosu Goitia Zelaia 07:07:37	OÑATI
3.685 Cesar Azkarate Beitia 07:56:59	2.833 Enzo Gallargo Bolaños 07:36:36	1.960 Jose Javier Zabaleta Pais 07:15:16	145 Ion Albizu Uriarte 06:09:09
4.513 Beñat Arriolabengoa Kalparsoro 08:18:59	2.851 Jose Miguel Landa Azurmendi 07:36:52	2.019 Juan Larrañaga Santamaria 07:16:35	230 Joseba Luis Urtzelai 06:17:19
4.774 Jaime Ibabe Zubizarreta 08:27:28	2.929 Ainhoa Eraña Olaskoaga 07:38:24	2.268 Oscar Ortiz Rodriguez 07:22:55	575 Xabier Guridi Urtzelai 06:33:38
5.595 Benjamin Arriolabengoa Lasaga 09:00:43	3.004 Jose Mari Kortabarria Mayor 07:40:10	3.068 Kepa Irizar Urrutia 07:41:43	688 Xabier Altube Orueta 06:38:08
ARETXABALETA	3.005 Imanol Solis Ezkurra 07:40:10	3.302 Jose Manuen Martin Manzanal 07:47:16	1.123 Arkaitz Laskurain Markuleta 06:52:38
181 Xabier Lezeta Garciandia 06:13:42	3.323 Iñigo Azkarate Morras 07:47:58	3.474 Ion Ander Gallastegi Luarizaristi 07:51:45	1.300 Gorka Lizarralde Lizarralde 06:57:51
196 Jon Urkia Zulaika 06:14:23	3.324 Carlos Moreno Varga 07:47:58	3.475 Iban Gonzalez Lazkano 07:51:45	1.435 Xabier Luis Urtzelai 07:01:12
143 Haritz Kortabarria Heriz 06:20:45	3.455 Manu Remon Sanchez 07:51:23	3.941 Jose Igancio Aranburu Murgizu 08:03:52	1.546 Cayetano Perez Diez 07:03:49
409 Asier Elkorobarrutia Arriola 06:25:54	4.231 Aimar Zuazubiskar Isasti 08:11:26	4.061 Ibon Arrieta Urriategi 08:06:59	1.552 Jose Antonio Erostarbe Arkauz 07:03:59
1.419 Luis Mari Elkorobarrutia Arriola 07:00:43	4.645 Jon Urkia Ezpelketa 08:23:23	4.674 Xabier Eiguren Laskurain 08:24:18	1.677 Manu Arregi Biziola 07:08:02
1.425 Eneko Garai Anduaga 07:00:59	4.648 Unai Ibabe Ruiz de Azua 08:23:23	4.711 Javier Casanellas Amescua 08:25:36	1.680 Julen Iriondo Martinez de Zuazo 07:08:04
1.426 Iurgi Garai Anduaga 07:00:59	4.894 Kepa Azpitarte Gabilondo 08:31:49	4.713 Bigen Alberdi Untzurruntzaga 08:25:39	1.708 Joseba Albizu 07:09:08
2.844 Urtzi Amiano Salterain 07:36:45	5.198 Iker Casares-Prellezo 08:42:50	5.298 Jesus Sanz Segovia 08:46:55	1.789 Jesus Mari Agiriano Bengoa 07:11:18
2.943 Gorka Cillaurain Arregi 07:38:44	5.202 Asier Bidaburu Arantzabal 08:42:54	6.013 Markel Egaña Barrena 09:23:05	1.838 Agustin Otxoa-Aizputua Calvo 07:12:19
3.065 Jon Atxa Azpiazu 07:41:35	5.214 Aitor Laskurain Bidaburu 08:43:20	6.014 Eñaut Alvarez Berrio-Otxoa 09:23:10	2.159 Jose M. Lertxundi Ugartemendia 07:20:15
3.473 Alain Armendariz Huitzi 07:51:44	5.320 Iñaki Jauregi Bidaburu 08:47:52	6.015 Urtzi Rubio Gaminde 09:23:10	2.187 Iker Jausoro Murgiondo 07:20:55
3.809 Xabier Leiba Arregi 08:00:12	5.332 Bernardo Arantzabal Ojangueren 08:48:09	6.016 Ibon Arrieta Arkauz 09:23:14	2.187 Ibon Jausoro Murgiondo 07:20:55
4.612 Mikel Gomez Zabala 08:22:09	5.389 Xabier Gallastegi Uribe 08:50:47	6.077 Ana Gonzalez Urteaga 09:28:00	2.341 Fernando Rezabal Guridi 07:24:42
4.624 Jon Ajuria 08:22:38	5.512 Garikoitz Heriz Arana 08:57:17	6.078 Gorka Larrañaga Larrañaga 09:28:00	2.342 Iñigo Anduaga Chacon 07:24:42
4.691 Joseba Jon Larrinaga Perea 08:24:42	5.539 Iñigo Garai Arrese 08:58:21	6.397 Antonio Verguizas Nieto 09:53:16	2.475 Iñigo Larrea Igartua 07:28:05
5.651 Ander Zubizarreta Gartzia 09:03:43	5.667 Ion Sagasta Aranbarri 09:04:37	6.532 Aitor Blazquez Otaño 10:10:12	3.046 Joseba Letamendi Martin 07:41:13
5.762 Alfredo Irusta Aiertza 09:09:27	5.793 Javier Castillo Santamarina 09:10:49	ELGETA	3.311 Ion Villar Umerez 07:47:31
5.904 Lartaun Iturbe Arenatza 09:17:06	6.120 Gaizka Murgoitio Urroz 09:31:23	24 Oskar Askasibar Zubizarreta 05:48:39	3.900 Gaizka Guridi Urtzelai 08:02:52
5.915 Josu Aiausti Aiausti 09:17:31	6.257 Roberto Alcalde Antia 09:41:48	399 Eñaut Arantzeta Agirre 06:25:26	4.635 Mikel Martin Peralta 08:22:59
6.060 Ibon Biteri Zubia 09:26:31	6.320 Asier Alonso Gartzia 09:45:59	1.794 Iker Irazabal 07:11:22	4.653 Mikel Barrena Igartua 08:23:32
6.611 Jesus Mari Rosado Carrasco 10:21:24	6.323 Lorenzo Alonso Martin 09:46:05	2.157 Enrike Elkor Sarasua 07:20:09	4.891 Ernesto Kortabarria Ugarte 08:31:43
ARRASATE-MONDRAGON	6.346 Ion Iria Urtzelai 09:48:36	ESKORIATZA	4.987 Mario Gartzia Diaz 08:35:00
815 Mikel Lasa Erle 06:42:56	6.686 Miguel Gaztañaga Bidaurreta 10:36:34	438 Emete Gallastegi Goikolea 06:26:47	4.990 Iñaki Urteaga Bikuña 08:35:11
938 Gorka Nin Laskurain 06:46:58	BERGARA	949 Jose Antonio Markaide Armendariz 06:47:17	4.992 Ainhoa Martin Peralta 08:35:12
1.255 Aitor Izarzugatza Arenatza 06:56:36	78 Aitor Larrea Soraluze 05:58:33	1.397 Goio Uribe Beristain 07:00:03	5.160 Agotz Iturbe Murgiondo 08:41:17
1.348 Iban Navarro Aranburu 06:59:05	85 Xabier Zangitu Gil 06:41:49	3.205 Gotzon Kortazar Altuna 07:44:57	5.929 Jesus Mari Ezkati Igartzabal 09:18:12
1.626 Oskar Loiti Loiti 07:06:35	1.057 Aitor Gurrutxaga Elortza 06:50:26	3.494 Aitor Agiriano Zubizarreta 07:52:20	6.331 Ana Larrea Igartua 09:47:21
2.116 Mikel Gonzalez Romero 07:19:01	1.117 Igor Agirrezabal San Miguel 06:52:24	5.954 Ekaitz Arrese Iturbe 09:19:24	6.338 Gerardo Salazar Gomez 09:48:06
			6.337 Juan Carlos Gartzia Moreno 09:48:06

ITURRIA: QUEBRANTAHUESOS.COM



Aukerazko

IBILGAILUAK

salgai



14.500€-tik aurrera

> **FORD FOCUS**
2011 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Galaxy TDCI 21.900 €
2009 | Diesela | Granatea | 59.000 Km
- Ford Fiesta 70 ZP 10.300 €
2010 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Ford Focus TDCI 140 ZP 20.500 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Kuga TDCI 140 ZP 28.900 €
2011 | Diesela | Beltza | 4.000 Km
- Audi A3 TDI 140 Sportbreak-SPORT 18.900 €
2008 | Diesela | Gorria | 89.000 Km
- Seat Leon TDI 105 ZP Sport 11.700 €
2008 | Diesela | Beltza | 48.000 Km
- Seat Leon TDI 140 ZP 9.700 €
2006 | Diesela | Zuria | 110.000 Km
- BMW 360 D. Automatic Pack M 167 ZP 17.500 €
2006 | Diesela | Beltza | 110.000 Km
- Peugeot SW Sport Pack 2000 HDI 9.800 €
2007 | Diesela | Grisa | 90.000 Km
- Ford Transit Nugget 2.0 TDCI 41.500 €
KM 0 (Berria) | Diesela | Plata edo aukeran




28.700 €

> **Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT**
2010 | Diesela | 29.649 Km



- Audi A3 1.9 TDI E DPF ATTRACTION 18.400 €
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPF 26.900 €
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPF REFERENCE ST 20.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



17.250 €

> **Citroen C5 Hdi Premier 110**
2009 | Diesela | 38.000 Km



SAN ANDRES AUZOA 5.
ARRASATE
TEL.: 943 79 45 22.



Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala

- Peugeot 308 1.6HDI Sport FAP 6 vel 11.850 €
2008 | Diesela | Beltza | 59.000 Km
- Peugeot 307 SW 1.6HDI Pack+ 110 12.250 €
2008 | Diesela | Beltza | 37.100 Km
- Citroen C3 1.4HDI Cool 8.999 €
2009 | Diesela | Gris argia | 33750 Km
- Citroen C5 1.6HDI S 17.500 €
2009 | Diesela | Beltza | 37.000 Km
- Citroen C5 2.2HDI Exclusive CAS 31000 €
2010 | Diesela | Gris iluna | 1000 Km
- Citroen CC4 1.6HDI Sport 17500 €
2011 | Diesela | Txuria | 1250 Km
- Citroen GRAND C4 PICASSO Hdi 110 65000 €
2007 | Diesela | Nocciola | 65000 Km
- Citroen GRAND C4 PICASSO CMP 138 14500 €
2007 | Diesela | Alumiu Grisa | 53300 Km
- PEUGEOT 807 SV Hdi 136 14500 €
2007 | Diesela | Alumiu Grisa | 53300 Km

Iragarkia jartzeko: 943 25 05 05



Gazte mailako tropela San Prudentziotik pasatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Ludivine Loze Osintxuko helmugara sartzen, esprinta irabazi ondoren. | M.B.

ZIKLISMOA

Loze azkarrena, eta Usabiaga ahizpak eta Iriarte, Gipuzkoako txapeldun

Zapatuan Osintxuko emakumezkoen proban lortu zituzten sariak

MIREIA BIKUÑA | OSINTXU

Emakumeen ziklismoak indarra eta presentzia baduela erakutsi zuten Osintxuko emakumezkoen proban parte hartu zutenek. Elite, gazte eta kadete mailako txirrindulariek parte hartu zuten, eta hurrenez hurren, Ludivine Loze, Sheila Gutierrez eta Alicia Gonzalez izan ziren azkarrenak. Gainera, Osintxuko proba Gipuzkoako txapelketa ere bazen, eta txapelak jantzi zituzten Ane Iriartek kadete mailan, Irene Usabiagak gaztetan eta Ana Usabiagak elite mailan.

Irteera mailakatu

Proba 11:00etan hasi zuten elite mailakoek. Irteera mailakatu izan zen: distantzia handiena egin behar zutenetik txikienera. Elite mailakoek 87 kilometro zituzten egiteko, gazteek 62 eta

kadeteek 31. Antolatzaileen asmoa zen helmugara denak elkarrekin iristea. Baina, epaileek lasterketa motel xamar zihoala erabaki zuten, eta elite mailako txirrindulari gehienak, lasterketatik kanpo utzi zituzten. Zortzi baka-


rrik heldu ziren helmugara, eta azkarrena Debarrena taldeko Ludivine Loze izan zen. Esprintean Ana Usabiaga baino azkarragoa izan zen. "Zortzi txirrindulari bakarrik geratu garenean, erritmoa kontrolatzen ahalegin-

du naiz. Banekien esprintean azkarra naizela", esan zigun saria jaso ondoren.

Maider Usandizaga oñatiarra

Ibilbidea erabat laua zen: Osintxu, Bergara, San Prudentzio, Zubillaga. Tropela ez zen asko apurtu, baina kadete eta gazte mailako irabazleak bakarrik sartu ziren helmugara.

Ibilbidearekin gustura zeuden ziklistak. "Erripa gogor batzuk daude Osintxu eta Zubillaga artean, baina oro har nahiko laua da. Ni oso gustura ibili naiz", esan zigun bukaeran Debarrena taldeko kide Maider Usandizaga oñatiarrak. Hura izan zen Debagoieneko ordezkari bakarra. 10. lekuan heldu zen helmugara eta "oso pozik" zegoen haren taldekideak elite mailan lortutako garaipenarengatik.



Maila guztietako irabazleak euren sariekin, podiumean. | MIREIA BIKUÑA

OSINTXUKO SAILKAPENA

ELITE MAILA

1. Ludivine Loze
2. Ana Usabiaga
3. Leticia Galan

KADETE MAILA

1. Alicia Gonzalez
2. Ane Iriarte
3. Ziortza Isasi

GAZTE MAILA

1. Sheila Gutierrez
2. Irene Usabiaga
3. Zuriñe Viana

GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK

Elitea. Ana Usabiaga

Gaztea. Irene Usabiaga

Kadetea. Ane Iriarte

LUDIVINE LOZE | ELITE MAILAKO IRABAZLEA

"Estrategiarako baino, kontrolatzeko lasterketa izan da"

Loze pozik zegoen elite mailan lortutako emaitzarekin. Esprintean irabazi zuen. Azken metrotan tropelaren erritmoa kontrolatzen ahalegindu zen.

Esprintean irabazi duzu.

Badakit azkarra naizela. Dena den, azken metrotan eraso jo dut bi alditan. Bigarrenean, helmuga baino 500 metro lehenago aurreratu egin naiz, baina harrapatu egin naute.

Nola joan da proba?

Nahiko lasai ibili gara. Hasierako kilometroetan ihesaldi bat egon da, eta hiru talde indartsuenetako ordezkariak geuden: Debarre-



na, Lointek eta Bizkaia. Zortziko taldea sortu dugu, eta errenta hartzen genuela ikusita, erritmoa kontrolatzen ahalegindu gara.

Ibilbidea nahiko laua da. Bizikleta gainean gogorragoa da?

Nahiko laua da, bai. Tarte batzuetan ordeka faltsua zen. Gainera, haizea egon da, eta leku batzuetan indarrez astindu du. Horrek guztiak, proba gogorragoa egin du.

Zirkuitu berari hainbat itzuli egin dizkiozue. Pentsatuta zeneukan eraso non jo zenezakeen?

Estrategiarako baino, kontrolerako proba izan da. Ihesaldia hasieratik sortu dugu, eta gure artean erritmoa jarri eta bata bestea zaintzen egon gara helmugara arte.

MAIDER USANDIZADA | DEBARRENA TALDEA

"Lehen urte da kadetetan eta probak gogorragoak dira"

Maider Usandizaga oñatiarra Debagoieneko ordezkari bakarra izan zen Osintxun. Kadete mailako lasterketa 10. tokian bukatu zuen. "Gustura" zegoen egindako lanarekin.

Nola ikusi duzu zure burua lasterketan?

Astea gaixorik pasa dut. Katarroarekin egon naiz. Horregatik, uste baino hobeto egon naizela esango nuke. Konforme nago egindako lanarekin eta taldeak egin duenarekin.

Ibilbideari buruz zer esango zenuke? Laua da erabat?



Bai. Erripa batzuk badaude, baina oso arinak. Erraz egiteko moduko ibilbidea da.

Gazte mailako ziklistekin batera heldu zarete helmugara.

Gu baino lehenago irten dira eta harrapatu egin ditugu. Eurekin bat egin dugunean erritmoa bizitu egin dute, baina ondo eutsi dugu.

Lehen urtea duzu kadete mailan. Zer moduz?

Lasterketak luzeagoak eta gogorragoak dira. Baina, oraingoz, gustura nabil.

Ze helburu dituzu?

Bizikleta gaineko teknika hobetu behar du. Neguan ziklo-krosa egin nahiko nuke. Udan atsedean hartuko dut, eta ondoren, neguko denboraldia prestatzen hasiko naiz.

EMAKUMEEN PROBAK

Oñatiko umeak izan ziren lekuko Kirolgik egindako omenaldian

Asier Maeztuk eta Leire Olaberriak Ulma antolatutako bizikleta martxan parte hartu zuten

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Telebistatik haratago, Joko Olimpikoetan parte hartu duten bi ziklistekin ibilaldia egiteko aukera izan zuten Oñatiko neska-mutikoei egubakoitzean. Ulma Taldearen 50. urteurrenean bizikle-

ta martxa egin zuten 9-14 urte arteko 150 bat umek Leire Olaberriarekin eta Asier Maeztuekin. Bi ziklisten bisita aprobetxatuz Kirolgi Fundazioak euren kirol ibilbidea aitortzeko omenaldia egin zien. Olaberriak eta


Maeztuk euren maillotak oparitu zizkioten sinatuta Ulma Taldeko presidente berriari: Irene Alberdi bergararrari. Ekitaldian parte hartu zuen Kirolgi Fundazioaren ordezkari Iñaki Ugarteburuk.

Kamisetak sinatzen

Omenaldiaren lekuko izan ziren bizikleta martxan parte hartu zuten 150 neska-mutikoak. Guztiak irteera puntuan zeudela txalo zaparrada batekin agurtu zituzten bi ziklista profesionalak. Euren jarri ziren tropelaren buruan eta joan-etorria egin zuten. Adinaren arabera hiru talde eta hiru ibilbide egin zituzten: 9-10 urtekoak Ulma Packaging-eraino joan ziren; 11-12 urtekoak Ulma Forjaraino;

eta 13-14 urtekoak Ulma Polimeroraino. Foruen enparantzara heldu zirenean, Olaberria eta Maeztuekin berba egiteko aukera izan zuten, eta Ulma oparitutako kamisetak jantzita, sinadura eske joan ziren.

Kamiseta guztiak sinatuta, opariak banatu zituzten. Adin tarte bakoitzerako zazpi sari zituzten, eta zozketa bidez aukeratu zituzten irabazleak bi txirrindulariek.



Asier Maeztu, Iñaki Ugarteburu, Irene Alberdi eta Leire Olaberria omenaldia bukatuta | JOSETXO ARANTZABAL



Asier Maeztu kamisetak sinatzen. | MIREIA BIKUÑA

KADETEAK

Euskadiko txapeldun Iñaki Alonsok irabazi zuen Oñatiko kadeteen proba esprintean

58 kilometroko 25. Olakua proba egin zuten atzo arratsaldean

M.B. | OÑATI

Inoxcra-Beasain taldeko txirrindulari Iñaki Alonsok irabazi zuen atzo jokaturako 25. Olakua proba. Mikel Irizar eta Iñaki Martinez igo ziren podiumeko bigarren eta hirugarren tokietara. Men-

diko saria Aetxe Arratibelek irabazi zuen, eta Oñatiko korrikalarien artean, Mikel Fernandez izan zen onena. 12. lekuan heldu zen Olakua auzoan zegoen helmugara eta egindako lanagatik saria jaso zuen.

58 kilometro

Kadete mailako 81 txirrindularik hartu zuten irteera eta, beroaren eraginez, 58 bakarrik heldu ziren helmugara. Kadete mailako ziklistek 58 kilometroko ibilbidea egin zuten: Olakua, Zubillaga, San Prudentzio, Arrasate, Eroskiko biribilgunea, San Prudentzio, Zubillaga, Oñati, Olabarrieta, Udana, Legazpi, Udana, Oñati.

Ziklista indartsuenek seiko taldea osatu zuten, eta esprintean erabaki zuten lasterketa. Iñaki Alonsok punta-puntako ziklista dela erakutsi zuen. "Zapatuan Azpeitiko proba irabazi zuen eta kadete mailako Euskadiko txapela jantzi zuen Bergaran", esan zigun Aloñako ziklismo saileko presidente Pedro Irurtzunek.

Proba bukatu ondoren, sari banaketa ekitaldia egin zuten Artxubi tabernaren aurrean.



Tropela Olakuako irteera puntuan. | JOSETXO ARANTZABAL



MAHAI INGURUA

JOSETXO ARANTZABAL

Ziklismoaren ganean berbetan

Bergarako Udaleko Berdintasun sailak antolatuta *Emakumea eta ziklismoa* delako mahai ingurua egin zuten egubakoitzean. Eneritz Iturriaga eta Ana Usabiaga txirrindulariak, Arritxu Iribar kazetariak eta Ainhoa Azurmendi kirol aholkulariak parte hartu zuten. Ziklismoaren iraganaz, egungo egoeraz eta etorkizunaz egin zuten berba, besteak beste, osoko bilkuren aretoan.

GIMNASIA

Urtean ikasitakoa erakusteko gimnasia ikuskizunak egin dituzte

Ariznoak egubakoitzean egin zuen erakustaldia eta Aloña Mendikoek atzo

ANDER MONEDERO | BERGARA

Ikasturte amaierara iritsi gara eta asteburuan Bergarako Ariznoa eta Oñatiko Aloña Mendi gimnasia taldeek urtean zehar ikasitakoa erakusteko saioak egin dituzte.

Bergarako Ariznoa taldeak egubakoitz arratsaldean egin zuen erakustaldia. Aurten, Bergarako taldeak maila altua era-

kutsi du parte hartu duen txapelketetan. Ariznoako lau talde norbere mailako Gipuzkoako txapelkun izan dira, eta horietako batek Euskadiko txapelketa ere irabazi du. Egubakoitzean, guztira, 130 gimnastek hartu zuten parte Labegaraietan urte bukarrako erakustaldian.

Aloña Mendik, berriz, Zubikoan eman zion ikasturteari

bukaera. Atzoko ekitaldian Aloña Mendiko gimnasia taldea osatzen duten 60 gimnastek parte hartu zuten ekitaldian.

Ariznoako 3 talde, Oñatin

Gipuzkoako txapelketa irabazi duten Ariznoako hiru taldetan hiru oñatiar aritzen dira eta talde horiek ere gonbidatu zituzten atzoko ekitaldira.



Labegaraietako harmailak bete egin ziren egubakoitzean. | JOSETXO ARANTZABAL



Aloña Mendiko gimnasta. | J.A.

BORROKA ARTEAK

Borroka arteak ezagutarazteko asmoarekin, erakustaldi praktikoa egin zuten zapatuan

Parte hartzaileek Aikido, Kenpo, edo Judo teknikak praktikatu zituzten



Beteranoak eta hasiberriak izan zen zapatuko erakustaldian. | J.A.

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Zapatuan, Arrasate Aikido taldeak antolatuta, borroka arteen erakustaldi praktikoa egin zuten Uarkape pilotalekuan. Erakustaldiak iraun zuen bost orduetan, Aikido, Kenpo, Judo eta Jiu-jitsu arte martzialen teknikak praktikatu zituzten.

Zapatuko erakustaldia irekia izan zen eta arte martzialak inoiz praktikatu ez zituen jendea ere gerturatu zen pilotalekura. Parte hartzaile horiek, zapatukoa esperientzia ona izan zela esan zuten eta batek baino gehiagok kirol hau praktikatzen hasteko behar zuen bultzada jaso zuten erakustaldi praktikoa.

EUGENIO URIBARREN | ANTOLATZAILEA

"Inoiz praktikatu ez duen jendeari kirol honek eskaintzen duena erakutsi diogu"

Arrasateko Aikido taldeko partaidea da Eugenio Uribarren. Arte martzialen eguneko parte hartzailea eta baita antolatzaileetarikoa ere.

Erakustaldi praktikoa egiten duzuen lehenengo aldian da.

Herritarrek arte martzial desberdinak ikusi eta probatzeko egin dugu Arte martzialen egunaren lehenengo edizioa. Herritarren artean kirol hauek zabaltzea da gure helburua.

Egun osoko plan egin duzue.

Bost orduko erakustaldia izan da, goizean hiru ordu egin ditugu eta arratsaldean, beste bi. Egiten duguna erakusteko aukera polita izan da.

Zenbat parte hartzaile izan dira?

60 bat egon gara Uarkapeko tatamiaren gainean. Borroka arteak inoiz praktikatu ez duen jendea etorri da eta kirol honek eskaintzen duena ikusteko aukera izan dute.



Eugenio Uribarren. | MIREN ARREGI

Izandako harrerarekin pozik?

Bai. Borroka arteen praktika zabaltzea da gure helburua eta gaurko egunak zale gehiago izateko balioko du.



Etxeandia egubakoitzean Mojategin. | JOSETXO ARANTZABAL

ATLETISMOA

Junior eta alebin txapelketa jokatu zuten egubakoitzean

Euskal Herriko, Errioxako eta Kantabriako 22 atletek parte hartu zuten pertika eta salto frogetan

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Junior eta Alebin eskolarteko atletismo proba egin zuten Mojategin egubakoitz arratsaldean.

Euskal Herriko, Errioxako eta Kantabriako 22 atletek parte hartu zuten pertika eta luzera saltoetako probetan. Antolatzaileen esanetan, herri mailako txapelketa bat izateko parte hartzea handia izan zen. Izan ere, txapelketa ofizialak gertu daude eta horietan parte hartzeko atletek marka minimoak gainditu behar dituzte.

Gizonezkoen luzeera saltoan, Arrasateko Kanpanzar taldeko Jian Chenek 6,30 metroko jautzia egin zuen bosgarren sailkatuz. Irabazleak, Donosti Krafft taldeko Pablo Cid-ek, 6,76 metroko jautzia egin zuen. Emakumezkoetan, berriz, laugarren eta bosgarren postuetan sailkatu ziren

Arrasateko ordezkariak. Maddi Garrok 4,54 metroko jautzia egin zuen eta Izar Gorroñogoiak 4,50 metrokoa.

Eneko Arbizu donostiarra izan zen pertika saltoan irabazle. Arbizuk 4,20 metroko altuera lortu zuen eta Arrasateko ordezkariak, berriz, Istar Dapenak, 3,50 metroa. Emakumezkoetan, berriz, 2,60 metroko jauziarekin Alba Etxeandiak bigarren postua lortu zuen. Alebin mailako Maitane Iriak 2,20 metroko saltoa egin zuen.

Ruiz de Azua, Espainiako 3.

Atzo Granollers-en, Katalunian, jokaturako jubenil mailako Espainiako txapelketan Malen Ruiz de Azuak hirugarren postua lortu zuen. Arrasatearrak pertikarekin 3,60 metroko jautzia egin zuen.



ERREMONTEA

JOSETXO ARANTZABAL

Zeberio II eta Etxeberria III finalera

Zapatuan, Oñatiko pilotalekuan kolore gorria izan zen nagusi, eta Zeberio II eta Etxeberria III erraz menderatu zuten Urrizak eta Ionek osatutako bikotea (40-27). Partiduaren erdialdean urdinek susperraldi txiki bat izan zuen, baina ez zen nahikoa izan. Partiduko irabazleek ekainaren 25ean Zumarragako pilotalekuan jokatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren finala Urteaga eta Urrutia I.aren aurka.



Martin Davila, Arrasateko Mojategiko atletismo pistan. | ARANTZAZU EZKIBEL

Martin Davila | Euskadiko 400 metroko txapelduna beteranoen mailan

"Adinarekin abiadura galtzen da, baina erresistentzia, osterera, irabazi egiten da"

- ▶ Euskadiko txapelketan 400 metroko lasterketan lehena izan zen
- ▶ 54.58 egin zuen Davilak Durangon jokaturako lasterketan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Egunero entrenatzen da Martin Davila; eta horretarako, Bergararik Arrasatera joaten da egunero. Dagoeneko beteranoen mailara salto egin du.

Zorionak! Durangon Euskadiko txapela lortu zenuen.

Eskerrik asko. Nire asmoa marka pertsonala hobetzea zen, baina, egia esan, orain dela 17 urteko marka hobetzea zaila da. 52.07 da nire marka.

Aurten beteranoen sailera pasatu naiz, eta, zaila den arren, entrenatzen jarraitzen dut.

Espero zenuen horrelako emaitzarik lortzea?

Ez, ez nuen espero. Gainera, Euskadi mailan aritzen diren atletak ez nituen ezagutzen, eta ez nekien zeintzuk izango ziren nire aurkariak. Sorpresa izan zen txapela lortzea.

22 urte daramatzazu atletismoan. Beti ibili izan zara neurri berean?

Bai, beti distantzia motzean ibili izan naiz, 400 metroko lasterketak egiten. Datorren urteari

begira, baina, aldatzeko asmoa daukat. 800 metroko lasterketekin hasiko naiz.

Urtekaurrera egin ahala distantzia luzeetan hobeto moldatzen da bat?

Bai, uste dut hobeto ibiliko naizela distantzia luzeko lasterketetan. Aurten, esaterako, igarri dut ez naizela hain fin ibili; hainbat lesio izan ditut entrenamenduetan. Gainera, entrenamenduez gain, lan egiten dut; entrenamenduetatik irten eta lanera joan beharra, adibidez, gogorra da. Urte asko egin ditut horrela eta esan daiteke ondorioa izan duela.

Behin 35 urte beteta beterano izatera pasa zara. Gogorra izan da pauso hori?

Ilusioz hartu dut; izan ere, 35 urterekin egunero entrenatzea eta lehiatzeko gauza garela jakiteak ilusioa ematen du. Lasterketetan parte hartu eta zu baino nagusiagoak direnei eta batez ere zu baino gazteagoak direnei irabazteak indar handia ematen

du. Pozik nago.

Nola entrenatzen zara?

Serie luzeak eta motzak egiten ditut. Esan daiteke orokorrean kilometro asko egiten ditugula; Urkulura ere joaten gara... Bestalde, lehen egiten genituen pisuak eta gimnasio lanak gaur egun ez ditut egiten. Belaunek, adibidez, ez didate onartzen lan karga hori.

Euskadiko txapelketa da lortu duzun

"Orain dela 17 urte egindako marka pertsonala hobetzea oso zaila da"

"Ilusioz hartu dut beteranoen mailan aritzea; pozgarria da lehiatzea"

emaitza onena?

Bakarka bai. Gazte mailan Gipuzkoako bigarrena izan nintzen. Taldeka, berriz, irabazi izan ditugu hainbat txapelketa, batez ere errelebutan. 4x400 lasterketan irabazi izan dugu; baina bakarka, esan bezala, hau izan da lortutako garaipen handiena.

Euskadiko txapelketatik harago ez dut beste inon parte hartu; oso zaila da Espainiako txapelketan parte hartzeko markak lortzea.

Aurrerantzean, esan duzun moduan, 800 metroko probetan parte hartuko duzu.

Bai, 800 metroko lasterketak eta krosak ere egingo ditut. Kontua da lasterketa arinagoak egitea; izan ere, 400 metrokoak oso gogorak dira.

Adibidez, orain dela aste batzuk, 100 metroko lasterketa batean geratu beharra izan nuen min hartu nuelako. Lasterketa motzak oso gogorak izaten dira. Gorputzak atsedena eskatzen du dagoeneko. 800 metroko laster-

ketak, osterera, ez dira hain gogorak. Lasterketa luzeetan erresistentzia lantzen da gehiago. Adinarekin abiadura galtzen da, baina erresistentzia irabazi.

Arrasaten maila handiko atletak dituzue. Zer jaten duzue, ba, hemen?

Bai, maila handiko atletak ditugu hemen. Pertikan, adibidez, Espainia mailan lehiatzen direnak ditugu. Gertatzen dena da gazte gehiagok hurbildu beharko luketela. Traba asko daude hona entrenatzera etortzeko; lehen, Iturripera edonor joan zitekeen probatu eta gustatuz gero geratu. Baina Mojategin sarrera ordaindu behar da, eta horrek atzera egiten du.

Badirudi modan dagoela korrika egitea. Jende asko ibiltzen da, behintzat!

Bai; askatasun handia ematen duen kirola da. Ez dauka zeri-kusirik gainerako kirolekin. Norberari poztasuna ematen dion kirola da. Gogoia besterik ez da behar.

Zerbait gehitu gura duzu?

Errugbikoaren eta Aukeakoaren artean dagoen eztabaidaren inguruan esan gura dut errealitatea dela elkarte guztiok berdina uste dugula; izan ere, hau ez dago ondo kudeatuta. Aukeako jendeak hona etorri eta benetan zer gura dugun galdetzea faltan igartzen dugu.

"Norberari poztasuna ematen dion kirola da korrika egitea"

"Zaila da Espainiako txapelketan lehiatzeko markak lortzea"

HEZIKETA

Arrate Bengoa | Bergarako osasun etxeko pediatra

"Txertoa hartzea da saranpioiaren aurkako neurrikeraginkorra"

Desagertzeko bidean uste bagenuen ere saranpioia indarra hartzen ari dela dirudi

AMAIA TXINTXURRETA / L.Z. | ARRASATE
Azken hamarkadan ez da ia saranpioi kasurik eman, eta urtarrietik hona bederatzi kasu agertu dira Gipuzkoan. Iaz epidemia handia egon zen Afrikan, eta Frantzia 5.000 kasu atzeman dituzte dagoeneko.

Debagoienean egon da kasurik?

Ez, Irunen agertu dira. Hendaian ikasten zuen mutiko bat izan zen lehen kasua. Momentuz, hor gel-ditu da puntu epidemikoa.

Zer da saranpioia?

Arnasbideetatik kutsatzen den birusa da, oso kutsakorra. Hasieran gripe txiki bat dirudi. Sukar altua, konjuntibitisa eta orbanak agertzen dira. Hamar bat egun irauten du eta aparteko konpli-



Arrate Bengoa. | GOIENA

"Pentsatzen dugu kasu solte batzuk agertuko direla noizbehinka"

kaziorik sortzen ez bada gaixoak berez osatzen dira.

Ze pertsona daude arriskuan?

Urtebetetik beherakoak ezin dutelako txertorik hartu, eta txertatuta ez daudenak. Gizartearen %5ak uko egiten dio txertoa hartzeari. Kopuru txikia da, baina txertatu gabekoen poltsa handitzen doa. Txerto honek, gainera, izaera soziala du. Gaixotasuna ez hedatzeko ingurukoak txertatuta egotea garrantzitsua da.

Zergatik txertoari uko egite hori?

Alde batetik gaixotasuna ia ematen ez delako. Gaur egungo gurasoek ez dute ezagutzen. Bestetik, min handia egin zuen txerto horren inguruan 1998an argitaratutako artikulu batek. Demonstratuta dago ez zuela funtsik.

Egoera kontrolpean dago?

Oraingoz bai, baina pentsatzen dugu kasu solte batzuk agertuko direla noizbehinka. Gaixotasuna ez hedatzeko gure helburua da kasu berri bat atzeman bezain pronto neurriak hartzea.

Zein da zure gomendioa?

Txertoa badago eta konfiantza handiz txertatu gaitezke. Gaixotasunak zailagoa izango du hedatzea. Ez beldurtu, galdetu eta ondo informatu.

Iñaki Kasares: "Izatez zaintzarako gaitasun bera dugu gizonezkook"

Guraso.com atariko kolaboratzailearen ustez mito sexistak batzuk alboratu beharra dugu

L.Z. | ARRASATE

Iñaki Kasares argia da bere azken artikuluan: "Aitatasunaren izaera eta bilakaeran sexistoak berebiziko eragina du". Aitatasunari beste modu batez heldu behar diogula uste du eta asko aurreratu dela onartzen badu ere oraindik "traba askotxo" ikusten ditu. Izugarri zabaldua dagoen uste batez ohartarazten gaitu: "Gizonezkoek ez dute balio zaintzeko edo ez behintzat emakumezkoek bezainbeste".

Kasares ez dago ados. "Emakumezkoenak bezain onak, sakonak, hurkoak, estuak... izan ahal dira gure umeez harremanak. Egia da haurraren hazkuntzaren etapa batean,

edoskitze aldian hain zuzen ere, amaren rola berebizikoa dela eta, ahal dela behintzat, egokiena dela amak betetzea rolik hurbilena (...), baina aldi zehatz eta, zelanbait, laburraz ari gara".

Mitoez baztertzea amets

Nahiz eta gizonei kalte egiteko egiten ez diren, sarri ingurukoan aldetik jasotzen diren mezuez ohartarazten du Kasaresek. "Erraztasuna baino gehiago traba pairatu behar dugu (...) Uste dut mito hau behingoz baztertzeak onura handia ekarriko digula gizonezkoek; baina baita emakumezkoek eta haurrei ere, eta ondorioz jendarte osoari ere bai. Horixe du amets".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: guraso.com



guraso.com

ADITUAREN ESANETAN

Ur-galerak dementzia kasuetan

Txomin Heriz

Arizmendiko irakaslea



Deshidratazioa sortzen da desoreka dagoenean ur edo gatzen galeren eta sarreraren artean. Hirugarren adinean eta dementzia arazoak daudenean deshidratazioa azkar etor daiteke, gu konturatu orduko. Zer egin dezakegu? Deshidratazioaren sintomen aurrean adi egon behar dugu, eta gaixoaren ur-galerak kontrola ditzakegu; horrela, ur-beharrez gehiago jakingo dugu.

Ur-galera nagusiak

Jakin badakigu ura galtzen dugula gernutik, azaletik, arnasketatik, gorozkietatik eta izerditik. Beraz, horiek hartuko ditugu kontuan, eta adi egongo gara galera berezien aurrean.

Kontuan hartu sukarra izaten dugunean azaletik ur gehiago galtzen dugula. Giro-temperatura altua bada ere, azaletik ur asko galtzen dugu. Arnasaren maizta-

sunaz azkarragoa bada, arnaske-tan gehiago galtzen da. Gorozkiak bigunak badira edo beherakoa izaten badugu, digestioan ur-galerak handiagoak dira. Gorakoe-kin berdina gertatzen da; galerak biderkatu egiten dira. Gernuko galerak handiagoak dira diuretikoak hartzen baditugu, eta kontrolatu gabeko diabetesa badugu; izan ere, glukosa altuarekin ur asko galtzen da gernutik. Dementzia batzuetan mugitzeko joera handia dago –mugimendu konpultsiboak, pasilloetan eten-gabe alde batetik bestera ibiltzea... –. Kasu horietan, kirolariei gertatzen zaien bezala, ur-galerak handiak dira.

Ur-galerak nola neurtu

Gernutik galtzen den ur-kantitatea zenbatekoa den jakitea funtsezkoa da galerak kontrolatzeko. Gaixoak eskatzen badigu txiza egin nahi duela, gernua jaso egingo dugu; bota aurretik neurtu eta apuntatu egingo dugu. Gaixoa zundatuta badago poltsa biltzai-

lea hustu baino lehen neur dezakegu eta pixoihala erabiltzen badu, pisatu egingo dugu neurketa egiteko. Gernuaren konposizioan %96 ura da. Beraz, errore txikia izan arren, onartuko dugu litro bat ur litro bat gernu dela, eta kilo bat ur, kilo bat gernu. Pixoihal sikuaren pisua jakinez gero, erabilitako pixoihalaren pisua neurtu ondoren konparaketa egingo dugu. Esaterako, oihal sikuaren pixua 100 gramokoa bada eta erabili ondoren 350 gramokoa, gernua 250 gramokoa da; hau da 0,25 litro.

Oihala aldatzen dugun bakoitzean errepikatu beharko dugu operazioa eta batuketa 24 ordu pasatzean egin. Hala, gaixoak eguneko gernutik galtzen duen ur kopurua kontrolatuko dugu.

Alarma sintomak

Asko dira, temperatura, bihotzaren eta arnasaren erritmoaren igoera, zorabioak, ezpain urdinkak, arnasa hartzeko arazoak, oreka-arazoak...



Emakume bat pertsona nagusiendako fardela erakusten. | SCA SVENSKA CELLULOSA

Deshidratazioaren sintomak

Dementzia duenak ezin ditu premiak ondo adierazi. Beraz, aldaketa fisiologikoei adi egon beharko dugu. Kontuan hartu beharreko adierazleak dira egarri biziak egotea eta goserik ez sentitzea, aho sikua, azalaren elastikotasun eza, begi-zuloak, egonezina, buruko mina, nekea... Gainera, gernua kontzentratua izatea –kolore hori iluna– eta gernua gutxitzea. Gainera, ondo zaindu behar ditugu jokabide-aldaketak; askotan behera etortzen dira, apalago daude, logaleak daude, indar barik, dardaratsu... Edo jokabide-aldaketa ulertezina erakusten.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: arizmendi.pro



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA



Musika eskolako ikasle eta irakasleek abesti bat eskaini zieten elkarrekin Leizarra musika eskolako sortzaileei. | JOSETXO ARANTZABAL

Beste 25 ere beteko ditu erraz Leizarra musika eskolak

Urteurrena ospatzeko kontzertua egin zuten zapatuan eta sortzaileak ere omendu zituzten

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETAKO
25. urteurrena ospatzearekin batera Aretxabaletako Leizarra musika eskolak erakutsi du musikaren eta musikariaren etorkizuna bermatuta dagoela herrian beste horrenbeste urtetarako.

Ikasturte amaierako kontzertua egin zuten zapatu eguerdian Herriko Plazan. Ez zen instrumenturik falta izan: biolinak, biolak, gitarrak, bateria, flautak, tronpetak, akordeoiak, txistuak... Dantza egiteko aukera ere izan zen; Aitor Sanchezek eta bere akordeoiak dantzan eta txaloka ipini zuen Herriko Plaza.

Kontzertu koloretsua eskaini zuten. Aurtengo emanaldia gainera, berezia izan zen, 25 urte ez direlako egunero betetzen.

Lehena eta oraina elkartu zituzten Herriko Plazan: Leizarra musika eskolaren sortzaileak eta gaur egungo ikasle eta irakasleak. Lehena, oraina eta baita etorkizuna ere, herriko plaza bete zuten gaztetxo horiek guztiak izango direlako Leizarraren geroa.

Sortzaileei omenaldia

Jokin Antxia, Eli Izagirre, Ricardo Garro eta Angel Barandiaranek intsignia bana jaso zuten

zapatuan duela 25 urte ausartak izan zirelako eta zailtasunak-zailtasun Aretxabaletak musika eskola bat edukitzea posible egin dutelako. "Hasierak oso gogorrak izan ziren, baina gaurko irudia ikusita oso harro gaude egin genuenaz", zioen Garrok. Pablo Urkia *Litri* eta Ana Crespo-zendua biak ere izan zituzten gogoan, Leizarraren sorreran izan zirelako haiek ere.

Ekitaldia amaitzeko musika eskolako ikasle eta irakasle guztiak elkarrekin egun horretarako propio prestatutako abestia jo zuten.



JOKIN ANTIXIA
SORTZAILEA

"Duela 25 urte gure helburua zen herrian musika presente egotea eta musikarekin zerikusia genuen guztiok batzea. Lortu dugu helburua. Gaur sortzaileei egin diguten omenaldia oso detaile polita izan da".



ANGEL BARANDIARAN
SORTZAILEA

"Hasiera oso gogorra izan zen, baina gaurko ekitaldiaren ostean ikusten da gauzak hobera doazela eta gure amets hura dagoeneko errealitate bihurtu dela. Bete ditzala beste 25 urte musika eskolak eta ikusi dezagula".



RICARDO GARRO
SORTZAILEA

"25 urte eta gero oso egun polita da gaurkoa. Horrenbeste gazte ikustea... Hirurehun ikasle baino gehiago dira gaur egun. Oso harro sentitzen naiz bere garaian hartu genuen erabakiaz, hasiera oso zaila izan zen arren".



ELI IZAGIRRE
SORTZAILEA

"Oso pozgarria da gaurko ospakizuna. Nire aita gainera Alkar kultura elkartearen sortzailea izan zen eta musika eskola nolabait handik dator. Gaur argi ikusi da gainera musika eskolak etorkizuna baduela".



Angel Barandiaran, Ricardo Garro, Jokin Antxia eta Eli Izagirrek intsignia bana jaso zuten zapatuko ekitaldian. | J.A.



AITOR SANCHEZ
IKASLEA

"Hamaika urte ditut eta sei urte inguru daramatzat Leizarran. Akordeoia jotzen dut, baina ez handitan akordeoi-jotzailea izan nahi dudalako; ondo pasatzen dudalako, baizik".



KEPA AGINAGALDE
IKASLEA

"Klarineta jotzen dut eta duela bost urte hasi nintzen musika eskolara joaten. Bandan jotzen dut eta oso ondo pasatzen dugu lagunok elkarrekin. Kontzertuak dira gehien gustatzen zaizkidanak".

Galartaren obra koloretsua ikusgai Kulturaten

Inaugurazio ekitaldian artistaren maisutasuna azpimarratu zuten

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Arrasatek izan duen margolari ezagun eta garrantzitsuenetarikoa izan zen Julio Galarta. Bada, datozen egunetan bere lanak hobeto ezagutzeko aukera izango da. Egubakoitzean inauguratu zuten Kulturateko klaustroan bere omenez egindako erakusketa. Inaugurazio ekitaldian parte hartutako guztiek azpimarratu zuten Galartaren maisutasuna.

Hitz goxoak maisuari

Arrasate Margo Taldeko Raquel Perez de Arenazak ireki zuen inaugurazio ekitaldia. Hitz politak eta hunkigarriak izan zituen taldeko askorendako irakasle eta eredu izan zenarentzat: "Zu izan zara guretako, pinturazaleendako, inspirazioa. Aire zabala margotzen ikusten genuen pintore bakarra, eta lotsa apur batekin zure albo gerturatzen ginen aholku bila. Irribarretxo batekin erantzuten zenuen eta ahal zenuen guztia ematen zenigun". Kontxita Zarraoa bezala. Galartarekin margotzen urteak eman zituzten emakumeak hunkituta entzun zituzten Perez de Arenazaren hitzak, buruarekin baietz esaten zuten bitartean.

Koloreen erregea

Joxe Mari Velez de Mendizabalek ere hartu zuen hitza inaugurazio ekitaldian. Bihotza eta burua erabiltzen zituen margolaria zela esanez hasi zuen hitzaldia: "Bihotzarekin margotzen zuen, baina baita buruarekin ere. Bihotza ezkerrean zuen; paisajista zen, baina salakuntza egiten zuen. Degradatzen ari garen paisaia islatzen ahalegindu zen Velez de Mendizabalek Galartaren obran koloreak duen garrantzia azpimarratu zuen: "Sekulako maisutasuna zuen koloreak erabiltzen. Garai hartako Arrasate grisa koloreztatu zuen; koloreekin jolasten zekien". Amaitzeko azaldu zuen inauguratzera zihoazena ez zela Galartaren erakusketa, behar bada, hark beste margolan batzuk aukeratuko lituzkeelako.

Inazio Azkarraga-Urizar alkatuek esan zuen ohore bat zela lehenengo ekitaldi publikoa horixe izatea eta azaldu zuen "aspaldiko asmoa egia bihurtu" dela erakusketa horrekin.

Julio Galartaren margolanak uztailaren 17ra arte egongo dira ikusgai Arrasateko Kulturateko klaustroan.



Joxe Mari Velez de Mendizabal eta Iñigo Arregi inaugurazio ekitaldian. | A.B.



RAQUEL PZ. DE ARENAZA
ARRASATE MARGO TALDEA

"Erakusketa bizirik zegoela egin nahi genuen, baina berandutu egin zaigu. Pentsatzen dugu dagoen lekutik begira egongo dela. Merez duen txapela ipini diogu gaur, Galarta txapeldun bat delako".



LUIS LASKURAIN
MARGOLARIA

"Paisajista klasikoa izan zen, tramankuluak hartu eta kanpora margotzera irteten zen horietakoa. Galartaren margolanek oso kolore bereziak dituzte, berdeak oso intentsuak dira. Merezitako omenaldia jaso du".



KONTXITA ZARRAOA
MARGOLARIA

"Urte asko eman nituen Juliorekin margotzen. Jendeak barre egiten zidan: emakumea eta margotzen... Pinturaz dakidan guztia berak irakatsi zidan eta nire margoak Galartaren antzekoak dira".

Karmele Igartua zenaren 'Itsaso kontra bat' aurkeztu dute Aretxabaletan

Ilunabar Literarioa egin zuten egubakoitzean Karleme Igartua zenaren azken liburua aurkezteko

MIREN ARREGI | ARETXABALETA

Poesia eta artea, bizitzaren eta heriotzaren arteko mugaren emaitza direla uste du Pamiela argitaletxeko arduradun Jose Angel Irigarai, eta hori dela hain zuzen Karleme Igartua zenaren *Itsaso Kontra bat* liburuaren funtsa: "Oso eri zela idatzi zituen Igartuak argitaratu berri dugun liburuak poesiak eta bere egoeraren oso kontziente zela". Eta gaineratu

zuen: "Karmeleren liburua argitaratzea ohore bat izan da. Hark utzi digun altxorra oso bizigarria da; edertasun eta sentipenez betetako bere poesia oso berezia da; nik uste euskal letratan gauza gutxi daudela Karleme Igartuaren poesia liburua bezain ederrik".

Egubakoitzean egin zuten Aretxabaletan, Igartuaren jaio-terrian, haren azken liburuaren aurkezpen ekitaldia. Ekitaldi xume eta hunkigarria osatu zuen Bergarako Idazle Eskolak; Aitor Furundarenaren akordeoi doinuez eta Iñaki Telleriaren perkusioaz lagunduta. Karleme Igartuarena ez ezik, Tere Irastortzaren *Eta orain badakit* poesia liburua ere aurkeztu zuten. Irastortza eta Igartua lagun minak izan ziren eta Aretxabaletako poetaren azken egunetan elkarri eskutik oso helduta egon ziren. "Orduan sortu ziren bi liburuak, ia une berean, eta osagarri bezala ulertu daitezke, nahiz eta poetika desberdina erabiltzen duten" gehitu zuen Irigarai. "Igartuak bizitzari eskaintzen dion kantu bat da liburua; ez da horren tristea. Bere intentzioa zen azken poesia liburu bat argitaratzea eta egin

egin zuten. Poesia idazten berandu hasi bazen ere, oso poeta ona zela erakutsi zigun", gaineratu zuen Pamiela argitaletxeko arduradunak.

Ikuskizun anitza

Egubakoitzean Arkupen egin zuten ikuskizuna aberatsa izan zen formatu aldetik; hain zuzen ere, poesia soilik ez, musika eta irudiak ere uztartu baitzituzten. Karleme Igartuaren poesiak Idazle Eskolako Itziar Gomezek irakurri zituen; Irastortzak, aldiz, bere liburuak. Eta hori guztia Jon Furundarena akordeoi jotzaileak eta Iñaki Telleria perkusio jotzaileak ikuskizunerako propio sortutako musikarekin aurkeztu zuten. Gainera, Izaskun Etxeberriak -Idazle Eskolako kidea hau ere-, Igartuaren liburua oinarri egindako argazkiekin osatu zuten emanaldia.

Modu horretan aurkeztu izanak bizitasun itzela eman zion ikuskizunari eta herritarrek oso hunkituta eta pozik atera ziren emanalditik. Herritarrez gain, bertan izan ziren Idazle Eskolako kide asko, eta nola ez, Igartuaren senitartekoak ere bai.



Emanaldiko protagonistak, Pamielako arduradun Jose Angel Irigarai eta Garazi Oianguren, Karmeleren alaba. | J.M.A.

AEDk antolatuta umorez betetako bertso saioa eskaini zuten bertsolariak San Juan jaien atarian

Unai Iturriaga, Jokin Labayen eta Amaia eta Manex Agirre aritu ziren; umoretsu eta fin aritu ere

MIREN ARREGI | ARRASATE

Unai Iturriaga, Amaia Agirre, eta Debagoieneko bi bertsolari; Manex Agirre eta Jokin Labayen izan ziren zapatuan Monterronen, AEDk antolatuta. San Juan jaien baitan, aspalditik antolatzen du euskara elkarteak bertso jaialdia, eta okasioak eskatu bezala, zapatukoa saio umoretsua izan zen.

Modu askotara aurkeztu izan da San Juanetako bertso saioa: batzuetan, Seber Altuben egin izan da; bestetan dragoi janean bertan, eta abar. Azkenengo urteotan, baina, Monterronen egin izan dute, eta badirudi, jendeak hartu duela bertso saioa erreferentzia gisa. Hain zuzen ere, jende dezentatu zen bertan, adin desberdinetakoak, gainera.

Umorea eta jolasa nagusi

Aurreikusitako bezala, ordu eta erdi-ko saioa izan zen. Oso umoretsua eta ikusleen artean barre algara handiak eragin zituen. Gai jarraile lanetan Maite Berriozabal berriztarra aritu zen, eta bikain aritu ere! Gai burutsuak ipini zituen, oso umore fin eta dotorez; bertsolariak ere gisa horretan



Manex Agirre aramaioarra bertsoa botatzen, Jokin Labayen arrasatearren begiradapean. | JOSETXO ARANTZABAL

erantzun zuten. Esaterako, Manex Agirre eta Jokin Labayen Arrasateko udal brigadako kide biren paperean ipini zituen. Dragoi janean dragoia desagertu zela-eta, haren bila. Hor sortu zuten bi bertsolariak Aramaio eta Arra-

sateren arteko lehia eta une oso barregarriak bizi izan ziren. Jolas bat ere ipini zien Berriozabalek; bakoitzari hitz ezkutu bat eman eta hitz horren lehen letrarekin hasten ziren hitzez osatu behar zuten bertsoa. Euskarazko hitz

berrien hiztegia sortzeko ere, izan ere, asmatutako hitz ugari bota zituzten.

Hala, giro ederrean eta eguraldia lagun garatu zen bertso saioa. Herritarrak pozik, eta antolatzaileak, zer esanik ez.

Orkestraren 25. urteurreneko kontzertua

JAIONE CARPINTERO | BERGARA Sentimenduz beteriko 25 urte beteko ditu Bergarako Orkestra Sinfonikoak. 25 urte hauetako ibilbidea programa xume eta apalarekin hasi bazen ere, ez zen garrantzi txikikoa izan. Izan ere, egun, Euskal Herrian gutxi dira 25 urte bete dituzten orkestra ez profesionalak.

Urtemuga berezi hori ospatzeko, ekainaren 25ean, Orkestra Sinfonikoko zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaque-ren eskutik kontzertu alai eta dinamikoa eskainiko dute. Bertan, 25 urteotan jo dituzten pieza esanguratsuenak entzungo dira.

Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengoan, orkestrak bakarrik joko du eta bigarrean, berriz, Aritzeta abesbatzak eta Musika Eskolako umeen abesbatzak hartuko dute parte.

Orfeoak jende guztiarekin batera gogoratu nahi ditu ahaztezin bilakatu diren momentu guztiak. Sarrerak dagoeneko salgai daude Lazkanon eta kultura etxean 10 euroren truke.



Arrasateko Gaztetzeko oholtza gainean, bikote finalistak. | JOSETXO ARANTZABAL

Jokin Labayen eta Ane Zuazubizkar irabazle binakako bertsolari txapelketako finalean

Talde parte hartzaile guztiek erakutsi zuten umorea eta maila ona bertsoan

MIREN ARREGI | ARRASATE

Jokin Labayen eta Ane Zuazubizkar arrasatearrek osatutako taldeak irabazi zuen atzo Arrasateko Gaztetzeko jokatu zen Debagoieneko bikotekako bertsolari txapelketa. Lehia lau bikoteren artekoa izan zen; Oñatitik Urko Egañak eta Josu Igartuak osatutako bikoteaz gain,

Gorka Larrea eta Joseba Lasagabaster aritu ziren; Arrasateetik Jokin Labayen eta Ane Zuazubizkar eta Aramaioetik Manex Agirre eta Maria Izaga.

Gaztetzeko lau taldeak hamar bat lagun elkartu ziren eta saio oso umoretsua izan zela adierazi zuten antolatzaileek. Lau taldeak ere,

pareko aritu ziren, guztiek ere maila ona erakutsiz.

Bertso eskolen arteko harremanak sendotzea eta bertsolari gazteei tokia eskaintzea helburu izan duen lehen lehiaketa honen emaitza oparoa ikusita, antolatzaileak bigarren edizio bati begira ipini dira dagoeneko.

Arrasate Musikaleko taldeek arrakastaz erakutsi zuten ikasturtean zehar egindako lana

MIREN ARREGI | ARRASATE

Urte bukaerako kontzertua egin zuten Arrasate Musikaleko egubakoitzean, urte guztiko lan oparoa ezagutzera emanaz. Amaia Antzokian izan zen hitzordua eta ikusle mordoak bertaratu zen.

Askotariko taldeen lana

Musika tailerreko umeek hasi zuten emanaldia; 5 eta 7 urte bitarteko 40 bat ume igo ziren oholtza gainera eta hiru dantza eskaini zituzten. Hirukote baten txanda izan zen ostean; bi oboez

eta adar ingeles batez osatutako taldearena. Biolin talde txikia etorri zen ondoren: 15 bat biolin jotzailek 7 abesti eskaini zituzten. Perkusioz, akordeoiez eta haizezko eta metalezko instrumentuz osatutako taldeak ere eskaini zituen hainbat abesti; taldearen zuzendari Arantzazu Idigorasek egindako hainbat abestiren konponketak, hain zuzen ere. Bukatzeko, balet taldea igo zen eszenatokira; berrogeita hamar bat ume bukaera borobila eman zioten kontzertuari.



Balet taldeko neskek emanaldian. | IMANOL GALLEGO

ZINERAKO SARRERAK



Florida  Guridi

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.
Bidali Kluba SARRERAK
[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra



EKAINEN SARRIAK

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA

Bidali Kluba KAMISETA
[bazkidearen zenbakia]
215800 zkra



skunkfunk

LIBURU SORTA UMEENTZAT

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



PAMIELA

UMEENTZAKO JOKOAK

Bidali KLUBA JOKOAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



Hastekin Elkartea

DVD-A

Bidali Kluba DVD
[bazkidearen zenbakia]
215800 zkra



EROSKI

2011n atera etekina txartelari

AQUARIUM

AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99
■ Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA

AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39
■ %2 gasolindegian erregaia erositara.
■ %2 dendako produktuetan

AZKOAGA

AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA

Eskoriatza, 943 71 45 66
■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraketa).
■ %10 deskontua jatetxeko kartan.

BARCELÓ

BARCELÓ BIDAIAK

Arrasate, 943 79 70 11 / Bergara, 943 76 08 43
■ 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI
(kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldia, irteera gastronomikoak, ongizate txartelari...)

BEGIONDO

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21
■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO SPORT

ESKO SPORT KIROL DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96
■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES

GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

CLINICA DENTAL BERGARA

CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77
■ -%10 zerbitzu guztietan
■ -%15 inplanteetan
■ Aho-garbitzeta doan,
■ 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

IKER SUKALDEAK

IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
■ Sukalde osoa erositara, mikrouhin-labea opari.

LILURA

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71
■ -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoak (besapekoak opari).
■ -%20 elikagai-intolerantzia proban.
■ -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
■ -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MULTIOPTICAS

MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89
■ -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI

RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72
■ -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
■ -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiago badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diegu.

TXIKI ZOO

TXIKI ZOO

Aretxabaleta, 943 79 51 15
■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

TXURI URDIN

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00
■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
■ -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
■ -%10 zubi eta oporraldietan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78
■ %10 deskontua.

EDU MURUAMENDIARAZ

DANTZARIA



GURE ARTISTAK



Burnia ikuskizuna Bilboko Arriaga antzokian estreinatuta berri da. | KARLIS STUDIO

"Bizitzan behin irten daitekeen proiektua da; trenera igo eta aprobetxatzekoa da"

- ▶ Aukeran dantza konpainiak dantza tradizionala eta garaikidea lotu ditu
- ▶ 'Burnia' ikuskizuna, formatu txikiagoan, Debagoienara ere etorriko da

MAIDER ARREGI | BERGARA

Edu Muruamendaraz dantzariak *Burnia* ikuskizuna arrakastaz estreinatuta berri du. Bergararrak gertutik kontatu dizkigu bizi izandako sententziak:

Zer moduzko harrera izan du *Burnia* ikuskizunak?

Harrera polita izan du. Hiru egunean egon gara Bilbon eta saioko 400 lagun pasatxo izan da. Proposamen ezberdina da eta jendeak gustura hartu du.

Arriaga moduko antzokiak errespetua emango du, ezta?

Hitz potoloak dira! Arriagan dantza egin dugun arren, orain artean egindakoarekin ez du zerikusirik izan. Hau beste gauza bat izan da;

produktzio aldetik izan duen kutsu profesionala igarri dugu. Presioa izan dugu eta hortik asko ikasi dugu, errespetua ematen du. Ikuslea exijentea da eta horrelako azpiegitura duen maila handiko ikuskizunetara ohitua dago. Mundu profesionala zer den ikusi eta ukitu dugu. Horrelako proiektu bat agian bizitzan behin irtetzen da, trenera igo eta aprobetxatu egin behar da.

Nola espresatu duzu Bizkaiaren garapenean burdinak izan duen garrantzia?

Aukeraren ukitua dute koreografiek, dantza tradizionaletik ateratakoak. Baina ikuskizun honetan diziplina ezberdinetako dantzari

berriek bestelako ukitua eman diote. Garaiko koreografiak ere sartzen saiatu naiz eta garaiko arte ikuskizuna egitea izan da nire asmoa. Esaterako, flamenkoari keinu bat egiten diogu pasarte batean; izan ere, etorkinak ere etorri ziren Euskal Herrira burdinagatik. Unai Elorriagaren gidoiak asko lagundu dit koreografiak egiterakoan.

Bizitza eskaini diozu dantzari.

Nire bizitza guztia da, ez dakit zer izango nintzatekeen dantzari izango ez banintz. Ez dut beste mundurik ikusten.

Dantzaria izatearen gogorrena?

Diziplina oso gogorra behar duzu. Ordu asko eta lan handia. Adibi-

dez, 30 segundoko koreografia bat egiteko orduak eman behar dituzu, dedikazio handikoa da, baina merezi du. Ni profesionala naiz, baina nire dantzariak ez, eta hori oso gogorra da. Baina poztekoa da, hemengo jendearen aldeko apustua egin behar da-eta.

Eta onena?

Emaitza eta errekonozimendua. Arriagan oharkabea ez garela pasatu ikusteak sekulako satisfakzioa ematen ditu. Dantza tradizionalaren mundua hor dagoela erakustea ikaragarria da. Dauden dantzari bikainak egonda, zu aukeratu zaituzte, eta hori pozgarria da. Hemengo dantzariak errekonozitu egiten dira.

97an, zaletasuna ogibide egin zenuen Aukeran konpainiarekin.

14 urte daramagu eta bost ikuskizun luze egin ditugu. Ibilbidea badago eta jendea ez zaio oharkabea pasatu. Gero eta jende gehiago joaten da ikuskizuna ikustera eta badauka bere publikoa. Zirkuitu batean gaude eta izen bat dauka Aukerarekin. Mundu honetan 14 urte irautea zaila da. Aurrera egiteko motibazioa da. Publikoaren erantzuna behar duzu eta hortik bizi zara; erantzuna ona bada, aurrera egin behar da.

Euskaldunok badaukagu ohiturarik horrelako dantzak ulertzeko?

Oraindik asko kostatzen zaigu, baina pixkanaka badao aurrera. Azken urteotan ohartu naiz jendeak gauza desberdinak ikustea onartu duela; aldaketa beharrezkoa zela onartu du jendeak.

Badago aukerarik Euskal Herrian dantzatik bizi izateko?

Ni ez naiz kexu, pribilegiatua naiz, baina oso zaila da. Dantzari moduan bizi denik ez dago

Euskal Herrian; nik eskolak ematen ditudalako, bestela ia ezinezkoa da une honetan.

Euskal Herrian dantzak aurrera egin badu ere, oraindik bide luzea egiteko dagoela uste duzu?

Asko dago egiteko oraindik. Azpiegitura gehiago behar ditugu, laguntza behar da eta dantzaren aldeko apustua egin behar dute eta bultzatu egin behar dute.

***Burnia* ikuskizuna Debagoienan ikusteko aukerarik izango da?**

Nire asmoa da ikuskizuna formatu txikiagoan Euskal Herriko herri ezberdinetara eramatea. Irailtik aurrera hasi nahiko nuke. Eta, zelan ez, Debagoienara ere joango gara!

"Mundu profesionala zer den ikusi eta ukitu dugu"

"Dantza nire bizitza guztia da; dena eman dit"

"Publikoaren erantzunak aurrera egiten laguntzen du"

Goienako kazetarien twitter kontuak martxan

Herrietako berriemaileek eta gai zehatzen jarraipena egiten duten kazetarienak dira

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Oraintsu arte GOIENAK komunikatzeko twitter kontu bakarra izan du, @goiena izenekoa eta kontu horretatik ematen ziren sareko informazioa eta komunikazio taldearekin lotutako informazio puska guztiak. Aurrerantzean herri bakoitzeko berriemaileak arduratuko dira euren herriei dagozkien kontuak elikatzeaz eta albisteak emateaz gain hitzordua gogorarazi, herriko istorioak, komentarioak eta informazio gehigarria eskainiko dute. Iban Arantzabal, GOIENAKo ikus

-entzunezkoen arduradunak azaltzen duenez, ez dago "zalantzarik apustua egiteko eta gure edukia zabaltzeko beste modu bat" dela; eta aldi berean "euskara sare sozialetan agerikoago egitea" dela helburua. Are gehiago, "ez bakarrik gure edukia jarraitzen jende asko jarriko dugulako baizik eta jende hori guztia ere informatzaila izango baita". Hala, herri bakoitzeko berriemaileen *tweet*-ak jarraitu ahalko dira aurrerantzean eta baita ere gai zehatzez arduratzen direnenak. (Alboko koardroan kontu guztiak).

Berriemaileak Twitterren

- ▶ Arrasate: @arrasategoiena
- ▶ Bergara: @bergaragoiena
- ▶ Oñati: @oinatigoiena
- ▶ Aretxabaleta: @aretxagoiena
- ▶ Eskoriatza: @eskogoiiena
- ▶ Antzuola: @antzuolagoiena
- ▶ Aramaio: @aramaiogoiiena
- ▶ Elgeta: @elgetagoiena
- ▶ Kultura: @kulturagoiena
- ▶ Ekonomia: @ekonomiagoiiena
- ▶ Kirolak: @kirolagoiiena
- ▶ Osasuna: @osasanogoiiena
- ▶ Teknologia berriak: @teknonetgoiena
- ▶ Goienako lantaldea: @goiena

iPhonearekin ezingo dira kontzertuak grabatu

J.B. | ARRASATE

Zuzeneko emanaldiak bideoz grabatzea galaraziko duen sistemaren patente erregistratu berri du Applek. Aplikazio baten bitartez kontzertu edota zinema emanaldietan kamera blokatzeko sistema abiatzeko asmoa du sagartxoaren konpainiak sentsore infragorri baten bitartez. Sistema berria martxan ipini ala ez, kontzertu eta emanaldien arduradunek erabakiko luke eta horrela sakelakoaren zenbait funtzio blokeatu.

Gaur egun oso ohikoa da kontzertuetan emanaldiak grabatzen jendea ikustea eta ostan Youtube eta antzerako plataformetara igotzea. Modu honetan ohitura horrek eta zinema aretoetako grabaketekin amaitzea bilatzen du Apple enpresak.

Tumblr-en dagoeneko Wordpress-en baino blog gehiago dago

Wordpress dagoeneko ez da blogetan erregea, Tumblr eza-gunak kendu dio erregetza. Izan ere, azken horren hazkunde oso handia izan da. Aurtengo urtarrilean 7 milioi blog zeuden erregistratuta baina egun 20 milioitik gero dira bertan aurkitu daitezkeen erreferentziak. Zehazki, Wordpressen 20.810.782 blog daude eta Tumblr-en 20.932.107 blog. Nahiko paretsu daude biak, hortaz, Enpresek ere azken hilabeteetan Tumblr aukeratu dute bloga ipintzeko.

Internet bidezko ahots-deiak %12,6 hazi ziren iaz

VoIP izeneko zerbitzuaren bitartez eginiko deiek hazkunde izan zuten iaz eta 17.300 dolarreko sarrerak eman zizkieten zerbitzu hori eskaintzen dute enpresei. Sistema horren hazkudean antzerako moduan jarraituko duela aurreikusten dute adituek eta Skyperen aldeko apustua ere nabarmena da. Analistek diote, arazoak arazo, eta Microsoftek erosi eta gero, Skype zerbitzua 2016 urterako, urtean 2.000 milioi dolarreko diru-sarrerak sortzen hasiko dela.

Microsoften euskarazko bertsio gehiago ipini ditu sarean Jaurlaritzak

Tartean 'Office' paketearen iazko euskarazko bertsioa jaitzi daiteke

J.B. | ARRASATE

Office 2010, SharePoint 2010 eta Dynamics CRM 2011 eta Online aplikazioak euskaraz eta doan deskargatzeko moduan ipini ditu Jaurlaritzak Microsoftekin egindako hitzarmen baten bidez. Aurrez software horren ordaindutako bertsioak dituztenek jaitzi ahalko dute euskarazko bertsioa; aplikazio osoa ezin da

jaitzi doan. Jaurlaritzak Microsofti elkarlan honen truke emandako dirua ere ez dute ezagutzera eman baina bi aldeek dagoeneko 10 urtez dihardute batera. Lehen euskaratzea 1996an ipini zuten eskura Windows 95 sistema eragilea eta Word 6 aplikazioa eskuragarri ipinita. Iaz Windows 7 eta Live bertsioak ipini zituzten deskar-



Astehenerako aurkezpeneko unea. | EUSKO JAURLARITZA

gatzeko moduan. Guztira azken 10 urteetan 12 eguneraketa ipini dituzte sarean.

Deskargatzeko

Hurrengo helbideetan eskuratu daitezke aipatutako egunera-

ketak: microsoft.eu/eus eta euskara.euskadi.net/euskara_soft guneean. Azaldu moduan, aurrez kopia legal bat duten erabiltzaileek eguneratu ahalko dute doan euskarazko bertsioa.

Interneten euskarazko erabilerak kalekoa gainditu duela dio Jaurlaritzaren txostenak

Hizkuntzak azken 10 urteetan izaniko bilakaeraren azterketa aurkeztu dute

J.B. | ARRASATE

Eusko Legebiltzarrean aurkeztu berri du Blanca Urgell Kultura sailburuak azken 10 urteetan euskaraz Interneten izan duen bilakaera aztertzen duen txostena. "Baikor" moduan aurkeztu ditu sailburuak datuak, euskaraz nabigatzen duten erabiltzaileen kopurua bikoiztu egin dela azalduz, zehazki, 100.000tik 200.000ra. Gazteleraz, baina 400.000 erabiltzaile daude eta gehiago hazi da konparazioa eginez gero. Horre-

la, datuak xehatu ahala ikusten da ikusten da orain hamar urte euskaraz erabiltzaile guztien %20k egiten zuela eta gaur egun datu horrek berdintsu segitzen duela. Urgellek nabarmendu gura izan duen datuetako bat da Interneteko erabilerak kalekoa gainditzen duela, hau da, sarean %23an kokatzen dute erabilerak eta kaleko datuek 15eko ehuneko ematen dute. Interneten gehiago egiten da hortaz euskaraz, konparazio hutsa eginez gero. Kale

neurketek, aldiz, euskararen erabilerak %40an kokatu dute azkenaldian.

Edukiak

Interneten pertsona elebidunek euskarazko zein eduki mota kontsumitzen duten azaltzeko datuak 2008koak dira. Erabiltzaile elebidunen erdiak ez du euskarazko edukietara jotzen eta %22,4k musika edukietara egiten du kontsulta. 2008ko datuak dira, sare sozialen eztanda aurrekoak

baina joeraren erakusle izan daitezke, eta txostenean ere orduko datuak dira ematen dituztenak.

Edukiak

Nabigatzaileak zein hizkuntzatan diharduen kontuan hartzea ere garrantzitsua da neurketa hauen emaitzak baloratzeko. Izan ere, erabiltzaile elebidunek nabigatzaile gaztelaniaz edo ingelesez izaten badute, interneten diharduten hizkuntza erdara dela ulertzen da azterketan nahiz eta nabigatzailea beste hizkuntza baten izanda ere euskaraz jardun. Hizkuntza hobespenari buruzko aldaketak nabigatzailearen konfigurazioan egin daitezke erraz eta gaur egun zenbait nabigatzaile ere badute euskarazko bere bertsioa.

Birus sortzaileak kartzelaratzeko legea ateratu Japonian

Birus bat sortu izanagatik delitugileak hiru urteko kartzelaldiekin zigortu ahalko ditu aurrerantzean Japoniak. Legean zehazten da delitu izango dela "arrazoizko motibo barik" zabaldutako birusa eta isunak 4.380 eurotik gorakoak izango direla. Honekin batera baimena emango die agintariei konfiskatutako ordenagailuetara konektatutako beste ordenagailuen informazioa ere kopia ahal izateko.

Sakelakoetarako aplikazioak banatuko ditu Facebookek

Horretarako Applen plataforma erabiliko du baina berezko zerbitzuak eskainiz. HTML5 hizkuntzan garatuko ditu Facebookek aplikazio berriak eta Safari nabigatzailearen bitartez eskuratu ahalko dira. iPad eta iPhonean dauka begirada ipinita Facebookek eta proiektuan *Farmville* moduko enpresak ere daude interesatuta. Argitu dutenez, Android gailuetarako asmo berak dituzte baina euren lehentasuna eskaintza berriarekin Applen gailuetan martxan hastea da eta hortik abiatuta gainontzekoetara jotzea.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



Irudimen gabeko telesailak

Telesailak edozein katean, goiz, arratsalde eta gauz ikus ditzaitegu. Telesailak dira Espainiako telebistako eskaintzan nabarmentzen direnak. Hala ere, eskaintza nahiko urria dela esan daiteke. Eta telesail batek arrakasta izaten badu, akabo. Gainontzeko telesail guztiak berdinak edo antzekoak izango dira-eta.

Aspaldi honetan Espainiako telesail gehienek iraganera egin dute salto. TVE katean emititzen duten *Cuentame cómo paso* telesaila izan zen aitzindarietako bat. Eta horren atzetik iraganen girotutako istorioak kontatzen dituzten telesailak agertu dira: *Amar en tiempos revueltos*, *La república*, *Piratas*, *Hispania*, *El secreto de puente viejo*, eta abar. Kate guztietan telesail bera ikusten ari garela ematen du. Istorio bera berdin kontatuta eta berdin girotuta.

Atzera begiratu behar dute oraina ez zaielako, agian, gehiegi gustatzen eta etorkizunaren beldur direla ematen du. Baina faktore guztien gaitetik, audientzien beldur dira. Irudimena ahaztu zaie, akaso. Audientzietan pentsatzen ari dira istorioetan eta ikus-entzulean pentsatu beharrean.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 20



Quebrantahuesos proba berbagai

20:45

Quebrantahuesos jokatu zen zapatuan eta horren gaineko mahai-ingurua egingo dugu *Harmailatik* kirol saioan.

13:15 Marrazki bizidunak

13:40 Kantari

14:10 Berbetan

14:45 Berriak

15:15 Klik

15:45 28.Klip

16:15 Gipuzkoa kultura

16:45 Berriak

17:15 Leku txiki bat

17:45 Jaiak: Bergara

18:15 Onein

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Harmailatik

21:30 Magazinea

22:30 Harmailatik

23:15 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 21



Rebea Uberari elkarrizketa

19:45

Aralarrek EAEn daukan batzarkide bakkarra, Rebea Ubera, elkarrizketatuko dugu luze eta zabal, *Magazinea*-n.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Harmailatik

16:00 Hamaika.bit

16:30 Leku txiki bat

16:45 Berriak

17:15 Bi tartean

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Erreportajea: Vostok 108 musika taldea

21:15 Magazinea

22:15 Harmailatik

23:00 Magazinea

EGUAZTENA, 22



Gaurkotasun kontuak hizpide

20:45

Tertulia saioan gaurkotasun gaiak izango dituzte hizpide gonbidatuek Monika Belastegiren gidaritzapean.

13:15 Marrazki bizidunak

13:35 Kantari

14:00 Harmailatik

14:45 Berriak

15:10 Onein

15:45 Hamaika.bit

16:15 Klik

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

17:40 Bi tartean

18:15 Gipuzkoa kultura

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Tertulia

21:45 Magazinea

22:45 Tertulia

23:45 Bi tartean

EGUENA, 23



Sistiagaren erakusketa

22:15

Jose Antonio Sistiagaren pintura erakusketa ikusgai dago Koldo Mitxelena eta horixe eskainiko dizuegu, besteak beste.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Hamaika.bit

15:45 Tertulia

16:45 Berriak

17:15 Nere herrie: Arraioz

18:10 Ipupomamua

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Bi tartean

21:15 Magazinea

22:15 Gipuzkoa kultura

22:45 Magazinea

23:45 Bizitegia

EGUBAKOITZA,



Asteburuari begira

19:45

Asteburuan dauden kultura emanaldiei begira jarriko dira *Magazinea*-n Arritxu Barruso eta Arantzazu Ezkibel.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Ur eta lur

15:45 Hamaika.bit

16:15 Erreportajea: Vostok 108 musika taldea

16:45 Berriak

17:15 Berbetan

17:50 Ipupomamua

18:25 Leku txiki bat

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Gipuzkoa kultura

21:15 Magazinea

22:15 Bertso saioa

22:45 Tertulia

23:45 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

San Juanetan jokatu den pilota partidurako sarrerak zozketan

Urtero bezala, San Juan jaietan pilota partidua jokatu da. Bada, bertara joan nahi baduzue eta sarrerak lortu nahi baldin badituzue, animatu eta parte hartu zozketan. Bi bide dituzue horretarako: deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera.

San Juan jaietan murgilduko da Arrasate Irratiko autobusa

Arrasateko San Juan jaiak ate joka ditugu eta festetako protagonistekin izango gara. Tartean, saiatuko gara Inaxio Azkarraga-Urizar alkate berriaren jaiak nolakoak izango diren jakiten. Beraz, ez galdu jaien inguruan kontatuko ditugunak, 107.7ak azken berriak emango dizkizu-eta.

Marimotots eta Mertxe Rodrigen elkarrizketatuko ditugu

Martitzenean Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ikuskizuna eskainiko dute Monterron parkean. Bada, Mertxe Rodrigen eta Marimotots elkarrizketatuko ditugu 107.7an, martitzenean bertan. Ikuskizun honetako xehetasunak emateaz gain, datorren denboraldiko ikuskizunaren berri ere emango digute.

TELE-ALBISTEAK

Kantari ikuskizunean 839 gaztetxo igoko dira agertokira

Hiru eta bost pertsona bitarteko 198 talde osatu dituzte Debagoieneko 839 gaztetxok

AMIA TXINTXURRETA | ARRASATE Udazkenean grabatuko ditugu Kantari karaoke ikuskizuneko saioak herriz herri eta dagoeneko itxita dago izena emateko epea.

Guztira, Debagoieneko 8 eta 12 urte bitarteko 839 gaztetxok nahi izan dute aurtengo karaokean parte hartu, orain dela bi urteko antzeko kopurua. Eta hiru eta bost pertsona bitarteko 198 talde osatu dituzte.

Taldeak herriz herri

Arrasaten daude talde gehien: 51, hain justu. Bergaran, berriz,

42 taldek eman dute izena, Aretxabaletan 41ek, Oñatin 39k, Eskoriatzan 9k, Antzuolan 8k eta Aramaion 5 taldek.

Kantuen zozketa

Abestiak zozketa bitartez banatuko ditugu eta aste honetan bertan egingo dugu banaketa. Hala, talde bakoitzari kantu bat egokituko zaio eta hori izango da ikuskizun egunerako landu beharko dutena. Talde bakoitzari e-mail bitartez jakinaraziko zaio zein kantu ikasi beharko duen.



4, 3, 2, 1... aurrera! Badator Kantari. | GOIENA

Aste honetan egingo dugu kantuen zozketa eta jakinaraziko dizuegu

Kantu guztien letrak eta MP3ak dagoeneko badituzue zugaz.com/blog helbidean.

Koreografiaren bideoak

Gaztetxoei dantzak irakatsiko dizkieten bideoak ekoizten ere

hasi gara eta laster jarriko ditugu sarean zuek bertatik ikusteko eta ikasteko.

Gogora ezazue karaokean dantza egiteaz gain, kantuen letrak ere ondo jakin behar dituztela gaztetxoek; beraz, animo!

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Irati eta Julene Unamuno
Ekainaren 26an, 5 urte.
Zorionak, mari matrakak! Orain arte bezela Mari-saltzerak, alaiak eta jatorrak izeten jarraitu. Allison, Unax eta Jurgiren partetik.



BERGARA
Iker Bolibar Amor
Ekainaren 26an, 2 urte.
Zorionak, Iker! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



OÑATI
Paul Montero San Vicente
Ekainaren 24an, 3 urte.
Zorionak, piratatzko! Hiru urtetxo! Ondo pasatu zure egunian! Asko maite zaitugu. Aitaxo, amatxo eta etxeko danon partetik.



ESKORATZA
Aimar Azkarate Ruiz
Ekainaren 23an, 4 urte.
Zorionak, Aimartxo! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat aitaxo eta amatxoren partetik.




OÑATI
Aran Ezkibel
Ekainaren 22an, 31 urte.
Zorionak, Aran! Ondo-ondo pasatu eguna eta ingu afaitxon bat celebratuko. Zure kuadrila. Lankideen partetik ere, zorionak!



ANTZUOLA
Lore Kortabarria Arana
Ekainaren 21ean, 3 urte.
Zorionak, ttiripittintxo! Muxu handi-handi bat eta eguna ondo ospatu dagizula. Garazi, Laiene eta familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Izadi Ramos Zumalde
Ekainaren 21ean, 4 urte.
Zorionak, Izadi! Laztan potolo-potolo bat gure etxeko sorgintxuari!



ARRASATE
Aritz Arizmendiarieta
Ekainaren 21ean, 9 urte.
Zorionak, mutikote! Oso ondo pasatu zure egunean ea opari asko hartzen dituzun. Muxu handi bat etxeko partetik. Aupa Athletic!



ARRASATE
Luken Oncala Arroitia
Ekainaren 20an, 8 urte.
Zorionak etxeko partetik. Ondo-ondo pasatu eta patxo handi bat. Maite zaitugu. Aitaxo, amatxo eta Kerman.



ARETXABALETA
Gorka Etxabe
Ekainaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, Getxabe! Zain geunden eta heldu da. Zabaldu duzu uda honetako denboraldiko tendentzia: alkondara dotoreak eta golfeko praka motzak. Bizikleta golfagatik aldatuko duzu? Ea elkartearen afaria noizko prestatzen diguzun. Leonard Cohen eta lankideak.



ARRASATE
Oier eta Jurgi Etxebeste
Oierrek, ekainaren 19an, 9 urte eta Jurgik, ekainaren 30ean, 6 urte. Zorionak eta patxo ugari famili guztiaren partetik! Aupa, hirukote!




OÑATI
Ibai Zugasti Sarasketa
Ekainaren 19an, 4 urte.
Zorionak, pitxin! Mutil handi... Oso-oso ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxeko partetik.




BERGARA
Arantzazu Ezkibel
Ekainaren 22an, 31 urte.
Zorionak preioxia! Azazkal dotore eta polit horiekin ezingo zara ba eskalatzera joan! Ondo pasa eguna eta muxu handi bat Goienatarron partez!



BERGARA
Maddi Oregi Alberdi
Ekainaren 18an, 7 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian? Muxu handi-handi bat aitaxo, amatxo eta Anderren partetik.



ESKORATZA
Iker Fernandez Sedano
Ekainaren 18an, 10 urte.
Zorionak, txapeldun! Muxu handia zure familiaren partetik eta bereziki zure arreba Junek.



ANTZUOLA
Xabat Askasibar
Ekainaren 18an, 10 urte.
Zorionak, Xabat! Etxeko guztion partetik muxu handi bat.



ANTZUOLA
Paula Iturrino
Ekainaren 18an, 94 urte.
Zorionak, amama! Familia guztiaren partetik eta bereziki zure lau bilbilobak, Nahikari, Oinatz, June eta Alain.



OÑATI
Iñaki Alonso Agirre
Ekainaren 18an, 9 urte.
Zorionak eta muxu asko Itziar, Leire, Malen eta etxeko danon partetik.



BERGARA
Christian Rodriguez Irizar
Ekainaren 18an, 14 urte.
Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu Zaragozan eta irabazi torneoa. Gurasoak eta Elixabet.



ESKORATZA
Goizane Bañares
Ekainaren 17an, urtebete.
Zorionak, preioxia! Jada urtebete! Patxo handi bat familien partetik. Mua!



BERGARA
Pello Gallastegui Lete
Ekainaren 16an, 6 urte.
Familiaren partetik zorionak eta patxo handi bat.



ARRASATE
Iker Alonso Gil
Ekainaren 15ean, 13 urte.
Zorionak eta patxo mordo bat etxeko partetik!



ARRASATE
Unai Alonso Gil
Ekainaren 15ean, 13 urte.
Zorionak eta patxo mordo bat etxeko partetik!



OÑATI
Aitor Casado Biain
Ekainaren 15ean, 6 urte.
Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Anartz Calleja Arribillaga
Ekainaren 14an, 4 urte.
Zorionak, bihotza! Familia guztiaren partetik muxu handi bat! Segi gure bizitzak alaitzen.



OÑATI
Gizane Martin Guridi
Ekainaren 13an, 7 urtetar. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi-handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Uxue Zubizarreta Agirrezabal
Osintxuko Uxuek ekainaren 12an, 8 urte bete zituen. Zorionak eta urte askotarako etxeko partetik. Mua.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte GOIENAKO ordezkari bat.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Aiala Cano Fernandez

Bergara 3,490Kilo. Ekainaren 13a. Gurasoak: Saioa eta Luismi. Argazkian, umea aitarekin.



Irati Cenciaga Oteiza

Gasteiz 3,470Kilo. Ekainaren 11. Gurasoak: Marta eta Eneko. Argazkian, umea gurasoekin.



Aner Ibarondo Vicente

Arrasate 3,710Kilo. Ekainaren 11. Gurasoak: Aitziber eta David. Argazkian, umea gurasoekin.



Amets Arrizabalaga Zubikarai

Antzuola 4,220Kilo. Ekainaren 11. Gurasoak: Maite eta Eloy. Argazkian, umea gurasoekin.



Irati Elola Carton

Aia 2,910Kilo. Ekainaren 14a. Gurasoak: Ixaskun eta Iker. Argazkian, umea aitarekin.



Maren Alonso Bastida

Arrasate 3Kilo. Ekainaren 14a. Gurasoak: Tania eta David. Argazkian, umea aitarekin.



Jakes Gisasola Altuna

Eibar 3,130Kilo. Ekainaren 15a. Gurasoak: Idoia eta Aitor. Argazkian, umea amarekin.



Lorea Kortabarria Alvaro

Arrasate 3Kilo. Ekainaren 15a. Gurasoak: Amaia eta Aitor. Argazkian, umea gurasoekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Lepo	Ibai bokale zabala	Biraok esaten ditu
Bularretik xurgatu		Festa gehiegizkoa	Jokorako makila
	Uretako		
	Borrokari		
Fardel	Angira kumea		
* Azerbaijango hirib.	Diosal hitza	Trebe, abil	
		Jaiera	
Eskas			Kontso-nantea
Dei eginez			Informazio unitate
		Igarobide	
		Errepikatuz, musu	
Landare mota			
Landare mota			
			Egoskari mota

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

E	T		A	V	I	N	O	E	P
L	O	I	R	P	A	R	X	T	D
I	B	I	K	A	I	K	A	I	B
G			K	A	R				K
O	I	A	I						B
A	L	U	L						P
R		T	A	R					
I		S	O						E
B		E	I						

A	T	O	C	O	S	E			
A	V	A	V	A	V	T			
A	V	A	V	A	V	O			
A	V	A	V	A	V	X			
A	V	A	V	A	V	A			
A	V	A	V	A	V	T	X		
A	V	A	V	A	V	A			
A	V	A	V	A	V	A			
A	V	A	V	A	V	P	Z		
A	V	A	V	A	V	A			
A	V	A	V	A	V	E	T	O	
A	V	A	V	A	V	A			

7	1	3	6	2	8	4	5	9
4	5	6	1	9	2	3	8	7
9	8	2	5	4	7	1	6	3
8	3	1	6	2	9	7	5	4
6	5	8	4	3	1	7	2	9
2	4	7	5	6	8	9	3	1
4	2	8	9	7	5	1	6	3
3	1	6	3	8	2	4	7	5
9	2	5	1	4	3	8	9	6

SUDOKUA

	7	5		4				2
		3	6		2	4	7	5
	2	8	9					
	4			6	8	9		
5			4					2
					7	5		8
	6			4				
8								5
9			8		3			



HIZKI SALDA

Topa itzazu bost kapela mota.

K	F	E	D	O	R	A	A	A
A	E	T	O	P	E	O	N	A
P	Z	A	A	A	P	A	A	A
A	A	A	A	M	E	A	A	A
T	X	A	P	E	L	A	A	A
X	A	A	A	L	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A
T	A	A	A	A	A	A	A	A
E	S	A	L	A	C	O	T	A

HIEROGLIFIKOA

Jolasean.



Hieroglifikoak:
Pilotan.

AI, ENE!

Kosta ala kosta, leihoak garbi

Ez dakigu garbitzaile honek lane-ko segurtasunari buruzko ikas-tarorik jaso duen. Hala bada, ez dirudi gehiegi ulertu duenik.
www.sarda.es



AHOBERO

"Euskal Herriaren antza du Asturiasek, baina 300.000 putaseme gutxiagorekin".

CARLOS MARTINEZ GORRIARAN | UPYD

UPyDko kide den Gorriaranek horrelaxe erantzun zion Asturiasera joatera gonbidatu zuen lagun bati. Eta esan du gainera harrituta dagoela Twitter bidez botatako esaldi honek eragin duen polemikarekin. Guri, harrituta izana egiten zaigu harrigarria.
www.twitter.com

EGURALDIA



Max. 29°

Min. 13°

Giro eguzkitsua izango dugu baina beroaren eraginez bero-hodeiak garatuko dira.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-06-20

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Jon Artano Oporretara joan berri den *Hitzetik Hortzera*-ko zuzendari eta aurkezlea da egun zestoarra, nahiz eta askok, baita guk ere, oraindik *Sorginen Laratza*-ren inguruan galdetu | TXOMIN MADINA

"Fakultatean gutxi ikasi nuen; nik lanean ikasi dut"

1. Bertsozalea, bokazioz ala lanbidez?

Bokazioa baino, afizioa da bertsozaletasuna. Ni lehendik nintzen bertsozalea; orain beste ikuspegi batetik bizi dut, baina aurretik ere banintzen.

2. Hitzetik Hortzera-n zeu zara zure zuzendaria. Nolako zuzendaria zara?

Nire buruarentzat txar samarra esango nuke: konformagaitza, zorrotza; loreak emateko zekena eta kritikak egiteko nahiko gogorra.

3. Hogeitortetik gora dituen programa baten, posible al da bertsozalea izatea?

Uste dut baietz; gu horretan saiatzen gara behintzat! Pentsatuko bagenu berri ezin dela, etxera joatea hobe genuke. Berriro daiteke, beste kontu bat da ez dela erreza.

4. Zer nolako elkarrizketatuak dira bertsolariak?

Euren jarduna jendaurrekoa izan arren, beste edozein bezain lotsatiak dira bertsolariak; baina beste alde batetik, oso mezu interesgarria duen jendea da.

5. Txapelketa barik, bertsolariak izango luke etorkizunik?

Nik uste baietz. Txapelketak egon aurretik, beste era bateko lehiak zeuden. Auskalo etorkizunean zer etorriko den! Bertsolariak bera, osorik ari da aldatzen eta txapelketak eurak ere bai.



JON POZO

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Arbola gehiago landatuko nituzke"

"Garbi daukat: galarazi egingo nuke sagardoa hotzegi ateratzea eta menuko postreetan gazta eta menbrillorik, eta horretaz aparte, arbolak landatu behar direla uste dut. Azken hori eskatu egiten diet alkate, lehendakari eta politikan dagoen jendeari".

6. Eta bertso bat botatzea eskatuko banizu?

Kuadrilako bat eta biok ibiltzen gara, baina nahiko eskasak gara. Gainera, normalean, hasten garenean ez da burua argien izaten dugun momentua.

7. Fakultatean ikasitakoek, balio dute *Sorginen Laratza* bezalako programa baten?

Fakultatean gutxi ikasi nuen nik; nik lanean ikasi dut. Fakultateko urteei zukurik ez ateratzearen eta lanean goizegi hastearen damua dut. Nolako den halako programa baten lan egitea? Ez dakit, baina arrastoa uzten du: horren adibide, zuk galdera hau egitea.

8. Kamara aurrean edo atzean, non gusturago?

Erreta bukatu nuen kamara aurrean eta nahita ezkutatu nintzen. Orain ere, ia istripuz nago kamara aurrean: ez zegoen aurrez pentsatuta, eta ez nire erabakiz. Atzeko lana errazagoa da; aurreko lana ondo egitea ez da erreza.

9. Anai bikiari zenbatetan eskatu diote autografoa zeu zarelakoan?

Autografoak eskatu ez dakit; baina beroa eman, dezentetan, inongo kulparik izan barik.

10. Udan non ikusiko zaitugu?

Georgiara noa bizikletan ibiltzera. Ia udaro goaz bizikletan ibiltzera. Oso Europa zalea naiz eta gustuko dut oraindik uniformizazioa heldu ez den tokietara joatea; iragarri joatea bezala da.

BIHARAMUNA



MARIA AGIRRE

Supermerkatuko langilea, eta?

Azkenaldian, supermerkatuko langileen inguruko komentarioak irakurtzea suertatu zait. Javier Vizcaino irrati esatariak, kazetaritzan omen dagoen bokazio faltaz ari zela, esaten zuen, kazetari askok ez dutela bokazioa, eta kazetari lana egiten dutela hipermerkatu batean kutzazain lana egin zezaketan moduan. Medikuen ez dakit zein elkargok ere adibide horretara jo zuen, 10 urte barru medikuak soberan izango direla eta supermerkatuan lanean bukatuko dutela esanez.

Klasista kutsua hartu diet komentarioei. Vizcainok esan nahi du automatik bezala lan egiten dutela superretako kutzazainek, pentsatu gabe, robot bat jarri edo kutzazaina antzera? Besteek, berriz, apokalipsia aurreikusten dute: kontuz medikuntzarekin, supermerkatuan bukatuko bait duzu, gutxi gorabehera, tokirik txarrean. Medikuntza ikasteko esfortsua egiten duenak, jakina, horretan nahiko duela lan egin. Baina garai hauetan, batzuen egoera ez da txantxetako. Edo bestela galdetu hemen diren errumaniarrei. Inge-niariak ere badira horietako batzuk, eta txatarra jasotzen lan egiten dute. Jateaz ari garenean...

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

OPARIA
Indukzio-plaka
uztailaren
15a arte

